goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2012-05-18
EGUBAKOITZA
509. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Lehendakaria autogobernua defenditzen dabil"



**Oscar Rodriguez**
PSE-EEko legebiltzarkidea | 8

## Mundu bat kultura Mundumiran | 31



LAPEGATINA.COM

Julian Zelaia omenduko dute bilobek bihar, zapatua, Oñatin | 11



Antzuolan San Isidro azoka egingo dute baserritarrek | 25

oskorri 18 abestiz osatutako errepertorioa ekarriko du Oskorrik Elgetara | 32



Mikel Gonzalez, Arrasateko erdialdean ateratako erretratuan.

XABIER URTZELAI

# "ESTUTASUN BARIK AMAITU DUGU, ETA ETXEKO JENDEAZ; URTE POSITIBOA IZAN DA"

Oporrak hartu aurretik gaur izango du Mikel Gonzalezek (Arrasate, 1985) Realarekin azkeneko lan-saioa. | 28

**HARIRA** SAIOA | GOIENA TELEBISTA

## "Ehiza postu gehiago sortuta proba egitea da asmoa"

EUGENIO OTSOA
Leintz Gatzagako alkatea | 27



# Debagoieneko euskal eskola egiten, 10 urte

Goieskola, bailarako eskola publikoa, ospakizunetan | 2

## "Plazak beteta kartzelak husten joango gara"

'Herrira' ekimenak biharko egin du hitzordua | 5

## Mailaz igotzeko azken aukera Ford Mugarrik, Elxen | 14




ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4
ELKARRIZKETA 6 | GUTUNAK 8 | HERRIAK 11
KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

**SINADURAK**


**Ez gara konplizeak** | 6
ENEIDA ITURBE


**Irratiak sorrarazten duena...** | 6
MIREIA BIKUÑA


**'Spain is different'** | 12
AITOR IZAGIRRE


**'Hakuna matata'** | 17
JOSU ELORTZA


**Gor, mutu eta itsu** | 40
AINTZANE OIARBIDE

# Euskal eskola debagoiendarra egiten, 10 urte

- Goieskolak, bailarako eskola publikoak, 10 urte ditu
- Hezkuntza publikoa bailarara egokitzea lortu dute
- Kanpoan ere, erreferentea da Goieskola sarea



Goieskolako ordezkariek taldeko argazkia atera nahi izan zuten martitzeneko prentsaurrek

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Debagoieneko euskal eskola publikoko ikasle piloa Antzuolan dira batzekoak, 10:00etan hasita, Debagoieneko Joko eta Jolas Tradizionalen X. Topaketetan. Lehia egin barik, Antzuola, Bergara, Oñati, Eskoriatza, Aramaio, Elgeta, Arrasate eta Aretxabaletako ikasleek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolas egiteko aukera dute gaur. Jolasa: azken baten, modu polita Goieskolak, Debagoieneko euskal eskola publikoak, bere 10. urteurrena ospatzen jarrai dezan.

Zer ospatu badago, Goieskolako arduradunek martitzenean prentsaurrekoan azaldu zuten moduan. Eskola publikoa guztiz aldatu eta Euskal Eskola Publiko bihurtu dute; Debagoienera egokitu dute, bertako beharrei eta ezaugarriei erantzunez; eta administrazioek ipinitako mugak gainditu dituzte, bi lurralde historiko –Araba eta Gipuzkoa– hartuz eta bailara baten zentratuz. Hala, Debagoieneko eta Euskal Herriko mugetatik haratago ere erreferente da orain Goieskola.

Aurrera begira, euskal eskola publikoaren etorkizunaren gaineko Haratago izeneko txostena aurkeztu zuten Goieskolakoek.

**Garai gogorretan aurrera**

Orain 10 urte, Debagoieneko eskola publikoetako 11 zuzendariek indarrak batzeko beharra ikusi zuten. Orduko egoera gaurkoarekiko oso desberdina zen, Goieskolako presidente Kepa Altubek Arrasate Irratian kontatu zuen moduan: "Eskola Nazionalaren kutsua zuten ikastetxeek; A eredua ere oraindik bazegoen; parte-hartzea ez zen oso handia… Kezka horiei oratzeko, zuzendariek elkartea sortu zuten, horren ildoak markatu eta hortik joan ziren: euskara, parte-hartzea, irudia aldatzea… eta nabarmena izan da Euskal Eskola Publikoak egin duen aldaketa eta jendartean izan duen eragina". Egindako aitzindaritza lana eskertu zieten orduko arduradunei martitzeneko ekitaldian.

Beste zailtasun bat ere izan zuten orduan: sarea ez zen gura adina zabala. Izan ere, orain 10 urte, Haur eta Lehen Hezkuntza, eskola txikiak eta Bigarren Hezkuntza hartzen zituen sareak. Urteak joan ahala, sarea osatuz joan da, eskaintza handituz, eta gaur egun adin guztiak hartzen ditu Euskal Eskola Publikoak Debagoienean: Haur Hezkuntza, eskola txikiak, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta goi mailako zikloak, eta Helduen Heziketa Iraunkorra (EPA).

**Ikasleekin konprometituak**

Oso lorpen garrantzitsua izan zen ere Goieskola Debagoieneko euskal eskola publikoa izatea: unean uneko administrazioari, batik bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikita eta haren mende dagoen ikastetxe sare bat Debagoienari egokitu eta bere izaera ematea lortu zuten, eta Debagoieneko jendarteari interesatzen zitzaizkion kontuak eta erronkak aurrera atera zituzten, Kepa Altubek Arrasate Irratian gogoratu zuen moduan. Besteak beste, Debagoieneko eskola publiko osoan D eredua, euskarazko hezkuntza eredua txertatu zuten.

Goieskolaren historiako mugarri edo une inportanteenetariko bat 2005-2006 ikasturtean izan zen, Heziketaren Aldeko Manifestua delakoa egin zuenean. "Arduradunek garbi zeukaten ikaslea izan behar zela hezkuntza sistemaren zentroa, eta administrazioak ezartzen zuen estuasuna gainditu nahi zutela", esan zuten gaur egungo zuzendariek martitzenean. Manifestu hartan, "heziketa sistema humanoagoa eta eraginkorragoa" sortzera konprometitu ziren, eta eskola eta gizarte osoarekin baina, "batez ere", hezi nahi zituzten neska eta mutikoekin sentitzen zuten konpromisoa berretsi zuten. Familien

**DATUAK**

**5.891**
IKASLE

Debagoieneko euskal eskola publikoan, maila guztiak hartuta –Haur Hezkuntzatik erretiratu ostera arte–, 5.891 ikasle dabiltza.

**14**
IKASTETXE

Bailarako bederatzi herrietako 14 zentrok osatzen dute Goieskola. Horietan lanean 620 langile dabiltza oraingo ikasturtean.

**7**
URTE

Goieskolak orain zazpi urte egin zuen Heziketaren Aldeko Manifestua, bere mugarri bat: bere gain hartu zuen elkarbizitza hobea lortzeko erronka.

**ESANAK**

**"Instituzioen mugak ere gainditu ditugu: Gipuzkoan eta Araban gaude"**
KEPA ALTUBE
GOIESKOLAKO PRESIDENTEA

**"Mugimendu orijinala da, borondatez sortutako sare autonomoa"**
ALFONSO VAZQUEZ
HOBEST-EKO KONTSULTOREA

**"Eskola publikoaren aldekoak gara, kalitatezkoa eta anitza delako"**
LURDES JAUREGIALTZO
AMA

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2012
maiatzak 19
ekainak 16
uztailak 21
irailak 15
urriak 20
azaroak 17

Antolatzailea: Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Mondragón – Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte – Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



koa eta gero. | MONIKA BELASTEGI

## Hamar ikasturte eta hamar mugarri

**2000-2001** Goieskola 2000-2001 ikasturtean sortu zuten orduko zuzendariek. Eskolen diagnostikoa egin zuten.

**2001-2002** Aniztasunaren eta Kulturartekotasunaren Kongresua eta Eskolarteko Kirol Jardunaldia antolatu zituzten 2001-2002 ikasturtean.

**2002-2003** Goieskola Hezkuntza Proiektua aurkeztu zuten.

**2003-2004** Webgunea aurkeztu zuten. Orain gutxi berritu dute, eta helbide honetan dago: *www.goieskola.hezkuntza.net.*

**2004-2005** Pribatu-publiko bikoizketaren gainean hausnartu zuten Goieskolak; zehazki, 0-2 urte arteko etaparen gainean.

**2005-2006** Hezkuntzaren Aldeko Manifestua jendarteari aurkeztu zioten Goieskolako arduradunek.

**2006-2007** Irudi korporatibo berria aurkeztu zuten. Gainera, *Lana, familia, haurrak, eskola... bateragarria?* delako jardunaldia egin zuten.

**2007-2008** Atzerritarren integrazioa eta hizkuntza bateratuen trataera esperientzien gaineko jardunaldia egin zuten.

**2007-2008** Atzerritarren integrazioa eta hizkuntza bateratuen trataeraren gaineko jardunaldia egin zuten.

**2008-2009** Curriculum berria, elkarbizitza eta etorkinen integrazioa landu zituzten.

**2009-2010** Goieskolatek jardunaldiak egin zituzten, teknologia berrien gainekoak.

**2010-2011** Ikastetxeen arteko komunikazio eta koordinazioaz hausnartu zuten.

parte-hartzea ere gero eta sendoagoa egiten joan zen, eta gaur egun, ikasleak bakarrik ez, haien familiak ere Goieskolako protagonistetako batzuk dira.

Datozen urteotarako helburuen artean, eskolaren autonomia eta izaeran sakontzen jarraitzea dute Goieskolan. Beste helburu zein erronka hauek ere badituzte: Goieskolan egiten ari direna erakustea eta konpartitzea; Debagoieneko Euskal Eskola Publikoan egiten diren praktikek ekartzen dutenaren mamia biltzea eta zabaltzea; eskola publikoaren oihartzuna handitzea; elkarbizitza eta parte-hartzea indartzea; familia eta eskola gero eta gehiago lotzea; informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez ikasleen gaitasunak eta metodologia berriak lantzea, eta beste hainbat.

### Errekonozimendu zabala

Goieskola erreferente bihurtu da Debagoienean eta kanpoan. Gure eskualdean, Debagoien osoan sortzen den elkarte bakarrenetariko bat izan delako; eta, ikastetxe edo eskolen zuzendarien elkarte soil bat baino askoz gehiago delako: sarea, lantaldea. Altuberen esanetan, asko kostata lortu dute errekonozimendu hori: "Gu kontuan hartzea kostatu zaigu, hemen, Hezkuntza Sailaren aldetik...". Baina lortu dute.

Horrela bada, Goieskolak beste erakunde batzuekin lan egiten du, nortasun osoz: Hezkuntza Sailaz gain, Sarean (EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak), Bihe (institutu publikoetako zuzendariak), Ikaslan (EAEko Lanbide Heziketako zentro publikoak) edo Ehige (euskal eskola publikoko gurasoak) elkarteekin dihardu. Hain zuzen, Bihe, Sarean eta Ehigek Haratago izeneko txostena egin dute, hezkuntza publikoaren erronken inguruan, eta dokumentu hori aurkeztu zuen Goieskolak martitzenean. Besteak beste, premia hauek azpimarratzen dituzte: erakundeen artean elkarlana, ikaskuntza etengabe hobetzea, Eusko Jaurlaritzak eskola publikoen sareari diru gehiago ematekoa (inguruko herrialde garatuenen Barne Produktu Gordinaren zati berbera eskatzen dute), baztertze arriskuan daudenak bereziki hezkuntzan txertatzea, kudeaketa ekonomikoa deszentralizatzea eta ikastetxe bakoitzak bere ekonomia-proiektua egitea, edo zentro berriak egin beharra.

## Denen artean egindakoa

Bailarako eskolen sareak 32 orriko eta koloretako *Goieskola 10 urte* delako aldizkaria egin du, eta familia guztiei eta hainbat erakunderi banatu die. 10 urte hauetan ikastetxe bakoitzak egin duen proiektu baten gaineko artikuluak daude, askotariko gaiekin: metodologia aldaketak, euskara, elkartrukeak, Eskola 2.0... Goieskolaren historia gainbegiratu dute horrela.




Aldizkariaren azala. | GOIESKOLA



# Miguel Altunako ikasleak onenen artean EuskoSkills 2012 lehiaketan

## Lau ikaslek jaso dute saria Ficoban jokatu berri den sariketa horretan

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Lanbide Heziketa eta Etengabeko Formakuntzaren Sailburuordetzak maiatzaren 9tik 12ra bitartean antolatu zuen EuskoSkills lehiaketan, Bergarako Miguel Altuna Institutuko 5 ikaslek parte hartu zuten eta horietatik 4 sarituak izan dira. Irungo Ficoban jokatu da lehiaketa.

Lanbide Heziketako erakustoki paregabe horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko 120 ikasle inguruk hartu dute parte 18 modalitatetan.

Miguel Altuna Institutuko ikasleak, 18 modalitate horietatik 4 modalitatetara aurkeztu ziren: Mekatronikara, CNC Torneaketara, CNC Fresaketara eta CAD diseinu mekanikora.


Ozaeta eta Martin, Mekatronikako irabazleak, irakaslearekin. | GOIENA

### Lau saritu

Hauek izan dira Miguel Altuna Institutuko sarituak: Javier Ozaeta eta Roberto Martin, Mekatronika modalitatean txapeldunak izan dira; Jokin Osak CNC fresaketan bigarren postua lortu du, eta Endel Calderonek, hirugarren egin du CNC Torneaketan. Espezialitate bakoitzeko irabazleek EAE ordezkatuko dute 2013ko urtarrilean egingo den SpainSkill lehiaketan. Eta lehiaketa horretan irabazten dutenek Alemanian 2013ko uztailean egingo den WorldSkill lehiaketan hartuko dute parte.

# Ospitale berria ezagutzeko bisita gidatuak egingo dira

## Herritarrek eraikin berria barrutik ikusteko aukera izango dute ekainaren 2an, aurrez izena emanda

**M.B.** | ARRASATE

Ekainaren 18an Arrasateko eskualde ospitale berria martxan egongo da. Hori horrela, Debagoieneko Ospitaleak aukera eman nahi die herritarrei barrutik ikusi eta ezagutzeko, martxan hasi baino egun batzuk lehenago. Horretarako, zenbait bisita gidatu antolatu dituzte.

Lehenengoak instalakuntzak bisitatzen Debagoieneko Ospitaleko eta Lehen Mailako Arretako, hau da Debagoieneko ESIko, profesionalak izango dira. Barruko langileentzako bisitak astelehenean, maiatzaren 21ean, hasiko dira eta aste osoan barrena egingo dituzte.

Hurrengo txanda ikasleentzat izango da eta bailarako ikasleek ere aste osoan barrena egingo dituzte bisitak. Erretiratuendako bisitaldiak ere egongo dira eta osasun arloko zein zenbait herri erakunderendako, enpresetako ordezkariendako eta kazetariendako ere antolatu dituzte.

### Herritarrak ekainaren 2an

Ekainaren 2an irekiko dituzte ateak gainerako herritarrendako. Guztira, 100 lagunek sartzeko aukera izango dute bi txandatan banatuta: 10:30etan eta 12:00etan, eta txanda bakoitzean 25 laguneko bi talde egingo dituzte. Izena emateko 667 15 83 25 zenbakira deitu behar da, maiatzaren 21etik aurrera. Bisitaldietarako izena telefono horretan bakarrik eman daiteke, 09:00etatik 15:00etara –izena emateko ez da zentralitara deitu behar–. Ekainaren 8tik aurrera eta zabaldu arte, itxi egingo dute berriz ospitalea azken ukituetarako.


Eskualde ospitale berriaren sarrera. | GOIENA

# Euskaldunen elkarteen Gunea Eguna bihar Azkoitian

**M.B.** | ARRASATE

Euskaldunen elkarteen Gunea Eguna ospatuko da zapatuan Azkoitian. Topagunea euskara elkarteen federazioak antolatu du, euskaldunen elkarteetako kideentzat bilgune izateko helburuarekin. Hala, elkarteetako bazkide, militante eta langileei egin zaie parte hartzeko dei, eta gonbidatuta daude Euskal Herri osoko euskaltzaleak ere. Horretarako, egun osoko egitaraua antolatu dute eta esperientzien trukea eta jaia izango dira protagonistak. Hala, euskaldunen elkarteetan martxan dauden 25 egitasmo eredugarri aurkeztuko dira, eta elkartekideek aukera izango dute bakoitzak egiten duena gainontzekoei erakustearekin batera, besteenak ezagutzeko. Era berean, euskaldunen elkarteek sortutako materiala ikusgai eta salgai izango da zenbait erakusmahaietan.

Bestalde, adin ezberdinentzako moduko hainbat ekintza izango dira: bazkari herrikoia, musika eta kantua, umeentzako gunea, lagun arteko berriketa, kultur eskaintza.... goizez eta arratsaldez Herriko Plazan.

egaralur
PROMOZIOAK - ERAIKUNTZA LANAK
www.egaralur.net
Eraikuntza lanak.
Industria-nabeen eraikuntza.
Obra zibila – Urbanizazioak.
Industrialde eta etxebizitzen promozioa.
Etxebizitzen eraikuntza
Bidebarrieta 17 behea
Tel.: 943 78 07 15 ▪ Faxa: 943 78 08 62
20560 OÑATI

ULMA Hormigón Polímero, S. Coop. Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**D E I A**

**Eguna:** 2012ko maiatzaren 25a.
**Ordua:** 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena.
**Tokia:** Santa Ana antzokia – Oñati (Gipuzkoa).

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2011ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2012ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2011ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2011ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
6. 2011ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena eta kapitalizazioa
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
8. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak.
9. POGU III eta ULMA Hormigón Polímero, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 42., 43. eta 46. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
10. ULMA Hormigón Polímero, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 27. eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena.
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. Ahalmenak eskuordetzea.
17. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kanpo auditoriak egindako kontuen gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Hormigón Polímero Kooperatiba Elkarteko helbide sozialean, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketen testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2012ko maiatzaren 11

# Erostarbek zerrendakideen "babes osoa" dauka

**M.B.** | ARRASATE

Elgetako alkatetzan aldaketarik egiteke aurrera jarraitzea erabaki du Elgetako Aralar-Independenteak taldeak. "Mila esker, alkatetzan jarraitzeko babesa ematearren", adierazi du Erostarbek. Eta, Rebeka Uberak, Aralarko zuzendaritzako kideak, argi utzi du Aralarrek hartutako erabakiak –hiru legebiltzarkide *kritikoak* alderditik botatzea– ez diola Elgetako alkatetzari eragiten, "elgetarrei eta zerrendako kideei sor dieten errespetuagatik".

Aralar-Independenteak zerrendako kideek zera esan dute: "Erostarbe da baleko aukera Elgeta aurrera ateratzeko. Beraz, eta herriaren borondatea errespetatuz agintaldi honetan aurrera jarraitzea erabaki dugu alkatetzan aldaketarik egin barik eta Oxel Erostarberi babes osoa emanez".

Illart Azkarate | Arrasateko Herrira ekimeneko kidea

# "Plazak beteta, kartzelak husten hasiko gara"

'Herrira' mugimenduak herriko plazak betetzeko dei egin du biharko, presoen eskubideen alde




Illart Azkarate, Arrasateko plazan. | MONDRABERRI

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Herrira mugimenduak *Goazen Plazara* ekimena antolatu du biharko, zapatua. Presoen eskubideen alde plazak bete nahi dituzte. Illart Azkaratek eman ditu azalenak.

**Festa girotik badu biharko deialdiak, baina, batik bat, aldarrikapenekoa.**

Bai. Egunaren muina aldarrikapenean dago. Azkenaldian badihardugu behin eta berriz aldarrikatzen euskal preso politikoek jasaten duten espetxe politika anker horren aldaketa eta horren barruan muturreko egoera nagusiak deitzen ditugun horiek jada konpondu beharreko gakoak direla uste dugu; hala nola zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak askatzea, larri daudenak ere askatzea eta euskal preso guztiak euren eskubide guztiekin Euskal Herrian egotea. Esaterako, Arrasaten ditugun 11 presoetatik, bat bera ere ez dago Euskal Herrian –Debagoieneko bat bera ere ez–; gaixo larri bat daukagu, Josu Uribetxeberria; eta hiru laurdenak beteta zortzi preso daude. Azkenaldian mezu hori zabaltzen ari gara eta biharkoa antolatzeko arrazoi nagusia hori da.

**Legeak berak esanda egon beharko lukete kalean, gainera.**

Bai. Lehenik eta behin, larri dauden presoak ditugu. Bestetik, Auzitegi Konstituzionalak legeztatu berri duen doktrina dela eta, zigorra beteta izan arren espetxean mantentzen dituztenak daude, Unai Parot eta Luis Mari Azkargorta kasu. Bestalde, zigorraren hiru laurdenak beteta espetxean mantentzen dituztenak ere badaude, 25 urtetik gorako espetxealdiekin batzuk. Horiek guztiek Espainiako legearen arabera kalean egon beharko lukete. Zergatik ez dute euren legea betetzen? Zein arrazoi egon daiteke minbizia duen preso bat espetxean mantentzeko? Erantzuna argia da, gure ustez, presoak interes politikoetarako erabiltzen dituzte eta giza eskubideei ezin zaie muga politikorik jarri.

**Plazak bete nahi dituzue kartzelak husteko.**

Bai. Espetxe politika diseinatzen duten politikariak mugitzeko. Eskubide urraketa hauek guztiak eteteko. Hala, espetxeak pausoz pauso hustu beharko direla uste dugu. Lehenengo, larri dauden presoak, zigorra beteta izan arren espetxean daudenak eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak askatzea lortu behar dugu. Hau da urgenteena giza eskubideen ikuspegitik. Baita preso politiko guztiak Euskal Herriratzea ere. Euskal Herriko gero eta eragile gehiagok ez ezik, euren legeak ere hala esaten duelako.

**Lehen urratsa hori. Hurrengoa?**

Gatazka konpontzen doan neurrian eta elkarrizketak abiatzen diren neurrian, munduko herri askotan gertatu den moduan, espetxeak husten joan beharko dira; beteta egotea ez dator-eta bat konponbide prozesu batekin.

**Herrira mugimenduak hasi berri du ibilbidea. Ze egoeratan dago?**

Mugimendua indartzen dihardugu, poliki-poliki bagoaz aurrera. Baina beti dago lekua presoen eskubideen alde lan egin nahi duten guztiendako, ideologia politikotik harago. Azken batean, hori da batzen gaituena: presoen eskubideen defentsa. Hala, dei egin nahi nieke lan horretan jardun nahi duten guztiei, eskuak zabalik hartuko ditugu-eta.

**Eta deia ere bai, biharko, plazak betetzeko.**

Hori da. Euskal Herrian 200 plazatan egongo dira ekimenak. Bilbon urtarrilaren 7an egindako manifestazio kolosalaren ostean, mobilizazioak deszentralizatu eta herriz herri garatzeko apustua egin da. Debagoieneko zenbait herritan ere antolatu dira ekintzak biharko, Arrasaten, Bergaran, Aramaion, Oñatin eta Aretxabaletan, kasu. Urtarrilean Bilbora debagoiendar asko joan ginen, baina presoen egoera ez da hobetu, eta Bilbora joan ginenean baino arrazoi gehiago dago kalera irteteko. Horrenbestez, herritarrak animatu nahi nituzke bihar bailarako plazak betetzera.

**"Presoak interes politikoetarako erabiltzen dituztela argi dago"**

**"Espetxeak beteta izatea ez dator bat konponbide prozesu batekin"**

Nahi baduzu,
**Gasteizen bizi zaitezke** Sartu eta aukeratu!









**Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)**
Ez da beharrezkoa Gasteizen erroldatua egotea. Bi eta hiru logelako etxeak, garajea eta trastelekua **84.736** eurotik aurrera (14.098.889 pzta.).
Informazio gehiago ›

**SALBURUA**
**Toni Morrison kalea**
BOE bat baino pixka bat gehiagogatik, etxebizitza libreak. Hiru logela, garajea eta trastelekua **199.000** eurotik aurrera (33.110.814 pzta.). Atikoak **205.000** eurotan (34.109.130 pzta.).
Informazio gehiago ›

**ZABALGANA**
**Veleia behatokia**
Bat, bi eta hiru logela, garajea, trastelekua eta terraza dituzten etxebizitza libreak. Sukaldea altzariekin eta horma-armairuak **135.000** eurotik aurrera (22.462.110 pzta.).
Informazio gehiago ›

**BOE**
**Alto de Olarizu bizitegia**
Eraikuntza berriko BOE etxebizitzak bi eta hiru logelarekin, garajea, trastelekua eta terraza **131.577** eurotik aurrera (21.892.571 pzta.).
Informazio gehiago ›

TRINOSA Servicios Inmobiliarios
**TRINOSA** Servicios Inmobiliarios
San Pudentzio, 1 - San Antoniorekin izkina
01005 Vitoria-Gasteiz
trivinsa.com
Egunero gehiago eskaintzen dizugu
945 15 15 15

Oscar Rodriguez Vaz | PSE-EEko legebiltzarkidea

# "Urteak beharko ditugu elkarbizitza lortzeko, baina okerrena lortu dugu, ETA amaitzea"

- Lehendakariak egindako lana eta egiteko geratzen zaiona defendatu ditu Rodriguezek
- "Raxoirena ez da doikuntza ekonomikoa, ideologikoa baizik", dio, murrizketen aurrean

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Zazpi urte daroatza Gasteizko Legebiltzarrean. PSE-EEko legebiltzarkide taldeko idazkaria da. Arrasaten bizi izan zen 16 urtera arte, familia Gasteizera joan zen arte. 35 urte ditu. Egungo egoeraz, hauteskundeez, gobernu sozialistaren bakardadeaz... dihardu.

**Arrasatearra eta sozialista izanik, bereziki sufrituko zenuen Isaias Carrascoren heriotza, ezta?**

Bai. Gertuko nuen. Gure futbol entrenatzailea izan zen San Andresen. Entrenatzaile ona. Asko maite genuen. Pertsona ona zen. Beti egin zuen lan auzoaren eta herriaren alde. Penagarria izan zen haren hilketa.

**Zelan gogoratzen duzu hilketa hura?**

Madrilen nengoen, Senatuan, batzar batean. Halako batean, San Andresko lehengusina batek deitu zidan berria emateko. Oso gogorra izan zen. Haren familiarekin harreman handiak geneuzkan. Ulergaitza izan zen Isaias Carrascoren hilketa. Langilea zen. Hil zutenak ez dira ez ezkertiarrak eta ezta abertzaleak ere.

**Bakearen eta Elkarbizitzaren gaineko biltzarra egin dute egunotan Bilbon. Zertarako balioko du?**

Txarrena pasatu da. Bortizkeria, hiletak, atentatuak... Baina zailena da elkarbizitza eta berradiskidetzea. Horretarako da kongresu hau, beste aurrerapauso bat.

**Urrian iragarri zuen ETAk jardun armatua uzten zuela. Ordutik hona, bakea eta normalizazioa lortzeko nahikoa aurreratu da?**

Gauzak astiro doaz, baina normala da. 75 urte eman ditugu askatasun barik: Francoren eta ETAren bortizkeria jasan behar izan ditugu. Orain, hilabete batzuetan, dena konpontzea zaila da. Lasaitasunez egin behar ditugu gauzak. Egoera berrira egokitu eta gero gerokoak. Urteak beharko ditugu elkarbizitza lortzeko. Okerrena bukatu da. Hori da inportanteena.

**Raxoik keinu ageriko batzuk egin beharko lituzke?**

Agian, Zapaterok beste modu batera jokatuko luke. Baina Raxoi dago agintean eta hari dagokio urratsak egitea. Kartzela politikak malguagoa izan beharko luke. Baina, etorkizunari begira, ezker abertzaleari lasaitasuna eskatuko nioke. Urte askoan jasan izan dugu ETAren bortizkeria, eta orain, bat-batean, ezin dezakegu dena ahaztu. Orrialde asko ditu liburuak eta patxadaz irakurri nahi ditugu orrialde guzti-guztiak. Zubi asko berreraiki behar ditugu oraindik.

**Legealdi hau agortuta dago?**

Gutxi geratzen zaio. Azken urtean gaude. Baina ez dago agortuta. 15 lege geratzen zaizkigu onartzeko. Lan asko daukagu egiteko. Aste honetan, esaterako, Udal Legearen emendakinak aurkezteko epea zehaztuko dugu.

**Legealdi honetan Udal Legea onartzeko itxaropenik?**

Gobernuak egin du berea: legea egin eta Legebiltzarrera bideratu. Orain, indar politikooi dagokigu hori adostea. Oso inportantea da udalen autogobernua ere zehaztea eta gure erakundeen egitura berritu eta finkatzea. Lurralde Historikoen Legea badaukagu, baina ez Udal Legea. Eta beharrezkoa zaigu.

**PPren babes barik, zeinekin adostuko dituzue ondorengo hilabeteotan aipatzen dituzun lege horiek?**

Denekin egingo dugu berba. Egia da PPrekin ituna eta tratu berezia izan dugula, baina EAJrekin, EArekin, Aralarrekin eta Ezker Anitzarekin ere gauza asko adostu ditugu.

**Lopezen Jaurlaritza hilda dagoela dio Urkulluk.**

Hiru urte daroatza hori esaten. Lehen egunetik: euskara bukatuko genuela, autogobernua amaituko genuela...

**Inkesten arabera ere, herritarrek ez diote babes handirik ematen lehendakariari...**

Bi helbururekin ailegatu ginen Ajuria Enera: bortizkeria amaitzea eta normaltasuna ekartzea, hain zuzen.

**ETAren desagerpena lehendakariaren meritua izan da?**

Ez bakarrik lehendakariarena, baina badu meriturik. Eta gogoratu behar dut ETAk utzi diola Zapatero eta Lopez gobernuan zirela. Lehendakariak ez du ekarri bakea herri honetara, baina Lopez lehendakari izan ez balitz, agian, atzeratu egingo zen ETAren amaiera.

**ETAren amaieraren iragarpenak lehendakaria Euskal Herritik urrun harrapatu zuen.**

Gauzak ez dira gertatu egun batetik bestera. Baina gure helburua bazen legealdi honetan bakea lortzea. Eta horretarako hainbat politika jarri genituen indarrean, elkarbizitza lantzeko eta bortizkeriari balioa eta legitimazioa kentzeko. Bi helburu horiek bete dira. Horregatik diot Urkulluk ez duela arrazoirik.

**Merezi du egoera honetan jarraitzea? Krisi ekonomiko gogorrarekin eta PP ere kontra edukiz?**

Bai. Oraindik badauzkagu esku artean egitekoak: elkarbizitza landu, autogobernua defenditu Raxoi egiten ari den murrizketen aurrean, krisiari aurre egiteko neurriak hartu eta herri eredu berria planteatu.

**Lopezi leporatzen zaio Madrilera begira egotea eta gutxiago hemengo arazoei begira.**

Lehendakariak autogobernua eta hemengo interesak defenditzen dihardu. Raxoirena ez da doikuntza ekonomikoa, ideologikoa baizik. Hiru mailatan gertatzen da hori, gainera: hezkuntzan, osasunean eta lan alorrean; erakundeei dagokienez ere bai, autogobernua urratuz; eta azkenik, diskurtso mailan. Lehendakaria ari da doikuntza ideologiko horri aurre egiten.

**Hori hala bada ere, zergatik aritu zarete PPrekin eskutik?**

Helburu handiena lortzeko bidelagun izan dugu. Lehendakaria Ajuria Enera iritsi zenean ETAk berearekin jarraitzen zuen. Puelles guardia zibilaren hilketa gogoratu besterik ez dago. Orduan zentzua zeukan PPrekin ituna egitea. Azkenaldian, berriz, ez. Raxoi Madrilen agintean dagoenetik bereziki.

**Aurrekontuak lantzeko unea helduko da udazkenean, eta hori izan daiteke mugarria. Ze aukera geratuko zaio lehendakariari?**

Ez nago lehendakariaren buruan eta hari dagokio hauteskundeak deitzea. Baina urte askoan ikusi dugu aurrekontuak luzatzen Ibarretxe. Edozelan ere, ez gara lurrean tarrasean ibiliko. Adostasunak bilatuko ditugu, baina lortzen ez badugu, etxera!

**Basagoitik dioen moduan, burujabetzaren aldeko poloa osatuko dute EAJk eta Amaiurrek?**

Ez dakit. Nire desioa da etorkizuneko eztabaidak ezker-eskuin parametroetan egitea.

**Amaiurrekin bat etorriko zaretela esan nahi duzu?**

Bortizkeria amaituta, elkarbizitza landu behar dugu, baina eztabaida sozialak ere bai. Zerga politika eta abar. EAJk eta PPk eskuineko politikak defenditzen dituzte.

**Irudikatzen duzu zuek Amaiurko lehendakarigai bat babesten?**

Asko geratzen da horretarako. Batez ere, elkarbizitza berreskuratzeko urrats asko. Bide luzea daukagu elkarlanerako. Orain ez dut posible ikusten PSE-EE eta Amaiur bat etortzea eta guk haien lehendakarigaia babestea. Etorkizunean, inoiz, posible izateko lan egitea tokatzen da oraindik.



Oscar Rodriguez, martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**"Lopez lehendakari izan ez balitz, agian, atzeratu egingo zen ETAren amaiera"**

**"Lehendakaria autogobernua eta hemengo interesak defenditzen dabil"**

**"Adostasunak bilatuko ditugu, baina lortzen ez badugu, etxera!"**

**"EAJk eta PPk eskuineko politikak defenditzen dituzte"**

## ZABALIK

**ENEIDA ITURBE**
http://goiena.net/iritzia/



# Ez gara konplizeak

Mary Poppins filmean protagonistak zaintzen zituen umeen aitak banku batean lan egiten zuen. Mutikoak hasitako protesta baten ondorioz, bezero guztiak bankutik dirua erretiratzen hasten ziren, haren porrota eraginez.

Bankiaren kontua dela eta etorri zait burura eszena hau. Egun, bankuak eta kutxak blindaturik daudela dirudi. Kudeaketa txarra eginez gero, fusionatu egingo dira edo gobernuak erreskatatuko ditu, baina inoiz ez dira pikutara joango. Hipoteka ordaindu ezin duen jendea, aldiz, etxe gabe eta zorrekin geratuko da.

Aspaldian gobernuz kanpoko zenbait erakundek bankuen hainbat jarduera salatzeko kanpainak jarri dituzte martxan. Horietako baten leloak *Bezeroak gara, ez konplizeak* dio. Benetan egokia iruditzen zait. Gure diruak gordetzeko aukera ona izan daiteke banketxe bat, baina horrek ez du esan nahi diru horrekin nahi duena egiteko lizentzia daukanik. Edo ez luke, behintzat, hala izan beharko.

**"Ohiko bankuen aurrean, 'banku etikoa' daukagu alternatiba gisa"**

Banku eta kutxa askok armak ekoizten dituzten lantegietan inbertitzen dute bezeroen dirua, edo giza eskubideak urratzen dituzten proiektuetan. Hala azaltzen du lehen aipatutako ekimen edo kanpaina horietako batek, Banca Armada *(www.bancaarmada.org)* deritzonak. Web orrian armamentuan inbertitzen duten bankuen zerrenda eskaintzen du. Begira ezazue, ustekaberen bat ere izan daiteke eta!

Ohiko bankuen aurrean, "banku etikoa" daukagu alternatiba gisa. Gizartean eragin onuragarria daukaten ekintza ekonomikoak finantzatzen ditu banku etikoak. Euskal Herrian *Fiare* eta *Triodos Bank* dauzkagu, baina Bilbon dituzte egoitzak.

Aldaketa handiak behar diren garai honetan, banku etikora salto egitea edo ohiko banketxeei euron jardueren gaineko kontuak eskatzea pauso txikiak dira. Hala ere, ziur nago aldaketa txikiek, bata besteari gehituta, ondorio nabarmenak izan ditzaketela. Laga diezaiogun, bada, konplize izateari!

## USTEAK USTE

**MIREIA BIKUÑA** | mbikuna@goiena.com

# Irratiak sorrarazten duena...

Oñati Irratian ezagutu nuen hedabide hori. 15 urte luze egon nintzen zuzenekoak egiten. 2006an Goienan hasi nintzenetik, papera eta telebista ezagutu ditut. Orain, berriro itzuli naiz irratira, Arrasate Irratira. Teknikari lanak ahaztuta nituen, baina ahaztu ez dudana da zuzeneko batek sorrarazten duena: urduritasuna, egonezina, tripako mina... baina batez ere, emozioa. Zuzeneko bat egitea ikaragarria da, azkarra, zoratzeko modukoa. Baina saio bukatu ondoren geratzen zaizun sentsazioa ederra da. Adrenalinak gora egiten du irratsaioaren indikatiboa sartzen duzunean. Irratia probatzen duenari, barruraino, zainetaraino sartzen zaio sentsazio hori.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Futboleko elastikoen zoramena

**Leire Narbaiza**
http://eibar.org/blogak/antigona/

Azken boladako joerarik deigarriena.

Ezagutzen nauen edonork badaki ez naizela futbolzalea, are gutxiago futbol-eroa. Baina pasa den asteko fenomeno paranormalak kontu askori pare bat buelta emanarazi dit. Izan ere, hainbeste jende ekipo bateko kamisetarekin ez dut inoiz ikusi futbol zelaitik kanpora, behintzat!

Egia esatera, gure belaunaldiko mutilek, umeak ginenean, ez zuten kamisetarik izaten, eta bazeukanak jaunartzean opari-edo jasota zuen. Nire inguruan inork ez, agian neska eskola batera joan nintzelako eta nire ume-mundua oso femeninoa zelako: nire lagunak neskak ziren eta bere familian ia guztiek ahizpak zituzten. [...]

Orain, ostera, izan litezke zaharrenetan zaharrenak, tripadunak eta zatarrak edo jaio berriak. Berdin dio, garrantzitsuena koloreak dira.

Antza denez, Frantziako Tourrean euskaldunak animatzeko ere ezinbestekoa da euskalduntasuna erakuste aldera, Hego EHko ekipo bateko kamiseta eramatea!

Hala ere, gehien harritzen nauena egunero eramatearena da, edozein egunetan arropa normala balitz bezala. Agian, hemen dugun mendiko moda horren beste adar bat baino ez da; edo *txandalismoarena* (etorriko da, lasai, honen gaineko apuntea). dena den, egunero jantzte hori oso praktikoa omen da, horrela aitortu dit nire blog-kideak: garbitu eta sikatu arin-arin, lisatu barik. Praktikoagorik? Ez. Nik ere planteatu beharko dut, agian ;-)

Aparteko arreta merezi dute futbol talde handietako kamisetek. Lehen ez ziren orain bezala aldatzen urtero, ez zegoelako negoziorik, lehen esan dudan moduan. 3 eta 4 kamiseta izaten dituzte, eta denborarekin munstro batzuk ere ikusi ditugu.

Diseinu ez hain itsusi batek @AnaisNi-ri atentzioa eman zion, eta ni ohartu. Elastikoa ez da oso motza (ez bizkaitarrentzat: itsusia, zatarra), baina atzeti badirudi boleroa jantzita daramatela! Oso irudi bitxia! Gainera gola sartu osteko besarkada/musu/igurtzi/zurri saioaren ostean, maskulinitatearen gotorlekua diren futbol taldeetan bitxia, benetan!

Polemika ere sortu da publizitatea jartzearekin, athetic-en kasuan, kamiseta "zikintzen" zuelakoak. Ai, ama! entzun behar dena belarriak edukitzeagatik!

Errealak eta Athleticek ligak irabazi zituztenean elastikoak, eta ekpazioak oro har, askoz estuagoak ziren. Gure nerabezaroko mito erromantiko-sexualek kamiseta pegatuak eta prakatxo laburrak zerabiltzaten, #sesisesi totala! (3:35 minututik aurrera) [sarean bideoa]

Orain, berriz, gangar itxura ematen dieten raperoen arropak daramate! Lastima!

Lehen edo oraingo tixirtak izan, zabalak zein estuak, egunerokotasunean ez zaizkit gustatzen, zentzun bakoak ikusten ditut, eta gainera ez dira batere ondo gertatzen! Baina norberak ikusiko du; izan ere, bakoitzak bere zoroak bizi du. Eta nor naiz ni zentzugabekeria honi mugak jartzeko? Friki hauei frikismoaren maila gorenera iritsi direla konturarazteko? frikietan frikienak direlako horrela jantzita agertzen direnean, jakin ezazue…

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

### Eskerrik asko, Kurtzebarri BHI eta Kurtzebarri eskola!

**Ana B. Ruiz**
Antzuola

Orain dela ia 12 urte Kurtzebarrin lanean hasi nintzen eta orain beste lekura noa, baina joan baino lehen eskerrak eman nahi dizkiet Kurtzebarri BHI eta Kurtzebarri eskolako irakasle, ikasle, guraso, langile ez-irakasle, jantokiko langile eta garbitzaileei (baten bat ahazten bazait, ez da nahita izan) urte hauengatik.

Eskerrak eman nahi dizkiot nire lehengo zuzendari taldeari (Resu, Pili eta Mila), Kurtzebarri denok garela erakutsi zidatelako.

Eskerrak Aretxabaletako herri eta jendeari ondo hartu nautelako.

Angela, itsasontzi hau ondo eramaten duzu, jarraitu horrela!

Izaskun, aurten ere ordutegia oso ondo irtengo zaizu. Animo!

Xabi, zaindu ondo dirua, krisian gaude eta!

Mila, ez utzi irakasleri lan askorik ematen!

David, animo eta zorte on!

Imanol, ez kezkatu, jantokia ondo joango da eta!

Hau ez da agurra, gero arte baizik, eta nahi duzuenerako hemen naukazue.

### Maiatzaren 19an, geu ere bagoiaz!

**Luis Mari Belastegi, Carlos Olabarria, Juan Mari Ruiz de Egino, Pello Garitano, Iñaki Arregi, Antonio Herzog, Jose Antonio Etxeberria, Jesus Mari Ilarduia eta Gregorio Plazaola**
Bergara

Badira aste batzuk, Bergarako Herrira mugimendutik San Martin plaza betetzeko antolatzen ari diren ekimenera joateko gonbidapena jaso genuela.

Gonbidapen hartan honela zioen:

*"Euskal Herrian garai berriak bizi ditugun honetan, bakea eta konponbidea lortzeko urrats berriak eman behar dira. Hots, Euskal preso eta iheslari politikoek jasaten dituzten salbuespeneko egoerak amaitu eta Euskal Herriratzea. Urrats hauen alde zure aletxoa emateko prest bazaude, maiatzaren 19an San Martin plazan antolatzera goazen ekimenean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu".*

Ez genuen pentsatu beharrik izan.

Elefantea mugitu zedin lan egin, lagundu, genuen; Jose Luis etxeratzearen alde.

Audientzia Nazionala zer den eta zertarako darabilten ezagutarazteko hitzaldi jendetsua antolatu genuen UNEDen.

Urtarrilaren 7ko manifestazio kolosalera joateko deiarekin bat egin eta, zabaltzen lagundu genuen.

Hego Afrika eta Irlandako gatazka politikoak konponbidean nola jarri ziren azaltzen zuen *Euri lehorra* ikus-entzunezkoa eman genuen Zabalotegi aretoan.

Orain, nola lagundu ez gure herrian hainbeste urtetatik desiratzen dugun bakea eta konponbidea lortzeko hain beharrezkoa diren urrats berri hauen alde?

Geu be bagoiaz, bai; Udal Bandarekin batera, dantzari eta erraldoiekin batera, abeslariekin batera, margolariekin eta herritar guztiekin batera.

Bergarar guztiak animatu nahi ditugu maiatzaren 19an San Martin plaza betetzera.

### Eskerrik asko, Arrasateko Udaltzaingoari

**Izaskun Insausti**
Arrasate

Martitzen arratsaldean ezbeharra izan nuen automobilarekin.

Bada, eskerrak eman gura dizkiet Arrasateko Udaltzaingoari eta garabiaren gidariari, eskainitako laguntzarengatik eta erakutsi zuten profesionaltasunarengatik.

### Beste urte bat?

**Mikel Aranzabal**
Eibar

Bai ba, beste urte batez jasan beharko dugu Montanier frantziarra Realean.

Kontratua dauka, eta aurten bete egin duenez zuzendaritzak eskatu ziona –taldea lehenengo mailari eustea–, ba, zera, irabazi egin du kalera ez botatzea.

Hori bai, argi izan behar dugu hainbat momentutan kalean ikusten zuela bere burua.

Gogoratu besterik ez dago Betisen kontrako partidua, Sevillan, lehenengo itzulian. Partidu hura galdu edo berdinduta, kanpoan zegoen Montanier, baina Iñigo Martinezek luzapenean egindako gol gogoangarriak aulkian mantendu zuen frantziarra, Realak 2-3 irabazi zuen-eta.

Ordezko entrenatzaileak bidean zeuden.

Bestalde, Anoetara joaten garenok gogaitu egin gara aurten Realarekin; bueno, Realarekin ez, Montanierrekin baizik.

Aldaketak 70. minututik aurrera, partidua zelan zihoan irakurri ez, eta aldaketarik egin ez...

Gehienak ez gaude Montanierrekin, baina, tira, agian datorren urtean, aurtengo esperientziarekin, beste zerbait ikusiko dugu.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MUNDU MIRA



GOIENA TELEBISTA | MAGAZINA
ASTELEHENEAN, 20:15EAN ETA 22:15EAN | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIAK: MUNDUMIRA
EGUBAKOITZA, 22:40EAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
goiena

**Iban Sanchez** | Ascensores Hemen

# "24 orduko zerbitzua eskaintzen bakarrak gara"

**Iban Sanchez arrasatearrak urtebete darama Ascensoren Hemen enpresan lanean; Debagoienean igogailuen sektorean lehiakortasunik ez dagoenez, gainerako enpresek zerbitzu eskasa ematen dutela dio**

**Zenbat urte daramatzazu igogailuen esparruan lanean?**
Finken administratzaile moduan aritu naiz lanean zazpi urtez. Komunitate baten, gastu handiena dakarren zerbitzua igogailuarena da eta sektore horretan lan egitearen ondorioetako bat izan zen igogailuen mantenu zerbitzua eskaintzen duen Ascensores Hemen enpresa ezagutzea. Duela lau bat urte hasi nintzen Ascensores Hemen enpresarekin harremanetan; enpresa onena da Gasteiz aldean. Lanerako proposamena egin zidaten duela urtebete inguru eta onartu egin nuen. Enpresan sartu eta eskatu nuen lehen gauza izan zen zerbitzua Debagoienera ere zabaltzea.

**Zergatik erabaki zenuten, bada, gure bailarara ere heltzea?**
Arrasatearra naizenez, badakit igogailuen arloan Debagoienean ez dagoela lehiakortasunik, eta horregatik erabaki genuen hona ere zabaltzea.

**Zein da zure lana, zehazki esanda?**
Nire lana da komunitate, udal, enpresa eta igogailuak dituzten leku orotara gure zerbitzua kontratatzeko proposamena egitea. Proposamena egiteaz gain, eta gure ustez garrantzitsuena dena, gure bezeroak izango direnei ondo-ondo erakutsi gura diegu zein zerbitzu duten hartuta. Izan ere, askotan gertatzen da komunitate baten kontratua ez dela irakurtzen eta aspaldi sinatutako zerbitzu batekin funtzionatzen dutela oraindik; hau da, *letra txikia* irakurtzean ezustekoa hartzen dute. Ez dute jakiten, esaterako, halako kontratuak automatikoki berritzen direla. Baina adibide esanguratsuena da jendeak uste duela 24 orduko zerbitzua izaten duela, igogailu kanpoan pegatina bat dutelako. Pegatina hori engainua izaten da kasu gehienetan; eranskailu horretako mezuak esan gura duena da norbait barruan gelditu gero 24 orduko zerbitzua duzula... Nola ez ba! Hori legeak agintzen du, larrialdi bat da. Jendeak ez dakiena da konponketendako-eta ez duela 24 orduko zerbitzurik eskaintzen.

**Horren aurrean zein da Ascensores Hemen enpresak eskaintzen duen zerbitzua?**
Gu gara Debagoienean igogailuen sektorean benetako 24 orduko zerbitzua eskaintzen duen enpresa bakarra. Gainerako enpresak arratsaldeko seiak, zazpiak edo zortziak inguruan itxi eta ez dute zerbitzu hori eskaintzen. Zapatu, domeka edo jaiegunetan, bestalde, 13:00etatik aurrera ez dira erabilgarri egoten. Adibidez, etxeko giltzak igogailu azpiko zulora zapatu arratsalde edo domeka goiz baten jausten bazaizkizu, askok uste dute unean bertan etortzeko zerbitzua dutela kontratatuta. Bada, gero konturatzen dira ez dela horrela eta unean bertan etortzea gura badute aparte ordaindu behar izaten dute. Zerbitzu hori oso garestia da, merkeagoa izaten da sarrailagile bati deitu eta hark zabal dezala zure etxeko atea.

**24 orduko zerbitzu hori ematea benetan eskaintzea hain garrantzitsua da?**
Oinarrizko zerbitzua izan beharko lukeela uste dugu. Jendeak zein kontratu mota duen konturaraztea gura dugu. Izan ere, badira kasuak igogailuez arduratzen den enpresa berak edo talde bereko enpresak 24 orduko zerbitzua eskaintzen duela Gasteiz aldean, baina Debagoienean ez. Horrek esan gura du, gure ustez, enpresa horiek euren bezeroekiko oso arreta eskasa dutela. Gure ikuspuntutik, ez du inolako zentzurik.

**Igogailuek arazo handiak sortzen dituzte istripuei dagokienez?**
Ez da istripu askorik gertatzen. Argi izan behar duguna da mantenuak derrigorrezkoa izan behar dela, eta hori komunitateek argi daukate orokorrean. Era berean, esan beharra dago Debagoienean eskari handia dagoela, batik bat jendeak zein zerbitzu klase daukan jakin gura duelako. Kontuan izan behar da kontratuak aspaldikoak izaten direla eta komunitateetako administratzaile berriek normalean ez diotela askorik erreparatzen igogailuen kontratuei. Beraz, aurreko kontratuekin segitzea da joera nagusia.
Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren araudi baten arabera, igogailuekin lan egiten duten enpresendako derrigorrezkoa da euren bezeroei igogailuaren egoeraz informatzea. Izan ere, igogailua ez da enpresena, komunitatearena baizik. Gure sektoreko enpresak igogailuen mantenuaz bakarrik arduratzen gara. Baina hori Debagoienean ez da egiten, inondik inora; enpresek informatzen ez dutenez, komunitateek ez dakite euren igogailua nola dagoen, piezen egoera nolakoa den... Ez dakite ezertxo ere.

**Komunikazio arazoa da, beraz?**
Argi eta garbi. Galdera da: zergatik dago komunikazio arazoa? Bada, arestian esan dudan moduan, Debagoienean ez dagoelako lehiakortasunik sektorean. Hiru edo lau enpresa daude, baina ez diote elkarri trabarik jartzen. Hau da, beste sektore askotan egon daitekeen lehiakortasunik ez dago igogailuen arloan, ezta gutxiago ere.

**Zein da gaur egun komunitateek duten arazo larriena? Edo, bestela esanda, zein da komunitateon eskaera nagusia?**
Komunitate askok zer gertatzen den jakiten dutenean, ezin dute beste enpresa batekin sinatu bost edo hamar urteko kontratua dualako betetzeke oraindik. Eta kontratua amaitzear denean, beste enpresa horiek beste hainbat urtez luzatzen saiatzen dira. Hala, helburu hori lortzeko legezkoak ez diren bideak erabiltzen dituzte hainbat kasutan.
Hau da, komunitateko presidentearekin edo beste edozein bizilagunekin elkartu eta beherapen txiki bat eskainiz –10 edo 15 euroko deskontuak izaten dira, adibidez– kontratu berria sinatzeko eskatzen diote.


**Iban Sanchez.**

**Etikoak ez dira izango, baina modu horiek legez kanpokoak dira?**
Bai. Komunitateko presidenteak ezin du halako kontratu bat sinatu aurretik bizilagunekin elkartu eta gehiengoaren babesa izan barik. Hala, gertatzen dena da tranpa antzeko horretan jausten direla asko eta asko, jakin barik beste bost urterako kontratua sinatzen dabiltzala. Hori da gainerako enpresa horiek eragiten duten komunikazio faltaren ondorio garbiena.

**"Komunitateei erakutsi gura diegu zein zerbitzu duten"**

**"Aurreko kontratuekin segitzea da joera nagusia"**

**"Pegatina hori engainua da, ez da 24 orduko zerbitzua"**

**"Komunikazio arazoa dago ez dagoelako lehiakortasunik"**

## DUELA 10 URTE

2002-05-11

### Emakume bat labankadaz hil zuten

Aitor Mendikute elgetarrak lau labankadaz hil zuen herriko estankoko Arrate Elkoro. Sabelean eta bizkarraldean eman zizkion labankadak, eta gero, ihes egin zuen. Lekukoek esandakoaren arabera, labankadak jaso ondoren, laguntza eske irten zen Arrate Elkoro kalera. Herritar batzuen laguntza jaso eta anbulantziari deitu zioten. Mendaroko ospitalera eraman zuten, 11:30ean, eta han zendu zen.



Ertzaintzak estankoa prezintatu zuen. | GOIENA

2002-05-11

### Gurean lapurtzeagatik atxilotuta

Debarroko eta Urolako hainbat herritan lapurretan egitea leporatuta, 20, 22 eta 24 urteko hiru lagun atxilotu zituen Ertzaintzak Zarautzen. Besteak beste, Antzuolako Harizki dendan, Arrasateko Basilio tabernan, Bergarako Konde Panaderokua okindegian eta Elgetako Ana Mari liburu-dendan eta Ostatu jatetxean egin zituzten lapurreta saiakerak hiru gazteok; eta baita Eibarren eta Zumarragan ere.

## DUELA 5 URTE

2007-05-11

### Instalazio berriak

Arrasateko Gesalibar auzoan dagoen San Juan de Dios psikiatrikoan instalazio berriak inauguratu zituzten. Bi eraikin birmoldatu zituzten: San Benito Menni, iraupen luzeko 60 gaixorendako; eta Sagrado Corazon, 112 oherekin. Inaugurazio ekitaldian Uriarte gotzaina eta Lakuntza alkatea egon ziren.

## HERRITARRAK

ELGETA

**Lorea Larrañaga** Elgetako parrokiako organista da, eta musika eskolak ematen ditu; eman eta jaso: Aitor Olea organistarekin dihardu haize-instrumentu ezezagunaren trikimailuak ezagutzen | MIREIA BIKUÑA

# "Elizako organoaren doinuarekin maitemindu egin nintzen, ederra da"



Lorea Larrañaga, Elgetako parrokiako organoa jotzen | MIREIA BIKUÑA

Lorea Larrañaga eibartarra da jaiotzez, baina Elgetan bizi da azken 10 urteetan. Hango abesbatzako kide da, baina gehienok ezagutzen dute elizako organoa jotzen duelako. Musika maite duela esan digu. Musika eskolak eman eta hartu egiten ditu Bergarako musika eskolan. Elgetako elizan egin dugu hitzordua harekin.

**Nolatan heldu zinen Elgetara?**
Eibarren bizi ginen senarra eta biok, eta aldatzea erabaki genuen. Senarraren gurasoak elgetarrak dira eta hark familia zuen hemen. Orain dela 10 urte etorri ginen, eta oso gustura gaude.

**Aldaketa itzela izan da: Eibartik Elgetara.**
Hiri batetik herri txiki batera aldatu ginen. Herri kaotiko batetik lasaiago batera etorri ginen. Dena den, horixe gura genuen guk: lasaitasuna, isiltasuna, jendearekin egotea...

Elgetara aldatzea erabaki genuenean, Eibarko lagunek esaten ziguten zoratuta geundela.

**Zer moduz integratu zineten Elgetan?**
Oso ondo. Senarrak familia dauka hemen. Gaztetan, askotan etortzen zen Elgetara lehengusuekin egotera, eta lagunak ere bazituen. Hori horrela, ondo integratu ginen.

Dena den, familiarik izan ez bagenu, ondo integratuko ginela uste dut. Elgetarrak eskuzabalak dira eta ongietorria emateko gertu daude beti.

**Elgetako parrokiako organista zara.**
Bai. Domeketako elizkizunetan eta hiletetan jotzen dut organoa.

Elgetara heldu nintzenean herriko abesbatzan sartu nintzen. Hango zuzendari Jose Antonio Retolatzak esan zidan organo bat zegoela parrokian, baina ez zuela inork jotzen. Orduan bazegoen organista bat Elgetan, Joaquin Gastezi, baina, elizkizunetan parte hartzen zuenez, ezin zuen organorik jo.

**"Askotariko musika jo daiteke elizako organoarekin, pieza asko"**

**"Elgetako organoa oso dotorea da, eta teklatu bakarra dauka"**

Musika irakaslea naiz, eta pianoa jotzen dut. Hori horrela, animatu egin nintzen.

**Eta zer gertatu zen?**
Ez nuen elizako organoa ezagutzen, baina musika instrumentu horrek sortzen duen doinuarekin maitemindu egin nintzen. Bete egiten nau doinu horrek. Ikusgarria da. Probatu, eta aurrera jarraitzea erabaki nuen.

**Pianoa jotzen jakiteak organoarekin hasteko lagundu zizun?**
Bai, zera! [Barre]. Ez daukate zerikusirik. Duten gauza berdin bakarra teklatua da. Pianoa hari-instrumentua da eta organoa, berriz, haize-instrumentua. Organoak pedalak eta hainbat erregistro ditu. Biek sortzen duten doinua oso bestelakoa da.

**Nola ikasi zenuen?**
Lehenengo urtean nire kabuz ibili nintzen, senarraren laguntzarekin. Organoa teklatuarekin bakarrik jo daiteke. Horrela hasi nintzen. Ondoren, erregistroak eta pedalak erabiltzen hasi nintzen. Lortu gura duzun doinuaren arabera aukeratzen dira erregistroak eta teklatua.

Ondoren, Bergarako Musika Eskolan hasi nintzen Aitor Olearekin eskolak hartzen. Badira hiru bat urte, baina oraindik asko daukat ikasteko.

**Nolakoa da Elgetako organoa?**
Herri txiki batendako, oso dotorea. Teklatu bakarra dauka, baina doinu ederra egiten du. Hori bai, ez dauka zerikusirik Bergarako San Pedro elizan dagoenarekin. Hark hiru teklatu ditu.

**Dena den, eliza gehienetan organoa egon arren, ez da oso ezaguna.**
Hala da. Nik uste dut gazteek organoa elizarekin lotzen dutela zuzenean. Oker daude. Organoak elizan daude eta elizkizunetan erabiltzen dira, baina beste modu askotara ere bai. Moldaketa eginez gero, edozein pieza jo daiteke organoarekin, ez bakarrik XVIII. eta XIX. mendeetakoak.

**Organista, musika eskolako irakasle, abesbatzako kide... pianoa eta gitarra jotzen dituzu... Musika zainetan daramazu.**
Bai. Txikitatik hasi nintzen musika ezagutzen eta bide beretik segitu dut.

**Abesbatzan segitzen duzu?**
Bai. Orain, gainera, Oskorrirekin egingo dugun emanaldia entseatzen dihardugu. Oskorrik kontzertua egingo du Espaloian hilaren 18an, eta pieza bat abestuko dugu eurekin.

**Musikaz gain, beste zaletasunik baduzu?**
Ez daukat denbora luzerik, baina ahal dudan guztia irakurtzen pasatzen dut.

## NIRE HERRIAN

**:) EZAGUNAK GARA GUZTIOK**

Elgeta herri txikia da, eta denok elkar ezagutzen dugu. Familia handi bat bezala gara. Gainera, hemengo gazteak herrian geratu dira. Ezkondu eta umeak izan dituzte Elgetan, eta horrek asko aberasten du herriaren bizitza. Ume asko jaio dira azkenaldian, eta horrek herriaren etorkizuna bermatzen digu.

**:( GAUZA TXAR GUTXI**

Orain dela hilabete, garraio publiko eskasa kritikatuko nuke, baina autobus gehiago jarri dizkigute. Orain, erabili egin beharko dugu, manten dezaten.

Gainera, Elgetan bizi izateak esan nahi du egunero autoa erabili behar dugula, horrek dakarren arriskuarekin. Elurra egiten duenean, berehala ixten dituzte errepideak.

# HERRIAK

OÑATI

# Julian Zelaia omendu gura dute bilobek zapatuan


Julian Zelaia zena organoa jotzen. | FERNANDO ZELAIA

## Bilobek musika, koruak abestu eta Oñatzek dantzatu egingo dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Familiako bazkari batean sortu zitzaigun ideia. Konturatu ginen senide asko ginela musikariak eta gure aitarengandik, aitajaunarengandik, jaso genuela zaletasun hori. Eta erabaki genuen omenaldia egitea. Bilobek aitajaunari egingo dioten omenaldia izango da", dio Juan Carlos Zelaiak, Julian Zelaia zenaren semeak.

**Organo jotzailea**

Oñatiko organo jotzailea izan zen 30 urtez Julian Zelaia. Mezak, hiletak, bederatziurrenak… parrokiako elizkizun guztietan jotzen zuen organoa, eta, horrez gain, 50eko hamarkadan batez ere, Eskola-Cantorum abesbatza zuzendu zuen. Musikari lotuta zegoen erabat bere bizitza. Oñatin jaio zen 1916. urtean eta 70ean hil, hiruzpalau hilabete gaixorik egon ostean; 53 urte besterik ez zuen. Gaztetan Oñatiko agustindarretan egin zituen ikasketak, eta, musika zaletasunak bultzatuta, piano karrera egin zuen Burgosen, Julian Sagasta ikaskide zuela. Oñatira itzulita, Asuncion Mendizabalekin ezkondu eta bederatzi seme-alaba izan zituen.

Artxibatzaile moduan egin zuen lan Julian Zelaiak Unibertsitate Zaharreko Protokolo artxibategian, eta musikaren historiari buruz gehiago jakiteko lagundu zion lanbide horrek. "Artxiboan dokumentu asko topatu zituen euskal musikaren historiari lotuta", kontatu du Fernando Zelaia semeak. Esaterako, Julian Zelaiak transkribatu zuen 1677an idatzitako Arrasateko organoari buruzko kontratua, gerora Aita Madinak publikatuko zuena. Harrezkero, Aita Madinak hainbat eskari egin zizkion musikaren historiaren inguruan eta zoriondu ere egin zuen Oñatiko musikari buruz idazteagatik.


Julian Zelaia, kantuan, herritar askorekin batera. | FERNANDO ZELAIA

**Ruper eta Chopin**

Julian Zelaiaren omenezko ekitaldia bihar egingo dute, 19:00etan, Santa Anan. Bete egingo da, gonbidapenak banatu ditu-eta familiak. Pianoa, gitarra, biolina eta klarinetea joko dute, besteak beste, bilobek, eta Juan Karlos semeak baita organoa ere. "Aitak erakutsita ikasi nuen nik, baina ez dut hark beste jo. Nire semeak ere badaki jotzen, baina biolina aukeratu du hark". Batera nahiz bakarka joko dute bilobek, eta joko dituzten piezen artean Chopin, Massenet eta Paganiniren obrak izango dira, eta baita Paulo Sarasate euskaldunaren eta Ruper Ordorika herritarraren abestiak ere. Julian Zelaiaren senide musikariez gain, parrokiako koruak eta Oñatz dantza taldeak ere hartuko dute parte omenaldian. "Corpus jaiak gertutik bizi izan zituen gure aitak, urtero irteten den prozesioan, eta hango dantzak egingo ditu Oñatzek. Parrokiako organo jotzailea zen, eta hango koruak abestu egingo du", zehaztu du Fernando Zelaiak.


Julian Zelaiaren seme, biloba, lagun eta udal ordezkariak Santa Anan. | MAIDER ARREGI

### Musikarekin eta herriko kulturarekin lotura

"Guk ez genuen ezagutu aitajauna, baina beti entzun dugu Oñatiko organo jotzailea zela eta oso lotura handia zuela musikarekin eta herriko kultura inguruko talde eta pertsonekin. Geu ere musikazaleak gara eta pentsatu genuen politena izango zela omenaldian parte hartzea", kontatu du Kepa Zelaiak. Kepaz gain, Julenek, Arantzazuk, Itziarrek, Nagorek eta Jonek ere hartuko dute parte biharko omenaldian. Udalaren, Foru Aldundiaren eta Kutxaren laguntzarekin antolatu dute.

IparProject
www.iparproject.com
info@iparproject.com
Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak


BERGARA
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44
AZPEITIA
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16

# San Josepe kalea berritzeko bi milioi eta erdi euro beharko dira

## Proiektua idatzi du LKSk eta datorren astean ikusi ahalko da, udaletxean

**UBANE MADERA** | ARRASATE

San Josepe kalea goitik behera urbanizatu gura du Arrasateko Udalak. LKS ingeniaritza enpresak idatzitako proiektuari hasierako onespena eman diote, eta, datorren astetik hasita, 20 egunotan interesa duen edozeinen eskura ipiniko dute, Obren Sailean.

Hala ere, obra horiek momentuz ez dute datarik. 2.515.000 euroko aurrekontua dute, eta Udalak ez du aurreikusten "epe motz-ertainean gauzatu ahal izatea", egoera ekonomiko kaskarraren ondorioz.

**Biribilgunea, urbanoarendako**

Kontuak kontu, Udalaren helburua da, ahal bezain laster, inguru hura guztia berritzea, Arrasaten San Josepe-San Andres kale inguruak dira-eta berrikuntza obrarik izan ez duten bakarrak. Horren ondorioz, kalea herriarekiko "aparte moduan" sentitzen da, eta, adibidez, ume karroarekin-edo zailtasunak izanez gero, kosta egiten da bertara iristea.

Hori horrela, zera egin gura dute: espaloiak egin edo zabaldu, ur eta argi sareak lurperatu (Telefonicako hariak, argiteria publikoarenak airetik doaz), eta irisgarritasuna bermatu.

Xehetasunetan sartuta, espaloiari dagokionez, aldapatik beherako zatian eraiki egingo dute. Gaur egun ez dago, eta Udalak gura duena da Etxaluzeren atzetik San Josepe kaleraino espaloitik jarraitu ahal izatea.



San Josepe kaleko etxeak. | U.M.

Irisgarritasunari dagokionez, berriz, autobus urbanoa San Joseperaino iritsi ahal izateko aukera eman gura du Udalak.

Horretarako, biribilgunea eraikiko dute, auzora doan aldapa bukatzen den tokian bertan. "Gaur egun autobusa ezin da hara joan, ezin dezakeelako bueltarik eman. Ibilgailuek etxeen aurreko zabalgunean ematen dute buelta, baina autobusa ez da kabitzen. Biribilguneari esker, lehenago buelta eman ahal izango luke", azaldu dute Obra Sailetik.

**San Josepe-San Andres lotura**

Horrez gain, San Josepeko obrekin batera, azpiko aldetik pasatzen den San Andres kalean obra batzuk egiteko ere aprobetxatuko luke du Udalak. Besteak beste, San Josepe eta San Andres lotzeko oinezkoendako arrapala eraikitzeko asmoa dute, eta San Andres kaleko zoladura, azpiegiturak eta harri lubetak berritu egin gura dituzte.

### Zirkulazio aldaketak San Isidro zubia bota ahal izateko

Axeriko zubia (San Isidro) bota egin behar du Jaurlaritzak. Egindako ikerketaren arabera, ur handiak etorriz gero, traba larregi pilatzen da zubipean eta uholde arriskua eragiten du. Bada, zubia bota ahal izateko, Musakolako sarrera itxi egin beharko dute ibilgailuendako. Industrialdetik, Osinaldetik bideratuko dute zirkulazioa. Udaletik jakinarazitakoaren arabera, hil amaieran hasiko dituzte obrak. Edozelan ere, "ez dute berehala itxiko errepidea", obrak hasi eta gerora baizik.



San Isidro zubia, behetik ikusita. | U.M.

## OHARRAK

**BIHAR, OLARTE ITXITA**

*Herrira* ekimenak antolatutako krosa dela-eta, bihar, zapatua, itxita egongo da Olarte kalea, 09:00etatik 12:30ak arte. Eta, hain zuzen ere, 07:30etik 09:00etara egongo da zabalik kale hori zamalanak egiteko.

**ERRETIRATUEI OMENALDIA**

Gaur, egubakoitza, da azkeneko eguna SUDCek antolatzen duen erretiratuen omenaldiko bazkarirako txartelak eskuratzeko. 18:00etatik 19:00etara pasa daiteke bulegotik, bazkide txartela aurkeztuta.

**ZABORREN KUDEAKETA**

Carlos Ormazabal Ingurumen diputatu ohiak zaborren kudeaketaren gaineko hitzaldia egingo du maiatzaren 23an, eguaztena, 19:00etan, Kulturaten.

## Euskal presoen giza eskubideak errespetarazteko aldarria bihar plazan

**U.M.** | ARRASATE

Biharko, zapatua, Herriko Plaza zazpi orduz betetzeko ekitaldiak antolatu ditu Arrasateko *Herrira* mugimenduak, Euskal Herriko mugimendu orokorrarekin bat eginda. Helburua da aldarrikatzea gatazka konpontzeko "ezinbestekoa" dela "preso eta iheslarien egoera ere konpontzea".

11:00etan umeendako jolas eta tailerrekin hasiko dute eguna; 12:00etan herri krosarekin segituko dute; 13:00etarako agerraldia iragarri dute eta 14:30erako, herri bazkaria.

Arratsaldekoari dagokionez, 16:00etatik aurrera herriko kultura talde, musikari eta dantzarien saioak izango dira.

## NIRE USTEZ



AITOR IZAGIRRE

### 'Spain is different'

M15 mugimenduaren urtebetetzeak protagonismoa kendu die komunikabideetan Urdangarin eta erregearen familiaren abentura eta desbenturei. Egoera ekonomiko eta sozialak ez du onera egin azken urtean, baina mugimendua erabat hilda egon da azken hilabeteotan.

Bitartean, Espainiako Gobernuak Bankia bereganatzeko lehen pausoak eman ditu, eta oraingoan ere, badirudi ez dela erantzule zuzenik egongo; guztion zergak erabiliko dituzte gutxi batzuen arduragabekeria ordaintzeko. Nora begira egon dira agintariak orain arte?

Prentsaurrekoan, Ekonomiako ministroak hainbat neurri hartuko dituela adierazi du asteon: udalen eta autonomia-erkidegoen kontuetan muturra sartuko du, egoera ekonomiko lazgarrian dauden erkidego eta udaletan, behintzat.

Ba omen dago Guadalajarako probintzian 3.500 biztanleko herri bat 7.058 urte beharko dituena bere zorrak itzultzeko; non daude, bada, astakeria horren erantzuleak? Horrelako zenbat kasu daude? Ez ditu inork ikuskatu herri horietako kontuak? Europako beste herrialdeetan gertatzen al da horrelakorik?

*Spain is different* esaten zuen lelo ezagun batek, baina aspaldian badirudi Spain erabat lelotu dela; bitartean, Guadalajarako herri batean lelokeria ordaintzen jarraituko dute, gutxienez, 7.000 urtez.

**"Aspaldian badirudi Spain erabat lelotu egin dela"**

**Matrikula epea zabalik**

**Ekainaren 15era arte.**

**Ordutegia: 10:00etatik 12:00etara**
**16:00-20:00etara**

**Zarugalde 2, Monterron jauregia. 943 77 05 40**




**musikarekin, hasi, hezi eta bizi**

# Musakolako jaiak: elkarri arrimatzeko plaza bikaina sanjuanen aurretik

- Lehengo bikote asko Musakolan sortutakoak dira
- Auzoetako erromerietan errazagoa zen arrimatzea


Antzinako erromeria, asto eta guzti, Musakolako jaietan. | JAI BATZORDEA

**UBANE MADERA** | ARRASATE

"San Andresen begiz jo, Musakolan arrimatzen ahalegindu eta sanjuanetan errematatu. Zenbat senar-emazte irten diren Musakolako jaietatik...".

Gazte batek hala kontatu, eta guk hala egiaztatu dugu Musakolako jaiak pasa berri diren honetan.

### Oraingo adibide bat

Jesus Mari Apraitz-Ane Miren Gallastegi bikotea "ohitura" horren emaitza da, orain dela 39 urteko San Isidrotan sortutakoa. Apraitzek berak kontatu digu zer dela -eta izaten zuten horrenbesteko arrakasta Musakolako jaiek: "Orduan kalean jende asko edadekoa izaten zen, gazteok ez ginen horrenbeste ibiltzen dantzan han; izan ere, ez geneukan baimenik 22:00etatik aurrera egoteko. Baimen gehienak izaten ziren auzoko edo kaleetako jaietan, Madalenan-eta; halakoetan, hamabiak arteko baimena izaten genuen. Eta haiek aprobetxatzen genituen. Aurretik neska bat akaso begiz jota, hona etorri, erromerian dantzan hasi eta halakoak erabiltzen ziren *estokea* botatzeko. Guk ez geneukan ohiturarik kaletik San Andresera joateko. Izaten zen hemen, edo sanjuanetan, edo Makatzenan...".

### "Prozesuaren" nondik norakoa

Zelan jarduten zuten ere kontatu du Musakolako auzo-alkate izandakoak: "Begia bota eta erromerian arrimatu egiten ginen, eta hurrengo geratzen ginen zinemara joateko, buelta bat egiteko... Orduan hondartzarik ez zegoen... bueno bai, baina urrun zegoen, eta gure irteerak izaten ziren San Isidro ostean uda zetorrela-eta, Usakora, Lamiategira, Txaetara, Epelera eta halako lekuetara. Txaetan eta Epelen presak zeuden, erreka garbi zegoen eta joaten ginen bainatzera. Izan ere, neskek ez zuten besterik. Mutilek bageneukan Zerrajerako igerilekua, baina mutilendako bakarrik zen hura, emakumeek debekatuta zuten, eta emakumeak joaten ziren beste leku horietara. Irteera batzuen ostean, komentatzen zenion neskari eta baietza esaten bazuen... ba aurrera!".

> ESANAK
>
> **"Erromerietan arrimatzen ginen, begiz jo eta gero"**
>
> JESUS MARI APRAITZ | MUSAKOLARRA

Hain zuzen ere, elkarri arrimatzeko orduan, Musakolako jaien "arrakastan" urteko sasoiak zeresan handia zuela uste du Apraitzek: " Udaberria zen, uda ate joka zegoen...Nik uste dut odola beroago zegoela".

### Odola bero, orain ere bai

Baina gauza bera gertatzen da gaur egun? Hau da, Musakolako gaur egungo gazteek segitzen dute Musakolako jaiak aprobetxatzen bikotekidea lortzeko? Bada, ezezkoa jaso dugu oraingo honetan: "Gaur egun ez da ligatzen, ez Musakolan, eta ezta bestela ere", dio Beñatek.

Enekok, berriz, aitortzen du Zigorrolako jaien berezitasuna: "Musakolako jaiak dira bereziak. Uda denboraldiko lehenengo jaiak direlako, akaso, Mondragoen Aste Santuan parrandarik ez dago... eta denboraldiaren hasiera da hau. Esan daiteke neguan erreprimitu diren grinak orain ateratzeko aprobetxatzen dela. Hala ere, aldatu egin da ligatzeko kontua. Izan ere, orain, gura izanez gero, parranda aste bukaeraro dago, eta lehen ez zen egoten halakoetarako aukerarik".


iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR



Duela hamabost egun Gijonen ateratako talde argazkia, taldekide eta Arrasateko zaleekin. | ARRASATE ESKUBALOI TALDEA

# Alacantera, Elxeko tranpan ez erortzera

Ford Mugarrik kategoriaz igotzeko azken aukera izango du asteburuan Alacanten; gauerdian abiatuko dira, eta bihar izango dute lehen kanporaketa

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Asteburu gogorra izan behar du Ford Mugarri Arrasate eskubaloi taldeko ordezkariendako. Duela hamabost egun Gijongo igoera fasean esku-eskura izan zuten mailaz igotzea, baina finalean, etxean jokatzen zuen Covadongako taldearen kontra galdu zuten, eta, bigarren sailkatuta, beste aukera bat izango dute asteburuan, azkena, Elxen (Alacant). Eta esfortzua diogunean ez da fisikoa bakarrik, ekonomikoki ere beste bidaia bati aurre egin behar izango dio -eta klubak.

### Gijongo esperientziaz

Ane Herreroren mutilek Gijongo fasean ikasitakoak fresko eramango dituzte Alacant aldera, eta ondo dakite, oraingoan ere, etxean jokatzen duenak aparteko abantaila izango duela. Hasteko, zozketa bidez egiten bada ere, Elxek atseden hartu ahal izango du egubakoitzeko partidutik domekara bitartean, eta Valladolideko eta Arrasateko taldeek ez dute halako *zorterik* izan: "Ez daukat oso garbi zelan egiten duten zozketa hori", diosku, barrez, Arrasateko taldeko ordezkari Andoni Arandok. "Kontua da azken urteotan etxean jokatzen duenari beti tokatzen zaiola lehen partidua jokatzea. Baina bueno, ez da sorpresa, badakigu etxean jokatzen duenak abantaila izango duela, ez dago besterik". Ane Herrero entrenatzailea ere ez du horrek sorpresaz harrapatuko: "Hori jakinda, euren jokoan ez sartzen ahaleginduko gara".

**Valladoliden kontra jokatuko dute bihar eta Elxen kontra domekan**

Valladolid eta Elx taldeek gaur, egubakoitza, jokatuko dute lehenengo kanporaketa: "Ederra izango litzateke Valladolidek etxeko taldea menperatuko balu, horrek mesede egingo liguke; alegia, etxeko taldea jokoz kanpo uztea". Hala, Valladolid eta Ford Mugarri Arrasate egoera berean egongo lirateke. Arrasatekoek gauerdian ekingo diote bidaia luzeari, 800 kilometro egingo dituzte autobusez, eta, bihar goizean atseden hartu ostean, 19:00etan jokatuko dute Valladoliden kontra.

Partidu horren ostean atseden hartzera, eta domekako hitzordurako ahalik eta ondoen errekuperatzera, bigarren *finala* 11:00etan jokatuko dute-eta, aurreratu dugun moduan, Elxen kontra.

LETICIA DOMENECH PEREZ DOKTOREA
Psikologia kliniko hezitzailea
Palacio Mendia zentro medikoa
Erdiko kalea 22 • Arrasate
Tel.: 943 79 72 16
Gurasoentzako programa hezitzaileak • Ikasketen planifikazioa
Hiperaktibitatea / Arreta defizita • Jarrera aldakuntza
Dislexia • Ez-hitzezko ikasketen gorabeherak
Autismoa • Asperger sindromea • Estutasuna - agresibitatea
Haurren beldurrak • Nerabezaroa eta depresioa
Eskola-jazarpena...

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

# Herri Artekoan Arrasatek abantailari eutsi nahi dio

**X.U.** | ARRASATE

Duela bost urte lortutako txapela berriro jantzi nahi dute Arrasateko pilotariek. Bide luzea dute aurretik, baina domekan gainditu beharko dute lehenengo koska, Amezketaren kontra, Uarkapen (10:30). Etxeko pilotariek zale arrasatearren bultzada eskertuko dute, Amezketako pilotarien kontrako lehia pare-parean egongo delako. Domekakoak itzuliko partiduak izango dira, joanekoan Mauri Zubillagaren mutilek lan ona egin zutelako (1-2). Hala, abantaila txikia dute domekarako.

Amezketako partiduan Josu Egia eta Joseba Garate kadeteek 19-22 irabazi zuten, eta gazte mailan Markel Prietok eta Oier Arregik 22-6 galdu zuten. Hala, kanporaketan abantaila senior mailakoen partiduan lortu zuten, Aritz Zuazuak eta Ibai Bolinagak partidu oso ona egindа 13-22 irabazi zutelako.

### Kadete mailakoaz argi

Hala, emaitza horiekin badirudi domeka goizeko lehenengo partidua erabakigarria izan daitekeela, izan ere, hor daude indarrak parekatuta. Seniorrek Amezketan erakutsitako maila berdinean jokatzen badute irabazteko moduko partidua izango da, eta gazte mailan Amezketako Altuna oso ona da –Asperekin entrenatzen du.



Herri Arteko Txapelketan, Arrasateko taldea. | ARRASATE PILOTA TALDEA

# Besaideko beteranoen XI. irteera ekainaren 2an

**X.U.** | ARRASATE

Bizkai aldean egingo dute aurten beteranoek urteroko hitzordua. Izan ere, Urkiolatik Dimara arteko mendi zeharkaldia egingo dute oinez, besteak beste, Baltzolako kobetatik pasata. Guztira, 16 kilometroko ibilbidea da, eta antolatzaileek aurreikusi dute lauzpabost ordu beharko dituztela mendi buelta egiteko.

Mendi itzulia egin ostean Zornotzako Ibarra sagardotegian berreskuratuko dituzte indarrak. Hala, ekainaren 2an 07:00etan irtengo dira Garibaitik eta 19:30 aldera itzuliko dira Arrasatera. Prezioei dagokienean bazkide eta federatuek 46 euro ordainduko dituzte, bazkide direnek baina federatuta ez daudenek 48 euro eta gainontzekoek 50 euro (3035 0202 76 2021021758 kontu zenbakian). Izena emateko azken eguna maiatzaren 28a da, eta, antolatzaileek aditzera eman dutenez, izena eman nahi duenak jo dezala urteroko arduradunengana, eta ez Besaideko egoitzara.

# Mondrak esperantzekin irten nahi du Aretxabaletatik

**X.U.** | ARRASATE

Mondrari asko zaildu zaizkio gauzak. Tolosaren kontrako porrotak (0-4) azken asteotako bultzada eten du, Elgoibar eta Hondarribia gero eta larriago zebiltzalako. Lehen ere ez zen erraza, baina orain matematikek gordinago erakusten dute zein den errealitatea: sei puntu jokoan, eta Hondarribia bostera.

Jokalariei inork ezin izango die aurpegiratu azkenera arte borrokatu ez dutenik, eta, behin honaino iritsita, ez dute azken partiduetan amorerik emateko asmorik. Hala, domekan Ibarran jokatuko duten derbia ezinbestean irabazi beharko dute, eta ikusi egin beharko da Hondarribiak zer egiten duen Real Unionen zelaian. Izan ere, azken jardunaldiari begira zuri-moreek esperantzekin irten nahi dute Aretxabaletakoen zelaitik.

Gainontzeko ordezkariei dagokienez, Aloñak Oiartzunen kontra jokatuko du Azkoagainen eta Berioren zelaira joango da Bergara.

# 'Paradisuko atean' komedia taularatuko du Arrasateko Doke antzerki taldeak ekainean

Ekainaren 1ean estreinatuko dute Amaia antzokian, emanaldiak inguruko herrietara zabaldu aurretik

**AITZOL BARANDIARAN** | ARRASATE

Tximeletak sabelean dituztela. Horrela ari dira *Paradisuko atean* lanari azken zorroztuak ematen Arrasateko Doke antzerki taldeko kideak. Ekainaren 1ean estreinatuko dute Arrasateko Amaia antzokian, gero geldialdi bat egin, eta herririk herriko birari ekin aurretik.

Itziar Rekalde gasteiztarraren zuzendaritzapean, dozena bat lagun arituko dira aktore lanetan Doke antzerki taldearen laugarren antzezlan horretan.



Doke antzerki taldeko kideak *Paradisuko atean* lanaren entseguan. | JOKIN BEREZIARTUA

**Heriotzari barre eginez**

Josemari Velez de Mendizabal idazle aramaioarrak idatzi du *Paradisuko atean* antzezlana. Komedia hori beilatoki batean kokatzen da, baina ikusleei barre eragingo diete hildakoari azken agurra ematera doazenenen artean sortuko diren egoerek.

Aurrez taularatutakoen aldean, Velez de Mendizabalen esanetan, "berezia da obra hau, gai unibertsal bat duelako ardatz. Hegoak jarri behar dizkiogu umoreari, eta heriotzari, errespetuz bada ere, barre egiten ikasi".

**Estreinaldia etxean**

Ekainaren 1ean eta 2an eskainiko dituzte lehen emanaldiak Arrasateko Amaia Antzokian. Atsedenaldi bat egin, beste herrietan emango dituzte ekitaldiak.

Estreinaldia egin aurretik, dagoeneko zortzi emanaldi lotu dituzte, Araban batez ere. Eskarmentua kontuan hartuta, lana gogor egin beharko dute emanaldi kopuruari erantzuteko.

**Talde eraberritua**

Azken boladan, aurpegia aldatu eta gaztetu du Doke-k. 2004an lanean hasi zirenetik, 25 pertsona baino gehiago pasatu dira taula gainetik.

Orain arte lanean aritu diren partaide batzuk atsedenaldi bat hatzea erabaki dute, eta ondorioz, lagun berriak sartu dira. Velez de Mendizabalek dioenez, "Dokek ateak zabalik ditu, eta odol berri hori da antzerki taldeari arnasa ematen diona".

Azken 8 urteotan, proiektu xumea izatetik, inguruko herrietan izena hartu duen egitasmo izatera igaro da. Taldean parte hartzeko eskaerak urtez urte hazi egin dira. Arrasatearrentzat sortu zen antzerki talde hau, herri mailako mugak hausten ari da nortasuna galdu gabe.

**DATUA**

**4.**

ANTZEZLANA

*Paradisuko atean* Doke antzerki taldeak egindako laugarren antzerki obra da.

**ESANAK**

**"Edozeri egin behar zaio barre; zergatik ez heriotzari ere?"**

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
GIDOIAREN EGILEA

## Arrasateko Musikalen matrikulatzeko epea dagoeneko zabalik

Ikasturteari ekin aurretik, ireki berri dute Arrasateko Musika Eskolan izena emateko epea. Adinaren aitzakiarik gabe, 5 urtetik gorako haurrek eta helduek ekainaren 15era arte matrikulatzeko aukera izango dute.

Aurten ere, instrumentuak jotzen ikasteaz gainera, dantza klasiko eta garaikideak egiteko aukera izango dute izena ematen dutenek.

Ikasturte berrirako finkatu dituzte ordutegiak: goiz eta arratsaldez emango dituzte eskolak astelehenetan eta eguenetan. Egubakoitzetan, berriz, arratsaldez.

## Arruabarrenaren erakusketa ikusgai Harresi aretoan

Juan Manuel Arruabarrenaren lanak datorren domekara arte izango dira ikusgai Harresi aretoan. Artista soraluzetarrak aurreko egubakoitzean aurkeztu zituen margolanak jendaurrean, eta astebetean herritar askok izan dute haren lanez gozatzeko aukera.

Arruabarrenaren erakusketa bisitatzeko, gaur 18:00etatik 20:00etara zabalik egongo da Harresi aretoa. Bihar eta etzi, berriz, goizean (12:00-14:00) zabalduko dituzte ateak, eta baita arratsaldean ere (18:00-20:00). Datorren astean Soraluzen jarriko du Arruabarrenak erakusketa.



BONBERENEA.COM

## Eguenean Napoka Band gaztetxean

Kooltur Ekintza taldeak abian jarritako ekimena azken txanpara gerturatzen ari da. Eguen honetan, Napoka Band talde eraberritua igoko da taula gainera *Lehertarazi edifizioak* diskoa aurkeztera. Ikasturteari amaiera emateko, maiatzaren 31n Japoniako Who The Bitch taldeak eskainiko du azken kontzertua.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**SAN JOSEPE KALEA BERRIRO URBANIZATZEKO PROIEKTUA HASIERA BATEN ONARTZEA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bileran, besteak beste, akordio hau hartu zuen.

Hasiera baten onartzea "SAN JOSEPE KALEA BERRIRO URBANIZATZEKO PROIEKTUA".

Proiektu hori jende aurrean egongo da HOGEI EGUNEZ, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dutenetik, aztertu eta bidezkoak diren alegazioak aurkezteko.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arrasate, 2012ko maiatzaren 17a
ALKATEA
Inazio Azkarragaurizar Larrea

## OHARRAK

**PAZKOETAKO BAZKARIA**
Herri bazkaria Pazkoetako astelehenean, hilaren 28an izango da. Txartelak 15 eurotan daude salgai daude hilaren 21era arte Depor, Ariznoa, Frontoiko tabernan eta Pikupeko bulegoan, Artekalean. 10 urtetik beherako umeendako tiketak, 10 eurotan.

**IBILGAILUEN ZERGA**
Udalak jakitera eman duenez, iIbilgailuen zerga ordaintzeko epea maiatzaren 31n bukatzen da eta egun horretan kargatuko dira kontuan erreziboak (helbideratuta daudenak). Hurrengo egunetik aurrera bide ejekutiboari ekingo zaiola gogoratzen du Udalak.

**JOSKINTZA IKASTAROA**
Udalak, Osintxuko Herri Batzarrak eta Bizikasik antolatuta, joskintza ikastaroa izango da Osintxun ekainean, hilaren 5ean hasita. Argibideak eta izen-ematea (10 euro) Osintxun, Euskalduna tabernan edo Txuringon, eta Bizikasin (943 76 93 94).

**ODOL ATERATZEA**
Odol Emaileen Elkarteak jakitera eman duenez, eguaztenean, hilaren 23an, odol ateratzea egingo dute anbulatorioan, ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era hain zuzen

**SAN MARTZIALGO KANTINA**
Uztailaren 1ean San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta txosnaren esplotazioa adjudikatuko ditu Udalak. Irabazi asmorik gabeko elkarteek eta talde herrikoiek maiatzaren 30era arte daukate eskaerak aurkezteko epea zabalik. Interesatuek udaletxean edo 943 77 91 00 telefono zenbakian jaso ditzakete argibide gehiago.

**ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA**
Udalak jakitera eman duenez, 2012ko ondasun higiezinen gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko epea zabaldu dute. Borondatezko epea maiatzaren 15etik uztailaren 2ra dago zabalik. Ondoren, errekarguaz kobratuko da. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek, ondorengo egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria. Agiri horrekin banketxetik edo udaletxetik pasa daiteke ordainketa egiteko. Halaber, agiri hori maiatzaren 31 baino lehen jasotzen ez bada edo azalpenen baten beharra izanez gero, Kontuhartzailetzako bulegora jo daiteke. Argibideak 943 77 91 64 zenbakian.

**UDALEKUAK, AZKEN EGUNA**
Udalak DBHko ikasleendako antolatutako Udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea gaur, egubakoitza, amaituko da. Udaleku irekiak uztailaren 2tik 20ra izango dira goizeko 10:00-tik 13:00ra. 2000-2009 urte bitarteetan jaiotakoek hartu dezakete parte. Argibideak kultura etxean, Gazteria eta Hezkuntza zerbitzuan 943 77 91 60.

**MAKILLAJE IKASTAROA**
Jardun elkarteak antolatuta, Igaro dendako Ihintza Orbegozok makillaje ikastaroa eskainiko du kultura etxean. Bi saio izango dira ekaineko bi zapatutan, 10:30etik 12:00etara. Argibideak Jardunen, 943 76 36 61 telefono zenbakian.


EAJko kideek sinadura bilketa egin zuten zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

# Atez atekoaren aurka 4.000 sinadura inguru

EAJk sinadura bilketa egingo du asteburuan; Herri Plataformak 2.800 inguru batuta zituen aurretik

E.M. | BERGARA
Bergarako EAJk atez ateko hondakin bilketaren aurkako sinadura bilketa egin zuen asteburuan eta oraingo asteburuan aurrera egingo dute bilketarekin: bihar zapatua, Oxirondo azokan (8:30etik 12:00etara), Bolun (11:00etatik 14:00etara), Irala kalean (11:00etatik 14:00etara) eta Osintxun 12:30etik 14:00etarara) izango dira eta domekan, hilaren 20an, Angiozarren, 11:00etatik 12:30eran.

Era berean, EAJk jakitera eman duenez, Herri Plataforma eta EAJ komertzio desberdinetan egiten ari diren sinadura bilketa maiatzaren 31ean amaituko da; "ondoren, sinadura guztien zenbaketa egin, eta Plataformarekin batera udaletxean emango diogu sarrera. Guzti honen berri emango diogu Bergarako herriari komunikabideen bitartez. Ohar hau aprobetxatu nahi genuke, larunbatean gure mahaietara sinatzera inguratu zen jendearen iritziak eta babesak eskertzeko. Uste dugu gainera, alderdikeriak utzi eta herritarrei entzun behar zaiela hondakinen kudeaketa gai honetan. Beharrezko ariketatzat hartzen dugu hau".

**Herri Plataformarekin bat**
Joan den martxoaren 26an Herri Plataformak jasotako 2.828 sinaduren erregistroaren kopia eman zion EAJri. Udaletxean emandako sarreraren kopia, hain zuzen ere. EAJko iturrien hitzetan, "helburua, martxoaren 26ko osoko bilkuran plataformaren eskaeren defentsa egitea izan zen. Pleno horretan bertan erabaki zuen Bergarako udal gobernuak atez-ate hondakin bilketa sistema ezartzea, Herri Plataformaren sinadura bilketa kontutan hartu gabe, eta pleno berean esan genuen, hortik aurrera Plataformarekin bat egiten genuela eta gure ekintzak abian jarriko genituela".

**Herritarren eskaera**
EAJk igorritako prentsa oharraren arabera, zapatuan jasotako sinadurak plataformak jasotakoei gehituz 4.000tik gora sinadura batu dituzte jada ekimen honen alde: "Larunbatean gure mahaietara gerturatu zen jende kopurua ikusirik, atez atekoaren aurka beraien iritzia kontutan hartzeko duten beharra ikusirik, eta beste auzo batzuetako jendearen eskaera ikusirik, berriz ere sinadurak biltzeko mahaiak ipintzea erabaki dugu" diote Bergarako jeltzaleek. Bihar eta etzi firmak batzen izango dira.

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Bizkotxoak, erreilenoak eta tostoiak
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono. 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

JOXAN ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Elortza alkatea, Josu Arregi eta Andres Garitano sinatze ekitaldian. | GOIENA

# Erregetxo plazako etxeak eraikitzeko hitzarmena

## Udalarekin adostutakoaren arabera 63 etxebizitza egingo dituzte Ortelbar eta Lotzen enpresek

E.M. | BERGARA

Udalak eta Ortelbar eta Lotzen enpresetako ordezkariek hitzarmena sinatu zuten atzo goizean udaletxean. Jesus Elortza alkatearekin batera Josu Arregi eta Andres Garitano izan ziren. Aldi baterako enpresa sortu dute Lotzenek eta Ortelbarrek, Erregetxo Plaza izenarekin. Sinatutako hitzarmenaren arabera, Mariaren Lagundiko eraikin berriaren tokian, 63 etxebizitza egitea aurreikusten da. Jesus Elortza alkateak zehaztu zuenez, horietatik 38 libreak izango dira; 13 tasatuak eta 12 babes ofizialekoak. Era berean, 63 garaje eraikiko dituzte eraikinaren azpian eta, horrez gain, komertziorako bi lokal egongo dira. Etxebizitzei dagokienez, logela bat, bi logela, hiru eta lau logelakoak izango direla zehaztu zuen Arregik.

**Eraiste lanekin aurrera**

Mariaren Lagundiko eraikin berria Gabonen aurretik hasi ziren botatzen, baina arazo batzuk tarteko, ez dituzte lanok oraindik amaitu. Eraikinaren ondoko Zabalotegiko 14. zenbakiko etxeetan pareta bat falta zen eta lanak geratu behar izan zituzten. Atzo aurreratu zuenez, eraiste lanek aurrera egingo dute hurrengo astean

Mariaren Lagundiko eraikina 1960ko hamarkadaren hasierakoa zen. Oraindik ez dakite noizko amaituta izango diren han eraikiko dituzten etxeak. Bestalde, Erregetxo plaza dagoen tokian aparkalekuak egitea aurreikusi du Bergarako Udalak.

NIRE USTEZ

JOSU ELORZA



# 'Hakuna matata'

Irratia entzuteak zein telebista ikusteak beldurra ematen duen garai hauetan, zaila egiten da norberak dituen arazoak alde batera utzi eta lasaitasuna zer den aurkitzea. Zaborraren tira-birak, murrizketak, liskar politikoak… eta hamaika kontu gehiago.

Etorkizuneko gizartea gure esku omen dago, gure eskuetan etorkizuna izango direnen bizitza. Gai potoloa egunerokoari aurre egiteko arazoak dituen herritarrarentzat. Neurriak hartu behar dira, bai, baina herritarraren bizitza duina ziurtatuta edozein neurriren gainetik.

Ilusioa galtzea baino gauza okerragorik ez da. Apustu zein loterien aurretik, kirola omen da gauzak ahaztu eta ilusioa mantentzeko formula. Horren adibide, Bukaresteko ametsa hizpide hartu zuten zaleak. Ez zuten zortea lagun izan, urte borobil bati ezin merezitako amaiera eman, pena. Iñigorentzat omenaldi bikaina izango litzateke, gertatutakoa inoiz ahaztuko ez den arren. Tira, beste aukera bat daukate, baina ez dute pentsatuko ba futbola aldatu duen maisuari azken titulu gabe uztea! Ahaztu gabe, agur eta ohore Mikel.

Gure esku ez dauden arazo asko daude, baina norberaren esku dago ilusioa mantentzea. Bihar Aitorrek Gorla igo bezain azkar uzten ditut nik arazoak alde batera, merezi duelako, egizue aproba zeuek ere!

**"Arazo asko daude, baina norberaren esku dago ilusioa mantentzea"**

# Mikel Gutierrez eta Javier Gallastegi, garaile herri arteko plater tiroketa txapelketan

E.M. | BERGARA

Mikel Gutierrez bergararrak irabazi dute herri arteko plater tiroketa txapelketa. Legazpia, Zumarraga, Urretxu, Oñati eta Bergarako 50 tiratzaile inguruk hartu dute parte herriz herri egindako saioetan. 60 jaurtiketatan 57 plater puskatu zituen Gutierrezek. Beteranoen mailan, berriz, 46 plater hautsita, Javier Gallastegi bergarararrak eskuratu zuen garaipena. Taldeko sailkapenean legazpiarrak nagusitu ziren.

Herri arteko plater tiroketa txapelketa zirkuitu eran jokatu da eta, esan bezala, aipatutako bost herrietan egin dituzte saioak.



Jose Ignacio Beristain eta Unai Urbina, Miguel Lazpiurrekin, Zambranan. | LARZELUS

**Bergarako ehiza txapelketa**

Bestalde, ohi denez, Zambranan jokatu zen Bergarako ehiza txapelketa joan den apirilaren 28an. Unai Urbinak eraman zuen txapela, 9 eper ehizatu eta gero. Jarraian Koldo Alberdi (8 galeper), Iban Igartua (6) eta Jon Ander Zamakola (5 eper) sailkatu ziren Zambranan. Beteranoen mailan Jose Ignacio Beristainek eraman zuen txapela. Aipatutako bost ehiztariek irailean jokatuko den zonaldeko txapelketarako txartela eskuratu zuten. Denera, 35 parte-hartzaile izan ziren eta giro ederrean igaro zuten ehiza eguna.

## Herritarrei atez ateko sistema aurkezteko bilera deitu du Udalak eguaztenerako, maiatzaren 23rako

Udalak herritarrendako batzarrak deitu ditu atez atekoa aurkezteko. sistema berriaren lehen aurkezpena egitea, herritarren kezkak bideratzea eta ekarpenak jasotzea da helburua. Aurreko astean bi bilera egin zituzten, eragileekin eta elkarte gastronomikoetako eta ostalaritzako ordezkariekin. Hirugarrena herritarrekin egingo dute eguaztenean, hilaren 23an, 19:00etan udaletxean.

## Ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea, uztailaren 2ra arte zabalik

Udalak jakitera eman duenez, 2012ko ondasun higiezinen gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea uztailaren 2ra arte dago zabalik. Ondoren, errekarguaz kobratuko da. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek, etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria. Halaber, agiri hori maiatzaren 31 baino lehen jasotzen ez bada edo azalpenen baten beharra izanez gero, Kontuhartzailetzako bulegora 943 77 91 64 jo daiteke.

## San Joxepeko erretiratuak, eguenean Irunera; irailerako, berriz, Parisera bidaia iragarri dute

Eguenean, hilaren 24an, Irun aldera joango dira erretiratuak, 07:00etan autopbus geltokitik aterata. Irungo Luis Mariano elkartekoekin batera ibiliko dira eta bazkaria Vagon de Cola jatetxean egingo dute. Bestalde, irailaren 17tik 22ra Parisera bidaia iragarri du San Joxepe elkarteak. Izen-emeta lehenbailehen egitea eskatu dute. Argibideak Boni Laskuraineko egoitzan.




hamaika
udan bazkariak ere bai!
Espoloia, 10-12. Bergara. 943 03 45 85

# Aurreikusitako inbertsioen berri eman du Gobernuak

Aurrekontuak behin betiko onartu zituzten maiatzaren 7an; oposizioak kontra bozkatu zuen



Mekolaldeko zubi berrirako 636.000 euroko inbertsioa aurreikusi da. | GOIENA

E.M. | BERGARA

Udal Gobernua osatzen duten Bilduko eta Aralarko zinegotzien botoekin udal aurrekontuak behin betiko onartu zituzten joan den maiatzaren 7ko ezohiko osoko bilkuran. Gobernuaren arabera, ez da erraza izan aurrekontuak orekatzea: batetik, krisiagatik, eta bestetik, Aldundiko Foru Fondotik aurreikusitako jaitsieragatik. Hirigintzako sarrerek ere %63,5 behera egin dutela azaldu dute Udal Gobernuko iturriek.

**Desjabetzeak Mekolalden**

Ondoko koadroan, aurreikusitako inbertsioak ikus ditzakezue. Mekolaldeko zubiaren aurrekontuan 536.000 euro desjabetzeei dagozkie eta Angiozarko zuntz optikoaren kasuan 30.000 euro Jaurlaritzaren dirulaguntzari. Azkenik, Zurraderoko garajeen partidan, erdia jabeek ordainduko dute.

### INBERTSIOAK

| INBERTSIOA | EUROAK |
|---|---|
| **INDUSTRIA BULTZATU** | |
| Mekolaldeko zubiaren lotura | 636.000 |
| **AURREZTEKO INBERTSIOAK** | |
| Igerilekuetako urak araztu berrerabiltzeko | 65.000 |
| Energia aurrezteko proiektua | 10.000 |
| Ur sarea berriztatu | 50.000 |
| Kontagailu berriak | 5.000 |
| **ALDE ZAHARRA BIZIBERRITU** | |
| Barrenkaleko urbanizazioa | 10.000 |
| Dirul. baxu komertzialak (ondarea, kultura) | 1.000 |

| INBERTSIOA | EUROAK |
|---|---|
| **LANDAGUNEA BULTZATU** | |
| Baserri bideak eta kunetak | 100.000 |
| Angiozarko zuntz optikoa | 60.000 |
| Elosuko lurrak | 5.000 |
| Landaketak eta beste | 1.000 |
| **KONPONKETAK** | |
| Ozaeta/Angiozar urbanizazioa | 76.000 |
| Zurraderoko garajeak | 124.000 |
| Basarteko orma | 28.000 |
| **BESTE BATZUK** | |
| Irisgarritasun plan | 10.000 |
| Etxe eta lokalen erosketa | 10.000 |
| Beste | 1.000 |

# Kizkur: estetizista eta ile apaintzaile zerbitzuak bezeroaren esanetara

Celia eta Amaia Gomezen Kizkur ile apaindegiak zilarrezko ezteiak beteko ditu hurrengo urtean. Donostian ikasi ondoren, Celiak jarri zuen martxan eta Amaiak jarraitu zion handik gutxira. Gustura dihardute elkarrekin lanean.



Celia eta Amaia Gomez ahizpak, Kizkur ile apaindegian, Bolun.

"Zilarrezko ezteiak beteko ditu Kizkurrek hurrengo urtean eta lanarekin gozatzea eta bezeroa pozik uztea izan da helburua urte hauetan guztietan"

Amaiak estetizista ikasketak egin zituen Donostian eta Celia ile apaintzailea da. Ahizpak izanik, ondo baino hobeto ezagutzen dute elkar. Bezeroen nahiak ere bai. Bezero fidelak izatea lortu dute urte hauetan guztietan.

Estetika, solariuma, ile apaindegia eta fotodepilazioa eskaintzen dute. Urte osoan antzera ibiltzen badira ere, martxotik urrira bitarteko sasoia lan handiagokoa da. Ezkontzek eta bestelako ospakizunek zerikusia izaten dute horretan. Esandako moduan, lagunen eta bestelako bezero fidelen bilgune bilakatu da Kizkur. Gizon eta emakumeak hartzen dituzte, baina jende gaztea da nagusi.

**Egungo joerak**

Celiak azpimarratzen duenez, Tigi eta Goldwell markekin lan egiteak segurtasuna ematen die bezeroak hartzeko orduan: "Gaur egun jendeak gero eta gehiago zaintzen du bere burua". Mozte klasikoak nagusi direla dio Celiak: "Eta kolore alaiak: gorria, kobrea eta ilehoria". Keratina erabiltzea ere modan dagoela diosku. Udaren atarian, azala eta ilea zaintzea ezinbestekoa da. Amaiaren hitzetan, "eskuak eta oinak zaintzeko ohitura handiagoa dago; udari begira azala gertatu behar da dago, azala ondo hidratatuz, beltzaranak gehiago iraun dezan". Lanarekin gozatzea eta bezeroa pozik ateratzea da helburua Kizkurren.




# Zapatuan San Martin plaza bete nahi dute, "kartzelak husteko"

E.M. | BERGARA

*Plazak bete, kartzelak husteko* ekimenaren harira, Bergarako mugimenduak San Martin plaza herritarrez bete nahi du bihar, zapatua. "Urtarrilaren 7an Bilboko manifestazio kolosalari bergararrok eman genion erantzunaren jarraipena izango da maiatzaren 19koa", diote. Horretarako, herriko hiru leku ezberdinetatik hiru zutabe aterako dira arratsaldeko 18:30ean: lehena, Frontoitik, erraldoi, buruhandi eta txistulariez lagunduta; bigarrena, Udal Musika Banda Musika Eskolatik abiatuta; eta hirugarrena, Bidegurutzetatik, herriko gazteek osatuta. Hiru zutabeak 19:00etan plazan batuko dira.

**Margoak, dantzak eta kantuak**

Plazan, herriko margolariek bi margolan handi pintatzen ariko diren bitartean, Musiraka dantza taldeak harrera egingo die bertan bildutako guztiei. Preso eta iheslarien senide eta lagunek hitza hartu ondoren, herriko abesbatzetako kideek abesti bat eskainiko dute. Amaitzeko, bildutako guztien artean azken abestia abestuko dute. *Goazen plazara* ekimenarekin bat egin duten guztiei gure eskerrak eman nahi dizkiete erakutsitako babesarengatik.

## Giranice eta Jon Gurrutxaga gaur gauean gaztetxean eta '90 semanas y 1/2' antzezlana domekan

*Egubakoitzak kartzelan* kontzertu zikloarekin jarraituz, Giranice eta Jon Gurrutxaga izango dira gaur gaztetxean, 22:00etan. Sarrerak 3 eurotan izango dira salgai. Bertaratu ezin direnendako, Txapa Irratitik emanaldia eskainiko du. Domekan, berriz, Cecilia Paganiniren *90 semanas y 1/2* klown antzezlana ikusteko aukera izango da gaztetxean, 18:30ean.

## Bergara KEko saskibaloi sailaren urteko batzarra eta Pol-Poleko ezohiko batzarra datorren astean

Bergara KEko saskibaloi sailak urteko batzarra egingo du martitzenean, hilaren 22an, Miguel Altunako aretoan, 19:00etan. Bestalde, Pol-Pol mendizale elkarteak ohi kanpoko batzarra deitu du eguaztenerako, hilaren 23rako. Elkartearen lokal berrian egingo dute, Udal Pilotalekuko lehen solairuan; lehen deialdian 18:30ean eta bigarrenean 19:00etan. Kasu bietan ere, jendearen parte hartzea deitu dute Bergara KEko sailak eta Pol-Polek.

## Bergara Hiria txapelketa: bi bikote finalista erabakita, eta martitzenean jokatuko dira beste bi finalerdiak

Bergara Hiria pilota txapelketan, Ortiz-Ibarrondo (gazte mailan) eta Jaka-Peñas (nagusien mailan) bikoteek finalerako txartela lortu zuten martitzenean. Jaka eta Peñasek 22-20 irabazi zieten Elezkanori eta Diezi. Martitzenean, hilaren 22an, beste bi finalerdiak jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean: gazte mailan Larrañaga-Agirre eta Altuna-Imaz bikoteak izango dira aurrez aurre eta senior mailan, Bilbaok eta Uzkudunek Yoldi eta Arratibelen aurka jokatuko dute.

## Herriko plaza jendez bete gura dute bihar

M.B. | OÑATI

*Goazen plazara* ekimenaren barruan, Oñatiko Herrira ekimenak hainbat ekintza egingo ditu bihar, zapatua. Hori horrela, antolatzaileek giza eskubideen eta euskal presoen eta iheslarien defentsan parte hartzeko gonbita egin diete herritarrei.

**Bazkarirako txartelak salgai**

Egitaraua mendi irteera eginda hasiko dute. 08:00etan plazan elkartu eta Oñatiko mendi tontorretan *Euskal preso eta iheslariak etxera* dioen zapia jartzeko mendi ibilbidea egingo dute. Ondoren, 12:00etan, txikiteoa egiteko elkartuko dira. Abeslari, dantzari eta bertsolarien laguntzarekin *Goazen plazara* ekitaldia egingo dute plazan, 13:00etan. Jarraian, bazkaria egingo dute. Txartelak salgai daude Arrano, Aloña eta Oñati tabernetan: langileendako 12 eurotan eta langabe eta ikasleendako zortzi eurotan.

Eguna bukatzeko kontzertuak egingo dituzte herriko hainbat tabernatan: Boga, Ona eta Arranon.

# Euskal memoriaren alde lan egiten Oñatitik

Eguaztenean aurkeztu zuten herrian sortutako taldea jendaurrean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Euskal Memoria Fundazioa 2009an sortu zen memoria historikoa berreskuratzearen alde lan egiteko. Fundazioarekin batera lan egiteko, eta "lapurtu diguten memoria osatzen laguntzeko", herririk herri lantaldeak sortu dituzte. Oñatikoa eguaztenean aurkeztu zuten. Sei lagunek osatzen dute. "Lapurtu diguten memoria osatzeko ezinbestekoa da guztion lana. Oñatiko taldea osatzen dugunok horretan dihardugu, odorengo belaunaldiek gertaturikoaren egia ezagut dezaten. Historia etengabe faltsutu digute, kontakizunak eta bizipenak isilduta. Bada guk geuk gure historia idazteko garaia", esan zuen aurkezpenean Oñatiko taldeko kide Irati Goitiak.

Oñatiko taldeak urtebete darama gerra garaiko eta gerra osteko testigantzak jasotzen; besteak beste, 168 atxiloturen lekukotzak jaso dituzte. Horietatik 60 torturak sufritu zituzten pertsonak dira.

Informazio guztia Euskal Memoria Fundazioa bidaltzen dute han artxibatzeko.



Oñatiko taldea Nuria Altzugarairekin (esk.3), kultura etxeko lorategian. | M.B.

ESANAK

**"Bada guk geuk gure historia idazteko garaia"**

IRATI GOITIA
OÑATIKO TALDEKOA

ESANAK

**"Lekukotza zuzenak jasotzea da helburua"**

NURIA ALTZUGARAI
EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOA

Aurkezpen ekitaldia aprobetxatu zuten euren testigantzak emandako pertsonei eskerrak emateko: "Beldurrak gainditu eta geraturikoa kontatzera ausartu direnei, gure eskerrik beroenak". Bestalde, Gogoratu Guran Taldeak orain arte egindako lana azpimarratu zuten. "Irailean aurkeztutako dokumentalarekin eta liburuarekin egindako lanarengatik zoriondu gura ditugu. Bestalde, esker mila guri emandako laguntzarengatik", esan zuten.

Gaineratu zuten Oñatiko taldea "talde irekia" dela. "Eskuak zabalik hartuko dugu lanean jardun gura duen edonor, eta baita testigantza eman gura dutenak".

**"Lekukotza zuzenak"**

Oñatiko taldearen aurkezpenean Nuria Altzugarai ere egon zen, Euskal Memoria Fundazioko kidea. Fundazioaren nondik norakoak azaldu zituen; besteak beste, lana nola egiten duten. "Memoriaren berreskuratze lanean bi elementu lantzea ezinbestekoa dela uste dugu: alde batetik, 1936tik gaur egun arte batu ahal ditugu dokumentu ofizialak; eta beste alde batetik, lekukotza zuzenak biltzea".

Gaineratu zuen Euskal Herri osoko memoria modu integralean berreskuratzeko "beharrezkoak" direla herririk herri dauden taldeak.

Eta esan zuen esku artean dutela azken 50 urteetan Euskal Herrian torturak izan duen eraginaren gaineko lana.

## Zabalik da herriko arrantza txapelketan izena emateko epea

M.B. | OÑATI

Pago Uso elkarteak antolatzen duen herri mailako arrantza txapelketarako izena emateko epea zabalik dago. Interesatuek hilaren 30era arte eman ahal izango dute izena Alzu dendan. Parte-hartzaileek federatu txartela eguneratuta izan beharko dute. Txartel hori duenak ez du ezer ordaindu beharko txapelketan parte hartzeko.

Dena den, federatu txartela ez dutenek herri mailako proban parte hartu ahal izango dute, egun horretarako federatu txartela egiten badute: 15 urtetik beherakoek bost euro ordaindu beharko dituzte txartelarengatik eta nagusiagoek, 15 euro.

**Opariak eta luncha**

Herri mailako arrantza txapelketa ekainaren 2an jokatuko dute Arantzazu errekan. 16:00etan bilduko dira guztiak, Etxe Aundi jatetxearen aurrean, eta 19:00ak arte arrantzan egiteko aukera izango dute. Amuarrain gehien harrapatzen duenak irabaziko du proba. Dena den, parte-hartzaileendako opariak eta luncha egongo dira.

## Mediku egoiliar onenaren bigarren saria

Uxue Bolinaga oñatiarrak 2011ko barruko mediku egoiliar (BAME/MIR) onenaren bigarren saria jaso du asteon, Pilar Marco medikuen ikasketa buruaren eta UCIko arduradunaren eskutik. Bolinaga otorrinolaringologoa da. Ekitaldian, Eduardo Ladron de Gebara medikuen zuzendaria egon zen. Zorionak, Uxue!




UXUE BOLINAGA

lenceria Kuttun
Lentzeria
eta
Korseteria
Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44
OÑATI
ORY
ESPRIT
huit LINGERIE
Freya
COCCA
watercult



# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
*blasaga@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

## ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
*www.biark.net*

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Easko Eskolaniako mutikoak abesten, musikarien laguntzarekin. | EASO ESKOLANIA

# Easo Eskolaniako mutikoen ahotsek beteko dute Santa Ana

## Musikegunetako azken–aurreko kontzertua egingo dute domekan, 19:30ean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Iñaki Salvadorren proiektu berrienetik, Easo Eskolaniako mutikoen ahotsetara. Horixe da, 34. Musikegunak izango duen saltoa. Etzi, domeka, kontzertua egingo dute Easokoek, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrerak leihatilan bertan erosi ahal izango dira.

Easo Eskolaniako mutikoen ahotsek beteko dute Santa Ana aretoa, eta haiekin egongo dira Ana Otxoa sopranoa; Marife Nogales mezzosopranoa; Alazne Alberdi eta Jabier Arruabarrena tronpak; Elena Martinez de Murgia biola; eta Oscar Candendo organoa. Zuzendari lanak egingo ditu Gorka Mirandak. Hiru musikari handien piezak eskainiko dituzte: Teleman, Bach eta Haydnen musika izango da protagonista, mutikoen ahotsetan.

### Mutikoen ahotsekin bakarrik

1992. urtean sortua, mutilen ahotsez soil-soilik osatzen den talde bakarrenetako bat da gaur egun Euskal Herrian; bere lan serio eta iraunkorrari esker interpretazio-maila bikaina lortu du. Urte hauetan jaialdi askotan parte hartu izan du. Dituen ezaugarriengatik aintzinako musikaren eremuan berezitu bada ere, aldakortasun-ahalmenak alor ezberdinetako errepertorioa lantzera bultzatu du.

Azken urteotan eskolanien topaketetan parte hartu du Escorialeko eta Montserrateko eskolaniekin, Donostiako Kursaaleko Auditoriumean aurrena eta Madrilekoan geroago.

### Azkena, gitarra doinuekin

34. Musikegunetako azken emanaldia Eduardo Baranzano gitarra-jotzaileak egingo du. Hilaren 27an izango da kontzertua, 19:30ean, Santa Anan.

## OHARRAK

### DEIALDIA

1981eko kintoek (1961eko irailaren 1etik 1962ko abendura artekoak) afaria egingo dute maiatzaren 26an Etxe Aundi jatetxean. Egitaraua izango da: 19:30ean meza, 20:30ean txikiteoa eta 21:30ean afaria. Interesatuek 665 72 37 09 (Juan Mari) edo 645 73 24 12 (Jabi) telefonoan eman dezakete izena.

### DVD-A SALGAI

Urko Egañak egin duen *11 kantatzeko* DVDa salgai dago herriko liburu-dendetan, Turismo Bulegoan eta *urko_egana@hotmail.com* helbidean, 15 eurotan. 11 ipuin klasiko bertso bilakatu ditu Egañak, ilustrazio eta guzti.

# Auzoko afariarekin hasiko dituzte Asentzio jaiak Murgia auzoan

M.B. | OÑATI

Murgia auzoko bizilagunek Asentzio jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte. Izen bereko ermitaren eta elkartearen inguruan egingo dituzte ekintzak.

Auzotar gehienak elkartzeko asmoz, auzoko afaria egingo dute gaur, egubakoitza, 21:00etan, Asentzio elkartean. Afariaren aurretik eta ondoren, bertsolarien eta trikitilarien doinuak izango dituzte.

Dena den, aste bukaerako ekintza nagusiak bihar, zapatua, egingo dituzte. 09:30ean mendi bizikleta irteera egingo dute: Murgiako I. ibilaldia. 16:00etan auzoko mus txapelketa jokatuko dute elkartean, eta ordu berean auzoko neska-mutikoendako jolasak egongo dira: zaku-lasterketa, puzgarriekin jolasak... Jokoak bukatzerakoan, txokolate-jana egongo da guztiendako.

### Herri-kirolak eta meza

Herri-kirolendako tartea izango dute 18:00etan. Harri-jasotzaileen eta aizkolarien txanda bukatuta, erromeria egingo du Miren, Agur eta Oier taldeak. Ilunkaren txerri-harrapaketa egingo dute. Jaiak bukatzeko, domekan, meza esango dute 11:00etan. Ondoren, luncha izango dute.

# Odol-ateratzeen ordutegia aldatu egin dute: 17:30etik 19:30era izango da gaurtik

M.B. | OÑATI

Odol-emaileen taldeak ateratzea egingo du gaur, egubakoitza, Txantxiku Ikastolako aretoan. Lekuan ez dago aldaketarik; bai, ordea, ordutegian: aurrerantzean, ordu erdi lehenago hasi eta bukatuko dute ateratzea: 17:30etik 19:30era izango da. Betiko moduan, Donostiako mediku eta erizainak egongo dira ikastolan. "2012ko odol-ateratzeak oso onak izan dira. Eskerrik asko, guztioi. Dena den, emaile berriak asko eskertuko genituzke", esan digute odol-emaileen taldekoek.

Hurrengo ateratzeak egingo dituzte ekainaren 15ean eta urriaren 19an.

# Musika eskolako ikasleak Italian daude Europako jaialdi baten

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako 35 kide Emilia-Romagna (Italia) herrian daude eguaztena ezkero, Europako musikari gazteen jaialdian parte hartzen. Akordeoi eta triki-pandero taldeetako kideak dauden han, hainbat irakasleren laguntzarekin. "Asko entseatu dute. Gogotsu egin dute lan. Ea, bada, zenbat disfrutatzen duten. Esperientzia polita, ezberdina izango da", esan dute musika eskolako arduradunek.

Lehen emanaldia gaur egingo dute Mesolan (Castello Estense) eta bigarrena bihar, zapatua, Bellarian (Piazza Matteotti). Bi emanaldiak bukatuta Oñatira itzuliko dira. Domekan helduko dira herrira, 19:30 aldera.

### Gonbidapenarekin

Jose de Azpiazu musika eskolakoek Euskal Herriko Musika Eskolako Elkarteak (EHME) gonbidatuta parte hartzen dihardute Europako jaialdi horretan.



Musika eskolako ikasleetako batzuk. | MUSIKA ESKOLA

# Jazz, blues eta bossa-nova doinuak eskainiko ditu Ebert Sanchez gitarristak Antton tabernan

Arrasaten bizi den Ebert Sanchez venezuelarrak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Antton tabernan, 20:00etan. Bere gitarraren laguntzarekin jazz, blues eta bossa-nova doinuak eskainiko ditu. Gaur, Igor Letona jazz gitarrista eta perkusionista latindarraren laguntza izango du.

Ebert Sanchezek bakarlari moduan egingo du zuzenekoa; aurretik, baina, Azkaiter Pelox eta Transit Blues taldeekin ikusi izan dugu.



Guztiz Eder Estetika Zentroa
Plazera biontzat

ESKAINTZA BEREZIA:
Aurpegirako tratamendua, peeling-a gorputz osoan eta hidratazioa: 90€

• Ezkontza aurretiko masaje erlaxagarria harri bolkanikoekin
• Manikura eta pedikura aromaterapiaren bitartez
• Era guztietako depilazioak • Solariuma

Zerbitzurik onena gure bezeroen esku



Kale Barria 29, behea (Orbea etxea, parke aldetik) 20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46

# Hondakinen kudeaketaren gaineko hausnarketari ekingo diote gaur

## Udalaren webgunean jasoko dute informazioa; ekarpenak egin daitezke

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA
Hiri hondakinen kudeaketa sistemaren gaineko hausnarketa egin gura du Udalak herritarrekin batera, "hondakinen arazoa larria delako". Hori horrela, kontseilu bat osatu gura du Aretxabaletako hainbat esparrutako eragileekin; tartean, hezkuntza, merkataritza, zerbitzu eta beste hainbatetan jarduten duten ordezkariekin eta interesa duten herritarrekin. "Orain dute aukera herritarrek zabor batzearen gaineko iritzia bota eta hausnartzeko, eta guztioi eragiten digun kontua da", dio Lore Martinezek, Ingurumen zinegotziak.

**KONTSEILUAREN SAIOAK**

**1. SAIOA Maiatzak 18**
Prozesuaren aurkezpena.

**2. SAIOA Maiatzak 25**
Zaborraren hierarkia Europako legedian.

**3. SAIOA Maiatzak 28**
Esperientzia ezberdinen berri

**4. SAIOA Ekainak 1**:
Analisia, ondorioak eta adostasuna

*Batzar guztiak Arkupen egingo dira, 18:30-20:30ean.*

**Izena emateko:**
Udaletxera jo
943 71 18 62
ingurumena@aretxabaleta.net

### Sistemarik eraginkorra hautatu

Kontseiluak lau bilera egingo ditu, eta euskaraz eta gazteleraz izango dira guztiak. Lehenengoa gaur da eta Josep Castelltort katalanak, hiri hondakinen kudeaketan 15 urteko eskarmentudunak, bideratuko du saio hori: prozesuaren helburua zein den; saioen antolaketa zelakoa izango den; hondakinen kudeaketaren inguruko informazio orokorra...

Bigarren saioan, Europako legediak zaborraren gainean dioena aztertuko dute: murrizketa; berrerabilpena; birziklapena; balorazio energetikoa; eta deuseztatzea. "Prozesu guztiaren gakoa hementxe dagoela iruditzen zaigu. Eta guk Aretxabaletarako helburuak ezarri beharko ditugu", argitu du Martinez zinegotziak. Hirugarren saioan zabor batze sistema ezberdinen gaineko informazioa emango dute: bosgarren edukiontzia, atez atekoa eta beste batzuk.

Eta laugarren eta azken saioan sistemarik eraginkorrena, hau da, "Aretxabaletarako ezarritako helburuak betetzeko zein sistema den egokiena" hausnartuko dute elkartutakoek. Txosten bat jasoko dute ondorioekin eta udal ordezkariei bideratu. "Zinegotzi eta alkateak txosten hori kontuan hartuko dugu eztabaidatzeko orduan eta osoko bilkuran arrazoitu egin beharko dugu geure botoa", argitu du Martinezek. Atez atekoaren gaineko erabakia ekain inguruan egingo duen osoko bilkuran hartuko du udalbatzak.


Araba ibilbidean dagoen edukiontzia. | M.A.

### Webgunean informazioa

Kontseiluak egingo dituen lau saio horietako informazioa Udalaren webgunean ere jasoko dute: *www.aretxabaleta.com*. "Informazio guztia eta bideoak jarriko ditugu, bilketa sistema ezberdinen gainekoa, Europako legediak dioena...", dio ingurumen zinegotziak. Eta bileretara joan ezin duten herritarrek ekarpenak egin ahal izango dituzte bertan.

### Hitzaldia eta Antzuolara bisita

Bestalde, herritarrak informatu guran hitzaldiak ere antolatu ditu Udalak. Hilaren 24an, eguena, gazteleraz izango da eta 31n, euskaraz; Arkupeko bigarren solairuan dira (18:30).

Atez ateko zabor batze sistema ezagutzeko Antzuolara bisitak egingo dituzte: maiatzaren 23an, eguaztena, merkatari, ostalaritza zerbitzuetako kide eta erretiratuendako izango da (14:30); eta 29an, gainerako herritarrendako (18:30). Autobusean joango dira.

## 'Goazen plazara!' kalejira eta elkarretaratzea bihar

Presoen giza eskubideak errespetatzearen alde *Goazen plazara!* leloarekin honako ekitaldiak egingo dituzte bihar, gurean: 12:00etan, kalejira futbol zelaitik Herriko Plazara, eta 13:00etan, elkarretaratzea eta mokadutxoa. Antolatzaileek diote "garrantzitsua dela herritarrok batuta ekitea, espetxeetako giltzak dituztenak jarrera aldatzera bultzatzeko".

## Areto futboleko taldea mailaz igo daiteke gaur, egubakoitza

Areto futboleko taldeak bigarren postuan bukatu du denboraldia eta mailaz igotzeko aukera paregabea du gaur, Almenen (20:30). Hirugarren geratu den Irudek taldea izango du aurrez aurre, eta zaleen berotasuna gura dute. Irabaziz gero lehenengo mailan izango da datorren denboraldian; gainera, finala jokatzeko txartela eskuratuko du.

## Odol Emaileen Eguneko bazkarirako txartelak eskuragai

Arabako Odol Emaileen Eguna Aretxabaletan ospatuko dute aurten, ekainaren 10ean. Batzar orokorra egingo dute lehenengo, eta bazkaria gero Iturrigorri pilotalekuan. Bazkarirako txartelak elkartearen bulegoan (Gasteizko Santiago ospitalea, 09:30-11:30) hartu behar dira (28 euro); azken eguna maiatzaren 30a da.

# Estatutuak egokituko ditu UDAk beste kirol batzuetara zabaltzeko

## Herritarrek egin gura dituzten kirol berri guztiak jasotzeko asmoa dute

**M.A.** | ARETXABALETA
Aretxabaleta Kirol Elkarteak estatutuetako hainbat kapitulu aldatuko ditu uztailean egingo duen batzar orokorrean, eta aldaketok bazkideek berretsi beharko dituzte. Horren helburua da UDAren babesean beste hainbat kirol egiteko aukera izatea herritarrek: "UDA aretxabaletarron taldea delako eta denon zerbitzura dagoelako", gogorarazi dute zuzendaritza batzordeko kideek. Eta gaineratu: "Elkarteko ateak zabalik dituzte beste kirol batzuetan, orain arte UDAren baitan praktikatu ez diren horietan, jarduteko eta lehiatzeko". Eta argitu dute banaka, binaka edo taldean kirola egin, ikasi eta lehiatzeko beharrezkoa den guztia egiteko ahalegina egingo dutela, tartean estatutuak egokitu.

### Kiroldegi berria aprobetxatu

Egun zazpi kirol daude UDA barruan: futbola, pilota, mendia, txirrindularitza, areto futbola, karatea eta gimnasia erritmikoa. Baina laster zabalduko duten kiroldegiko instalakuntza berriei ahalik eta etekin handiena atera gura die "herriko kirolari eta kirolzaleen onurarako". Hori horrela, UDAk hurrengo atal edo sekzio berriak izango dituela iragarri dute: eskalada; saskibaloia; eskubaloia; igeriketa; padela; squasha; tenisa; badmintona; judoa; aikidoa; waterpoloa; eta beste batzuk.

Kirol horietan edo beste batzuetan interesa duen edonor hartuko dute pozik UDAko kideek eta "ahal duten neurrian babestu eta laguntzeko" gertu azaldu dira.

### Emakumeen kirola bultzatu

Aretxabaleta Kirol Elkarteko kideek, gainera, emakumeen kirola bultzatzeko ahalegin berezia egin gura dute.




# EAJk erantzun dio alkateari "ez dutela ezer ezkutatzeko"

## Esleipen prozesua "gaizki kudeatu izana ukaezina" dela diote, eta "autokritika egiteko"

**M.A.** | ARETXABALETA
Kiroldegi berriaren esleipen prozesuaren gainean Ana Bolinaga alkateak joan den astean egindako adierazpenei erantzun gura izan diote Aretxabaletako EAJko kideek.

### Autokritika eskaera

"Lehenik eta behin garbi utzi nahi dugu guk ez daukagula ezer ezkutatzeko, izan ere, udaletxeko talde guztiei esleipen prozesua baloratzea eskatu zaigunean orain dela aste bi, lehenak eta bakarrak izan gara gure ikuspuntua garbi azaltzen", jakinarazi dute.

Eta jarraitu esanaz: "Bigarrenik, pleguen definizioa eta ondorengo esleipen prozesua gaizki eta berandu kudeatu dela esan genuen eta hori ukaezina da. Errealitate honi entzungor egin beharrean, prozesu hauetan parte hartu duten politikari, tekniko eta gainontzekoei prozesuaren balorazioa eskatu, hausnarketa egin eta umiltasunez autokritika bat egiteko eskatzen diogu Udal gobernuari eta bereziki alkateari, EAJren aurkako deklarazioetan denbora galtzen ibili beharrean".

### Kiroldegiaren alde lanean

Horrekin "itxitzat" jo gura dute kapitulu hori, eta bukatu dute esanaz "kiroldegiaren alde lan egiten jarraitzeko gure konpromisoa berrezten dugu".





## Aretxarte, sariak banatu eta banatu

Aretxartek beste hiru herritar saritu ditu: Luzia Oteitzak masaje bat hartzeko txartela eskuratu zuen Belar Metakoen eskutik; Mikel Alberdik 50 euroko txartela jaso zuen Iberren, Kilima ume-dendan erabiltzeko; eta Goilek emandako garbitzeko paketea jaso zuen Antonio de Jesus Ferrerak Aitzorrotzen.



ALFREDO MEABE

# Gaika biltzeko zakarrontziak egingo dituzte Lanbide Eskolan

Udalarekin astean sinatutako lankidetza hitzarmen bati esker egingo dituzte

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Bi urterako lankidetza hitzarmena sinatu zuten astelehenean Ana Bolinaga alkateak eta Aretxabaletako Lanbide Eskolako zuzendari Amaia Arantzabalek, eta hainbat konpromiso hartu, tartean langabeendako ikastaroak antolatzea eta hainbat proiektu garatzea. Udalak, bere aldetik, Lanbide Eskola ezagutarazten lagunduko du.

Lanbide Eskolak hartutako konpromisoen artean daude: Udalak langabeendako antolatutako ikastaroak aurrera eramateko laguntza eta babesa eskaintzea; Udalak antolatutako ekintzak garatzeko ikastetxeko gelak, tailerra eta aretoak uzteko erraztasunak ematea; eta Udalak bideratutako hainbat proiektu eskolako tailerretan garatzea, bertako ikasle eta irakasleen laguntzarekin.



Ana Bolinaga alkatea eta Amaia Arantzabal zuzendaria hitzarmena sinatzen. | M.A.

### Zakarrontziak datorren urtean

Hori horrela, Udalak dagoeneko eskatu dio lantxo bat: gaika sailkatzeko zakarrontziak egitea. Hemendik eta udara bitartean diseinatu egingo dituzte zakarrontzi horiek eskolako ikasle eta irakasleek, eta gero Udal ordezkariei aurkeztu. Oniritzia jasotakoan hasiko dira egiten; datorren ikasturtean izango da hori, irailean, Amaia Arantzabalek esandako moduan: "Ikasle bakoitzak halako zakarrontzi bat egin beharko du bere proiektua bukatzeko".

Materialaren kostua Udalak bere gain hartuko du, eta eskolako kideek ezagutza eta eskulana jarriko dute.

### Udalaren konpromisoak

Udalak ere hartu ditu hainbat konpromiso, horien artean: ikasleen laneratze bidean laguntza ematea; eta udaltzainek jasotzen dituzten abandonatutako autoak Lanbide Eskolara eramatea, bertan praktikak egiteko.

Sinatutako hitzarmena 2012-2014 urteotan izango da indarrean, eta, bi aldeek halaxe gura izanez gero, beste bi urterako berrituko dute.

**DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA**

**BERGARAN:**



IEPS Miguel Altuna GLHBI Bergara
Ibargarai 1. Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40
Ate irekiak: Maiatzak 19, 11:00etan

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Mekanizazioa
  - Administraritza kudeaketa
  - Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Diseinua fabrikazio mekanikoan
  - Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
  - Automatizazioa eta robotika industriala
  - Administrazioa eta finantzak
  - Mekatronika industriala
- **Espezializazio Graduondokoa:** Hotzeko estanpazioa
- Sarbide frogarako prestaketa kiaseak
- Eskaintza Partziala: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Lanerako formazioa langile eta langabetuentzat ikastaroak
- Eskaeren araberako formakuntza

**ARETXABALETAN:**

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarria auzoa z/g - 22 pk. Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
Ate irekiak: Maiatzak 24, 18:00etan



- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Erizaintzako zaintza osagarriak
  - Mekanizazioa
  - Soldadura eta galdaragintza
  - Karrozeria
  - Ibilgailuen elektromekanika
  - Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta (*A ereduan*)
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Metal eraikuntzak (*A/D ereduan*)
  - Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (*A ereduan, arratsaldez*)
- **Langile eta langabetuentzat ikastaroak**

**OÑATIN:**



RM Zuazola-Larraña Institutua
San Lorentzo z/g - 22 pk. Tel.: 943 78 21 50
Ate irekiak: Maiatzak 30, 18:00etan

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Mekanizazioa
  - Mantenu-lan elektromekanikoa
  - Natur ingurunean kirol ekintzen gidaritza
- **GM sarbiderako prestaketa kiaseak:**
  - Euskara, Matematika eta Ingelesa
- **Langile eta langabetuentzat ikastaroak:**
  - Mekanizazioa, Mantenu lan Elektromekanikoak, Energia Berriztagarriak, Soldadura eta Kirol Ekintzetako Gidaritza
- **Praktikak Europan egiteko aukera**

*"ate gehiago irekitzen dizkizugu"*

ikasLAN Gipuzkoa

**AURREMATRIKULA:** Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra. ● **MATRIKULA:** Uztailaren 5etik 11ra.

# Hiri hondakinen hitzaldi sortaren balorazio positiboa egin du Udalak

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

*Eskoriatzan ere zero zabor norabidean* hitzaldi zikloa garatu da bi aste hauetan eta Udalak balorazio oso positiboa egin du. Izan ere, bertaratutako herritarrek planteatutako kezka guztiei erantzuna eman zieten udaleko ordezkariek. Hiru bilera egon dira, herrigunean bi eta elizateetan bat, eta guztira 110 pertsona inguru bertaratu dira.

**Herritarrak ere pozik**

Herritarrek ere oso ondo baloratu zituzten bilerok, Udalak banatutako inkestetako emaitzen arabera. Gainera, Antzuolara hilaren 26an egingo den bisitarako hainbat lagunek izena eman zuten eta autokonpostaje kanpainan parte hartzeko nahia azaldu zuten bileretara joandako 32 herritarrek.

**Autokonpostaje kanpaina**

Bileretara joan ez ziren herritarrek aukera dute autokonpostaje kanpainan parte hartzeko, *ingurumena@eskoriatza.net* helbidera idatzita edo 943 71 54 53 telefonora deituta.

Bestalde, hilaren 23an kafe tertulia egingo da Olazar jubilatuen elkartean, 17:00ean. Tertulia horretan zenbait antzuolarrek euren esperientzia partekatuko dute tertuliara joango diren eskoriatzarrekin.



ESKORIATZAKO UDALA

## San Pedroko obrak bukatuta

Amaitu dituzte San Pedro auzoa berriro urbanizatzeko obrak, eta irekita dago kalea. Urtarrilaren 30ean hasi zituen lanak Olloquiegui enpresak, eta, lanek iraun duten bitartean bideraren zati bat moztuta egon arren, lanak aurreikusitako epea baino lehenago amaitu dituzte.




Stop Desahucios-en kartel batzuk Donostian *#12m15m*-ko asanbladan. | JUAN LUIS MERINO

# Kaleratzeen kontrako sinadura bilketa bihar

Pertsonek etxebizitza banketxeari emanda zorra kitatzea lortu nahi dute

G.A./A.T. | ESKORIATZA

Gipuzkoako Stop Desahucios plataformak sinadura bilketa egingo du bihar, zapatua. Eskoriatzako erdigunean egongo da mahaia 11:00etatik 14:00etara bitartean eta kaleratzeen kontrako sinadura eman ahal izango da bertan. Herri Ekimen Legislatiboaren baitan antolatu dute ekintza eta Ezker Anitzak bat egin du.

**Helburuak**

Firma horien bitartez lortu nahi dute pertsonek euren zorra kitatu ahal izatea etxebizitza banketxeari entregatuta, berriz ere hutsetik hasi ahal izateko. Horrekin batera eskatzen dute hipoteka ez ordaintzeko arrazoiak borondatezkoak ez diren kasuetan maizterra ez kaleratzea bere ohiko bizitokitik, edo bost urteko epean bertan bizitzen jarraitu ahal izatea alokairu sozialaren bitartez, hau da, diru-sarreren %30 gainditzen ez duen errenta ordainduta.

Espainian martxan ipinitako Herri Ekimen Legislatiboaren bitartez, hipoteka-legea aldatzeko eskatu nahi dute kongresuan. Eta horretarako, 500.000 sinadura batu behar dituzte urriaren 31 baino lehen.

Juan Luis Merino Eskoriatzako Ezker Anitzako zinegotziak mezu hau bidali nahi izan die herritarrei: "Bihar gutariko edozein egon daiteke horrelako egoera baten aurrean. Familia askok jasaten duten drama da, Gipuzkoan zehazki bi kasu izaten dira hilean, eta guztion solidaritatea beharrezkoa da. Ea lortzen ditugun 500.000 sinadurak legea aldatu ahal izateko".

### Patinaje ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur

Eskoriatzako Udalak bi patinaje ikastaro antolatu ditu: bata umeendako eta bestea helduendako. Izena kultura etxean eman behar da eta gaur da azken eguna. 20 euro ordaindu behar dira; martitzen eta eguenetan izango dira saioak, hilaren 22tik ekainaren 7ra bitartean.

### Zaharren egoitzaren postua bigarren eskuko azokan

Domekan bigarren eskuko azoka egingo dute Santa Mariñe plazan, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Zaharren egoitzak postu bat jarriko du dirua lortzeko, eta laguntzeko postu horretarako materialen bat eraman nahi duenak 10:00etatik aurrera eraman beharko du Santa Mariñera.






Beste urte bateko Txomin Txapel eguneko bazkaria. | GOIENA

# Fakultatearen eguna ospatzeko ekintza ugari

Olinpiadak, triki-poteoa, bertso-bazkaria eta kontzertua izango dira, besteak beste

A.T. | ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko jaia da: Txomin Txapel eguna, hain zuzen ere. Beraz, ikasle eta irakasleek ekintza ugari izango dituzte egun osoan fakultateko jaia ospatzeko.

10:30ean emango zaio festari hasiera txupinazoarekin, eta ondoren, olinpiadetan parte hartuko dute bertako ikasleek fakultateko belardian eta klaustroan. 13:30ean, Eskoriatzako kaleetan zehar triki-poteoa egingo dute bazkalordura arte. 14:30 inguruan bertso-bazkaria egingo dute Santa Mariñe plazan, txosnaren ondoan. Bazkaltzeko 190 lagun inguru izango dira eta hauxe izango da menua, urtero moduan: pasta-entsalada, solomoa eta txokolate kopa.

Arratsaldean, urtean zehar egin diren ikasleen ekintzen aurkezpena eta urteko egoeraren analisia egingo dute ikasle-biltzarrekoek, 18:00etan, eta 20:00etan *ZZ Blues Band* taldeak kontzertua eskainiko du plazako agertokian.

**Independentziaren alde, martxa**

Kilometroko luzerako independentziaren martxa ere egingo dute, 10:15ean, Eskoriatzako kaleetan zehar. Martxaren helburua parte hartzea da, eta, beraz, ez da garrantzitsuena irabaztea.

Unibertsitatearen eta euskaldunen elkartasuna bultzatzeko asmoarekin antolatu dute unibertsitateko kirol zerbitzukoek ekintza hori, eta animatu eta parte hartzeko dei egin dute.

# Alardea ondare inmaterial izendatzeko urratsa abian

Elkarteak aurkeztu ditu herritarren aurrean martxoko inkesten emaitzak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herritarren aurrean aurkeztu ditu Mairuaren Alardearen Elkarteak martxoan jasotako inkesten emaitzak. "Lagin dezentea izan dugu, 268 pertsonakoa, eta emaitzekin oso gustura gaude", azaldu digu Xabier Legorburuk, elkarteko presidenteak, prentsaurrekoostean.

Jendeak atxikimendua eman dio alardeari, eta, inkesten emaitzei erreparatuta, sorpresa ere izan dutela kontatu digu: "Antzuolara bizi izatera etorritako kanpotarrek ere atxikimendua eman diote. Guztira, inkesta egin duten %87k eman diote atxikimendua. Herritarrek eta kanpokoek parte hartzeko nahia azaldu digute, eta hori oso albiste pozgarria da, beharrezkoa, alardeak bizirik iraun dezan". Alarde berriari, aldiz, hamarretik zortzi puntu eman dizkiote inkestan parte hartu dutenek. Baina bada kezka bat: "Herritar askok alardea ezagutzen dutela esan arren, zalantzazko eta okerreko iritzi ugari sumatzen da alardean zer ospatzen den adierazteko orduan".

DATUA

**%87**

Inkesten arabera, mairuaren alardeari herritarren % 87ek eman diote atxikimendua.

**Pausoz pauso**

Mairuaren Alardearen Elkartea 2004an sortu zen. "Elkartea sortzea garrantzitsua zela uste genuen herritarrek eta herriak parte hartzeko", azaldu zuen prentsaurrekoan Iñigo Ramirez de Okariz elkarteko kideak.

2006an, Eusko Ikaskuntzak, Udalak eta Alardearen Elkarteak alardearen azterketa historiko eta soziokulturala abian jartzeko hitzarmena sinatu zuten.

Hala, alardearen inguruko mintegiak eta ikerketak hasi zituzten eta 2008an, alardea zaharberritzeko taldearen osaketa eta hausnarketa prozesua zabaldu zuten. 2009an, emaitza ikusi genuen: Zaharberritutako lehen alardea, alegia. "Baina ez gara geldirik egon harrezkero, lanean jarraitu dugu", azaldu du Ramirez de Okarizek. Eta 2012an, alardea sozializatzeko eta gizarteratzeko lana egin dute: kaleko inkesta, Antzuolako Udalarekin hitzarmena sinatu eta alardea ondare inmaterial izendatzeko prozesuari ekin diote Foru Aldundiarekin harremanetan jarrita. "Alardeari izendapen ofiziala eman nahi diogu. Foru Aldundiarekin harremanetan hasi gara ondare inmaterial izendatzeko, ofizilatasuna bermatzeko", adierazi zuen.



Iñigo Ramirez de Okariz, Xabier Legorburu eta Maddi Elortza. | M.A.

**Udalarekin hitzarmena**

Bestalde, Maddi Elortzak, Udaleko Kultura zinegotziak, helburuak azaldu zituen: "Jaia indartzea, belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta Udalarekin abiatutako elkarlanarekin elkarteari egonkortasuna ematea, jaiari ofizialtasuna ematea nahi da".

Elkarteak bihar, zapatua, San Isidro azokaren harira alardearen gaineko panel informatiboak jarriko ditu Herriko Plazan. Etxez etxe ere banatuko dituzte euskarriak informazioa zabaltzeko.


AMAIA AZPEITIA

## Gipuzkoako txapeldunak!

Eskola kiroleko Gipuzkoako txapeldunak dira Antzuolako gaztetxo horiek. Alebin kategoriakoak, bosgarren eta seigarren mailara arteko gaztetxo kirolariak dira eta Gipuzkoako txapeldun geratu dira. Joan den maiatzaren 5ean, zapatuan, jokatu zuten Gipuzkoako finala Legazpin, eta garaipenarekin etorri ziren Antzuolara. Gaztetxoekin batera Andoni Rodriguez entrenatzailea dago erretratuan.

## Denboraldi polita egin arren, ez da posible izan promozioa jokatzea

M.A | ANTZUOLA

Azken jardunaldira arte Antzuola futbol taldeak kategoriaz igotzeko aukera izan du. Ez da posible izan, baina, azken partidua Zestoaren aurka 1-0 galdu dutelako eta Zumaiako bigarren sailkatuak Ordizian 1-2 irabazi zuelako. Goiko postuetan oso estu zeuden taldeak, eta, garaipena ez eskuratuta, seigarren postuan bukatu dute antzuolarrek.

Bestalde, Jon Gurutz Godoy jokalariari ebakuntza egingo diote, meniskoan min hartu zuen-eta azken neurketan. Zorionez, meniskoa baino ez du ukituta, eta lesioa uste baino txikiagoa da.

# Baserritarrek bihar egingo dute San Isidro azoka, plazan

Gaur, maiatzaren 18a, urtero azoka bezperan egiten den bertso jaialdia egingo da Torresoroa kultura etxean, 22:30ean hasita

M.A. | ANTZUOLA

Gure baserritarren zaindaria maiatzaren 15ean den arren, antzuolarrek bihar ospatuko dute egun osoko jaiarekin San Isidro eguna. Hala, goiz eta eguerdi partean artisau eta ganadu azoka izango da plaza inguruan. Ardiek, pottokek, behiek, astoek... hartuko dute herriko plaza. Eta, nola ez herriko artisauen, nekazarien, eta ganaduzaleen produktuak eta animaliak gertutik ikusi eta ezagutzeko aukera ere izango da. Hala, antzuolako bost ganaduzaleren ganadua izango da San Isidro azokan ikusgai.

Artisauei dagokienez, denetarik izango da. Batzuk antzuolarrak eta beste asko kanpotik etorriko direnak: xaboi, txirula, bastoi egileak... Feriak 09:00etan zabalduko ditu ateak 14:00ak arte. Parte hartzaile guztiei, urtero ematen zaien moduan, oparia banatuko zaie: aurten, lainoztagailu bana jasoko dute. Eguraldi onarekin Kalebarrenen, herriko plazan eta Bustinzurin izango dira postuak. Giro txarrarekin, aldiz, salmenta postuak eskolako aterpean jarriko dituzte. 12:00etan, txistulariek eta trikitilariek kalejira egingo dute.

**Lehiaketak**

Kukumarru eta Antzuola eta Antzuolarrak argazki lehiaketen sari banaketak egingo dira, Olaranen, 13:00etan.



Antzuolako artisauak eta nekazariak ere izango dira ferian. | GOIENA

**Bertso saioa**

Gaur, barikua, Torresoroan bertso jaialdia egingo da, 22:30ean hasita, Torreosoran. Hauexek bertan izango diren bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegi, Alaia Martin, Iñigo Izagirre, Aitzol Barandiaran eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzaile lanetan, Usoa Agirre antzuolarra arituko da.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

ARAMAIO

# Epaitegietan erreklamatuko du orain Udalak

## Bidea itxita egon izanak eragindako kalteengatik Udalak egindako eskaerek ez dute erantzunik jaso




Zati berrian langileek zirkulazioa erregulatu behar izaten dute tarteka. | GOIATZ ARANA

G.ARANA / J.BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak epaitegietara joko du Arrasaterako bidea urtebetez itxita egoteak eragindako kalteordainen eskaerek erantzunik izan ez dutelako. Urtebete pasa da dagoeneko erreklamazioak egin zirenetik; Arabako Aldundiak Untzilla eta Zabola auzoetatik doan errepidea egokitu zuen eta handik bueltan ibili behar izan zuten aramaioarrek urtebetez, bide zati berria eraiki arte.

Arazo hura ahalik eta azkarren konpontzeko lan egitea izan zen Udalaren egiteko nagusia orduan, eta lan hark 37.000 euro inguruko kostua izan zuela kalkulatu zuen aurreko korporazioak. Hala, kopuru hori lanak kudeatzen dituen Adif enpresa publikoari erreklamatu zitzaion. Lierni Altuna Udaleko bozeramaileak azaldu duenez, urtebete pasa ondoren, Adifek eta Sustapen Ministerioak ez diete erantzun ez Udalaren erreklamazioari eta ezta herritarrek egindako eskaerei ere.

### Herritarrak "zorabiatzen"

Izan ere, 2010eko urtarrilean AHTren 24. zutabea egiten ari zirela A-2620 errepidea itxita geratu zenetik, aramaioarrei bidaia bakoitza bost kilometro baino gehiago eta 15 minutu pasa luzatu zitzaien urtebetean –horri gehitu behar zaio segurtasuna bermatzerik ez zegoela, errepidea oso estua zelako eta oso egoera txarrean zegoelako–. Halako tramite konplikatuekin laguntzeko asmoz, Udalak erreklamazio eredu bat eskaini zien herritarrei eta eredu horretan zehazten zen, besteak beste, euro bat eskatzea egin beharreko kilometro estra bakoitzeko. Baina eskaera horiek ere ez dute kalte-ordainik jaso oraingoz; erantzuna jaso duten kasuak prozedurari hasiera eman zaiola iragartzeko edo espedienteari agiri gehiago eranstea eskatzeko izan dira.

Halaxe azaldu du Altunak: "Agiri asko eskatzen dabiltza, herritarrak zorabiatzen, eta ez dute erantzuten ea ordainik jasoko duten edo ez. Panorama nola dagoen ikusita, epaitegietara jotzea erabaki dugu, bertan gure eskubideak aldarrikatzeko". Oraindik ez dute zehaztu noiz joango diren epaitegietara, gaiaz Udalaren aholkularitza zerbitzua arduratzen delako.



**PILI BEITIA**

"Arrasaten nenbilen lanean, eta, gainera, ama eraman behar izaten genuen egunero. Oso gogorra izan zen. Ez dugu ahazten; kalte ordainak jaso arte ez dugu etsiko".



**ELIAS OTERO**

"Ondo gogoratzen naiz, oso luze joan zen. Ondo iruditzen zait Udalak epaitegietara jotzea. Bidearen itxierak eragindako kalteak ordaindu egin behar dira".

### Uema, Aldundiarekin berba egiteko gertu euskara bermatzeko

Plan Orokorra euskaraz aurkeztu zuelako Udalaren eta Arabako Diputazioaren arteko auziaren aurrean Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak hausnarketa egin, eta, besteak beste, adierazi du Aldundiarekin biltzeko gertu daudela, "halako kasuak berriro ere gerta ez daitezen". Plan Orokorra euskara hutsean bidali izana "akastzat" jotzea hizkuntza eskubideak urratzea da, Uemaren ustez. Hala, babes osoa eskaini gura die euskaraz lan egiten duten udalei.

### Plaza betetzeko deia biharko, euskal presoak etxera ekartzeko

*Herrira* mugimenduak antolatutako *Goazen plazara!* ekimena Aramaiora ere helduko da bihar. Herriko hainbat eragileren laguntzarekin, goiz osorako egitaraua prestatu dute: 10:00etan herri lasterketa egingo dute plazatik irtenda herriko kaleetan zehar –korrika, bizikletaz edo patinetean–, 11:00etan jolasak eta eskulanak egingo dituzte, 12:00etan dantzariek eta trikitalariek girotutako txikiteoa eta 13:00etan, amaitzeko, kontzentrazioa.

ELGETA

### Kantsatzekek irteera egingo du maiatzaren 26an

L.Z. | ELGETA

Eguraldi txarra tarteko aurreko hilean bertan behera geldititako mendi txangoa proposatzen du maiatzerako Kantsatzeke mendi taldeak. Ibilaldia da Pagomakurre, Axulaurko atea, Superlegor, Lekanda eta Pagomakurre —lauzpabost ordu—. Asmoa da 08:00etan Elgetatik irtetea eta eguerdi parterako bueltan izatea. Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 24ra arte. Interesatuek udaletxera jo behar dute edo *kantsatzeke@gmail.com* helbidera.

Aperribay, s.l.
*Marmoldegi eta granitoak*
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

# Asentzio eguna eta frontenisko finalak ditugu aste bukaeran

## Asentzion domeka eguerdian esango dute meza, eta finalak bihar 12:00etan jokatuko dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Domekan, maiatzak 20, ospatuko dugu Asentzio eguna Elgetan. Urtero legez ermitan meza entzuteko aukera egongo da; Angiozarko parroko Leonardo Esnaolak esango du 12:00etan hasita. Olatza baserrikoek dute ermitako giltza. Aurten, gainera, festan parte hartzeko dei bateratu egin dute Elgetako udalak eta Angiozar bailarako batzarrak. "Asentzioko jaian parte hartzera gonbidatu gura ditu gure herrietako biztanleak. Asentzioko auzotar eta Elgetako Gaztetxeari eskerrak eman gura dizkogu jaia antolatzearren", adierazi dute.

### Gaztetxeak jana eta edana

Gaztetxeak antolatu ohi ditu urtero Asentzio eguneko ekitaldiak. Aurten, Asentziora oinez igotzeko dei egin dute; jakitera eman dutenez 11:30ean abiatuko da taldea Herriko plazatik. Jana eta edana ere ipiniko dute. Taldean bazkaltzeko dei ere egin dute. Proposamena da nork bere bazkaria etxetik eramatea.

### Bisita gerra gunera

Asentzio egunarekin, bestalde, Intxortako gerra gunera bisita gidatua egiteko aukera egongo da. 10:00etan abiatuko da taldea Espaloiko Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik. Interesatuek aurrez eman behar dute izena 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 telefono zenbakietara deituz edo *turismo@debagoiena.net* helbide elektronikora idatziz.

### Bihar frontenis finalak

Bezperan fronteniseko finalak jokatuko dira. Txapelketa mistoko finala jokatuko dute lehenengo; 12:00etan hasita. Aurrez aurre izango dira Idoia Elkoro-Enrike Elkoro eta Idoia Serna-Asier Osoro bikoteak. Jarraian gizonezkoen finala jokatuko dute. Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro bikotea eta Iban Retolaza-Xabier Ubera bikotea izango dira aurrez aurre.



L.Z.

## Bolatokia prest dute biharko

80 bat bolo jokalari espero dituzte bihar, zapatua, Elgetako bolatokian, izan ere Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako 8. jardunaldia jokatuko dute 17:00etan hasita. Guztia prest egon dadin lanean ikusi ditugu asteon Sebastian Arantzabal eta Xabier Ortuzar. Zuloak tapatzen, lurra berdintzen eta bolatokia ureztatzen aritu dira.

## OHARRAK

**OSKORRI ESPALOIAN**

Gaur, 22:30ean, *The Pub Ibiltaria* egingo du Oskorrik Espaloian. Sarrera 10 euro da; bazkideendako zazpi.

**ELGETA ZERO ZABOR**

Herri hondakinen kudeaketaren inguruan proposamenak entzun eta irtenbideak bilatzeko taldea osatzeko deia. Batzar irekia deitu dute hilaren 25erako, 19:00etan, kultura etxean.

**ELKARRETARATZEA PLAZAN**

*Goazen plazara kartzelak husteko!* ekimenaren harira bihar, zapatua, elkarretaratzea Herriko Plazan, 13:00etan.

**HITZALDIAK ESKOLAN**

Guraso Elkarteak antolatuta bi hitzaldi egingo ditu Esther Martinez pedagogoak; *Diziplina positiboa* hilaren 24an eta *Afektibitatea eta sexualitatea* hilaren 31n. Biak 19:00etan.

**Eugenio Otsoa** | Leintz Gatzagako alkatea

# "Ehizaren gaineko plana egingo dugu, eta postu gehiago sortuta proba egitea da asmoa"

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Mexikon egin ditu azken lau urteak Eugenio Otsoak lan kontuengatik. Iaz ekainean alkatetza hartu eta Mexikora itzuli behar izan zuen, baina urtarrila ezkero bueltan da eta alkate lanak bete-betean hartuta ditu.

**Behin betiko etorri zara Mexikotik?**

Abuztuan beste bueltatxo bat emango dut, baina besterik ez. Oraindik lanean nago Antzuolako Elayn, baina Santo Tomas ingurutik alkatetzako ardurak bakarrik izango ditut.

**Hainbat agintalditan izan zara alkate eta zinegotzi; orain, udal jardunera itzuli zarenean, zelan topatu duzu Gatzaga?**

Aldatuta, noski. Bost urteotan hainbat aldaketa izan ditu: autobidea egin dute; ura bideratu da goiko aldera; jende berria etorri da; finkatu egin dira turismo bulegoa eta gatz museoa; jatetxeak suspertu dira… Baina herritarrak kezkatuta daude autobidea dela-eta jende gutxiago dabilelako.

**Lantalde gaztea duzu alboan Udalean; nola moldatzen zarete?**

Iaz apirilean etorri nintzen Mexikotik herritarrak suspertzeko hauteskundeei begira, kanpotarrak etor ez zitezen. Eta suspertu behar horretan neu ere bertan *jausi* nintzen. Gazteak animatu ziren eta talde benetan polita osatu dugu. Neure esperientziak eta egungo gazteen jakituriak bat egin dute.

**Eztabaida politikorik izan ez arren zuen artean gustuko ez diren erabakiak hartu beharko dituzue, ala?**

Bai, arazoak beti daude: baserritar baten eskaera dela; taberna baten baimen eskaera… Geure artean lau baldintza jarri genituen, eta dira: gardentasuna; konfiantza; errespetua; eta ahal den guztietan adostasuna lortzea. Eta orain arte halaxe izan da.

**Ur depositu berriaren lanak zein egoeratan daude?**

Etorlurkoekin elkartu gara, eta jabetza hartzeko akordioa sinatu. Depositua gertu dago eta ura Gatzagain inguruan dagoela esan genezake. Gaztainuzketako mendi etxeetara iritsi da, eta orain, baserrietaraino bideratzeko falta diren azpiegiturei heldu beharko diegu.

**Horretarako dirurik baduzue?**

Aurrekontuan ezin izan genuen partidarik sartu, baina urte erditik aurrera hausnarketatxoa egin beharko dugu eta nondik atera dirua erabaki. Hori bai, aurrekontua oso estua da, 380.000 eurora ez da iristen, eta ondo pentsatu beharko dugu.

**Depositu horrek Arlaban gaineko plan bereziari ere eragiten dio; plan hori zein puntutan dago?**

Plana eginda dago, eta onartuta; orain, ez dugu presarik, baina geratu barik hausnarketa estrategikoa egin behar dugu: herri galdeketak egin; zein baliabide dugun; nondik atera dirua…



Eugenio Otsoa alkatea, *Harira* saioaren une batean. | ENEKO AZKARATE

## "Bost urteotan asko aldatu da herria: autobidea, jende berria..."

**Zeintzuk dira harako asmoak?**

Mendia, ehiza, ortuko lanekin zerikusia duten aktibitateak… Eta gatz fabrikaren gaineko planak epe luzera begirakoak dira, Gesaltzakoaren (Araba) pareko zerbait egiteko-edo.

**Eta Jakion kontserbagintza enpresak ere bertan izango du lekua?**

Bai, hori da asmoa, baina orain, geldialdian dago; egoera ekonomikoa dela-eta hausnarketa egin behar dugu zelan eutsi egoerari jakiteko. Egun, lau lagun daude lanean eta 37 baserritatik jasotzen dituzte barazki eta fruituak.

**Turismoa bultzatu gura duzue, baina zeintzuk dira asmo zehatzak?**

Turismo bulegoa daukagu Labidean Aitziber Gorosabelek kudeatuta, eta bertako batzordean jende gehiago sartu gura dugu, indartzeko. Hiru baliabide ditugu turismoaren inguruan: Dorletako santutegia; gatz fabrika; eta mendi ibilbideak: Hiruerreketa; Maroto; Atxorrotzera… Horrekin batera, gastronomia indartu gura dugu. Eta hori guztia teknologia berriekin bultzatu. Izan ere, oso pozik gaude Aste Santuan jendea etorri delako gurera.

**Goierri auzoan dagoen sasoi bateko trenbidea konpontzeko asmoa zelan dago?**

Zati hori bidegorri moduan onartuta dago, Begiñarru baserria eta San Martin ermita arteko zatia. Lursail hori, baina, jausten dabil, urak gaizki hartuta daudelako, eta pika batzuk jartzeko inbertsio bat egiteko asmoa dago konpondu ahal izateko. Gero, bidegorria ez dakigu noiz iritsiko den, baina Aldundiak itxaropen politak eman dizkigu.

## "Pagadiak eta antzekoak birsortzen gabiltza baso ahulik izan ez dadin"

**Hortaz, bidegorria Gatzagaraino iristeko asmoa dago.**

Bai, eta guk ilusioa dugu. Guretako oso garrantzitsua da turismoari begirako eskaintza polita egiteko, handik Gasteizeraino joan ahal izango delako. Ez dakigu zein epetan, baina lehenago edo geroago iritsiko da.

**Gatz museoa zeuk sortu zenuen; esperotako emaitzak jaso dira?**

Bai, helburua eraikina teilatuarekin izatea zen bere garaian, luzaroan eusteko zutik. Aurrera begirako asmoa litzateke, ilusioz esanda, 2.000 kilo inguru gatz ateratzea, orain urte batzuk legez. Egun, museorako beste bakarrik ateratzen da, 200 bat gramo.

**Zelan daude ehiza kontuak?**

Orain arte geuk kudeatu eta adjudikatu ditugu ehiza postuak, eta, gehienetan, Gipuzkoako Federazioarekin konpondu izan gara. Egun, plan tekniko bat egitera derrigortuta dago Udala, 4.000 euroko kostua duena. Gure asmoa da proba bat egitea postu gehiago aterata; izan ere, diru sarrera garrantzitsua da guretako ehiza, eta ez dugu besterik.

**Lurraren erabilpenari probetxu handiagoa atera gura diozue.**

Bai, pagadiak eta antzekoak birsortzen gabiltza programa baten barruan, baso ahulik sor ez dadin. Izan ere, oreka behar da aprobetxamenduaren eta birlandatzearen artean. Bestetik, baso batzuk ganaduarendako bazka bihurtu dira, eta horiek zaindu egiten ditugu. Eta hirugarren ortuak daude; gure hausnarketa estrategiko barruan herritarren ideiak jaso gura ditugu eta zer egin erabaki: soja, txakolina… Jendea gertu balego kooperatiba txiki bat osa daiteke, lurra badago eta.

**Eta zeintzuk dira baserrietako premia nagusiak?**

Laguntza behar dute edozertarako, bide hobeak behar dituzte, esaterako. Hala ere, galdeketa bat egin beharko genuke zein behar dituzten jakiteko.

## HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

### Orain dela bi urte inguru zundaketak egin ziren herrian; emaitzarik?

"Lekuko batzuk jarri ziren orduan eta jarraipena eginda ondorio batzuk atera dira. Egonkortasuna lortu da, nahiz eta pilotalekua, tximinia dagoen leku ingurua, mugitu. Ondorioetako bat da Gatzagako lurzoruan ura dagoela, ur dezente. Edozelan ere, ezin dut askorik esan, ez dakit–eta zehatz azterketa horrek dioena".

### Gatz museoan dagoen gurpilarekin argindarra atera daiteke?

"Gure hausnarketa estrategikoren barruan sartuta daukagu kontu hori. Ez dakit sistema egokia izango den argindarra ateratzeko… Baina jakinekoa da lehorte garaian, hiru edo lau hilabetean, ur gutxi etortzen dela errekatxo horretan. Hala ere, aztertu beharko genuke turbinaren bat jarrita zelako errendimendua lortuko genukeen".

### Semaforoekin pozik egon arren, errepidea zabaltezko asmorik?

"Herritarrak dioen legez, egia da semaforoek arriskua ekiditen dutela herriko sartu eta irteerak egiteko orduan, baina, era berean, errepide horretako autoen zirkulazioa moteldu egiten dute. Horregatik, hobe litzateke errepidea zabaldu eta bidegurutzeetan sortutako arriskuak semaforo barik ekidin ahal izatea".

### Dorletako santutegian txirrindularitzaren museorik izango da?

"Agintaldi honetan aurreikusita daukagu, baina ez dakit noraino ailegatu ahal izango garen. Egia esan, museo horren zati bat eginda dago, txirrindularien kamisetak, bizikletak… bertan daude, baina hori baino gehiago behar da. Lekua egokitu beharra dago, eta, horretarako, ea Elizaren laguntza jasotzen dugun".


Mikel Gonzalez, aste barruan, Arrasateko erdialdean egindako erretratuan. | XABIER URTZELAI

FUTBOLA

**Mikel Gonzalez** | Realeko jokalaria

# "Estutasun barik amaitu dugu, eta etxeko jendeaz; urte positiboa izan da"

- Arrasatekoak aulkian hasi zuen denboraldia, eta titular amaitu
- Kontratua berritu du, eta baita kapitainaren besokoa jantzi ere

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Oporrak hartu aurretik gaur izango du Mikel Gonzalezek (Arrasate, 1985) Realarekin azkeneko lan-saioa. Txuri-urdinek liga amaieran larritasun barik, Valentzia talde indartsua mendean hartuta eta Mikel Aranburu kapitainari merezitako omenaldia eginda amaitu dute. Trantsizio urte batean eta harrobiko jokalariz osatutako taldea izanda, ondo neurtu behar da exijentzia maila. Horretaz eta beste gauza askotaz jardun zuen Arrasatekoak *Harmailatik* saioan.

**Liga amaierara etxeko lanak eginda iristeak balio handia du.**

Pentsa domeka arratsaldean zelako tentsio momentuak bizi izan zituzten hainbat futbol zelaitan. Guk bizi izan dugu egoera hori, eta badakigu zer den. Iaz larriago ibili ginen, eta aurten hobeto iritsi gara liga amaierara. Eskertzen da lasaitasun hori, bai.

**Vila-real taldeko presidente Roig-ek ez zuen batere aurpegi onik...**

Azken baten, futbol taldeak enpresak dira, eta enpresa horien atzean interes handiak egoten dira... kirol arloan, ekonomikoan, prestigioari dagokionez...

**Zapatuko partidua gogoangarria izan zen, Anoeta beteta, garaipena, eta Aranbururi omenaldi ederra.**

Sekulakoa izan zen, oso hunkigarria, nik ez dut sekula halakorik ikusi. Realean jokalari handiak egon dira, baina zaleek zerbaitengatik erantzun zuten modu horretan, bazekitelako taldearendako jokalari berezia izan dela. Realeko harrobiaren eredu izan da Mikel Aranburu.

**Dena dela, futbola neurrigabea ere bada. Duda barik, inork halakorik merezi bazuen Mikel Aranburu da. Baina 30.000 lagun zutik, txaloka, bere izena oihukatzen... Futbolarekiko ikuspuntu kritiko batetik ematen du zer pentsatu; esan nahi dut ez duela hiesaren txertoa asmatu.**

Bai, ados nago. Gaur egun badakigu futbolak ze indar duen, zelako oihartzun handia, zenbat diru mugitzen duen eta zenbat jarraitzaile dituen... Ikustea baino ez dago zenbat partidu ematen diren telebistaz eta zenbat egunkari-orri idazten diren. Alde horretatik, nik uste dut jendeak Mikelengan beste balio batzuk ikusi dituela; harekin sei urte egin ditut, eta niretako eredu izan da. Beste jokalari batek ez luke erantzun bera jasoko.

**Esan dugu lasai amaitu duzuela denboraldia, baina oso txarto hasi zineten.**

Bai, uste dut zazpi partidu egin genituela irabazi gabe eta jaitsiera postuetan egon ginen. Baina Betisen kontrako garaipenaren ostean –Iñigo Martinezen gol ikusgarriaz– emaitza onak batzen hasi ginen, eta ordura arte falta izan zitzaigun erregulartasuna eta konfiantza izan genituen. Alde horretatik, nire ustez denboraldi ona izan da, ez dugu iazko larritasunik pasa, etxeko hainbat gaztek egin dute debuta, maila ona erakutsi dute eta beste urtebeteko esperientzia hartu dugu maila gorenean. Gainera, iaz partidu asko erraz galdu genituen, baina aurten lehiakorrago izan gara, baita galdu dugunean ere. Urte positiboa izan da.

**Aipatu dugu Betisen kontrako partidua izan zela denboraldiko une delikatuetako bat. Kopan, Mallorcako kanporaketa izan zen bestea.**

Bai, partidu hura telebistaz ikustea egokitu zitzaidan, eta oso gorputz txarrarekin geratu nintzen. Hurrengo egunetan oso ezkor ikusi nuen taldearen inguruko giroa. Eta begira aurreko urteotan zelako momentu gogorrak bizi izan genituen: kategoriaz jaitsi ginenekoa, Mendizorrotzan igotzea lortu ez genuenean... Eta kasu haietan ez nuen halako ezkortasunik igarri. Egia da, baina, kopako kanporaketak gainditzen joan eta jendearengan ilusioa piztu genuela, etxean aldeko emaitza lortu genuela eta Athletic zegoela final-laurdenetan zain... Horrek guztiak eragina izango zuen.

**Arlo pertsonalean, hasieran ez zinen Montanierren begikoa.**

Ez, lehenengo jardunaldietan ez nuen jokatu, baina, halakoetan esan ohi dugun moduan, gogor entrenatzen jarraitzea behar-beharrezkoa da, taldean konpetentzia izatea osasungarria delako, eta zure ordua iristen denean gertu egoteko.

**Txarto hasi zinetelako-edo, Montanierri kosta egin zaio jendearen konfiantza lortzea. Ez dakit justua den.**

Sarri egin didaten galdera da, eta guk ere antzeman dugu hori Anoetan; nik ere ez daukat erantzunik. Zuzendaritzak denboraldi hasieran ezarritako helburuak ondo bete ditu eta pazientzia beharrezkoa da proiektuak egonkortzeko. Harrobiko jokalarien aldeko apustua egin du, eta lehen esandako moduan, lehiakor izan gara denboraldian zehar.

**Denboraldi berezia izan da zuretako, kontratua berrituta, kapitainaren besokoa jantzi duzu...**

Bueno, kapitain izatearena anekdota hutsa izan zen. [Barre] Aranburu, Prieto, Ansotegi eta Bravo dira kapitainak, eta haietako inor ez zegoenez, eta gu ere adinean aurrera goazenez, bada, niri egokitu zitzaidan. Eta bai, berezia izan zen. Eta bestalde, kontratua berritzearena ere oso garrantzitsua izan da, 2017ra arte Realean egongo naizelako.

**Egungo zuzendaritzak egonkortasuna lortu du, jokalariondako ere proiektu interesgarria da hau.**

Aurten hainbatek berritu dugu Realarekin kontratua: Zurutuzak, Prietok, Elustondok, Agirretxek... Horrek erakusten du oinarri polita egiten dabiltzala lorpen handiagoak lortu ahal izateko.

**Gaiz aldatuz... prentsan titular onenetako batzuk futbol jokalariek eman dituzte, baina sare sozialen bitartez. Zure kasuan?**

Badut Facebooka [barre], baina ez ditut horrenbeste jarraitzaile. Aspaldiko lagunekin egoteko erabiltzen dut, besteak beste.

**Orain, baina, sare sozialen bidez aireratzen dira jokalarien bizitza pribatuko arlo asko, esaterako, hainbat taldekide Madrilen parrandan geratu zirenekoa.**

Bai, eta Interneten askok edozer esaten dute, gainera, anonimotasunean gordeta. Baina gure egunerokoan argi izan behar dugu pertsonaia publiko garela, eta baita Realeko ordezkari ere.

**"Egunerokoan argi izan behar dugu Realeko ordezkari garela"**

**"Aranburuk hainbat balio erakutsi ditu, eta horregatik izan du halako agurra"**

vibike bikes & triathlon
Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.
Parking propioa. 400 m²ko erakusketa zure zain.

Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com


Zabaletaren auto barruko irudiak, *Harmailatik*-en astelehenean. | JOSETXO ARANTZABAL

AUTOMOBILISMOA

# Errepide bustiari aurre egin behar, Gorlan

X.U. | BERGARA

Udanako igoeran gertatu bezala, badirudi bihar, zapatua, pilotuek –74k eman dute izena– errepide bustiari egin beharko diotela aurre. Udanan etxean korritzen zuen David Ardions izan zen azkarrena, baina biharko Zabaleta da faborito. Euritan Bergarakoak ezingo dio Lola BMWari zuku dena atera, baina Udanako errepidea bustita dagoenean oso labainkorra da. Gorlaracing taldeko ordezkari Xabi Zabaletaren esanetan, berriz, "Gorlakoa asfalto zakarragoa da, eta ura hobeto xurgatzen du". Dena dela, monoplazen kategorian Zabaletaz gain beste zazpi lagunek eman dute izena, horrenbestez, saltsa polita egongo da. Horrekin batera, antolatzaileek berriro azpimarratu nahi izan dute ezinbestekoa dela lasterketako komisarioei kasu egitea, eta errespetuz jokatzea.

**Monoplaza barrutik**

Astelehenean *Harmailatik* saioan (21:30) Udanako igoeran protagonista izan ziren Aitor Zabaletaren eta Ruben Nogueirasen –irabazlearen, David Ardionsen baimenaz– auto barrutik jarraituko dugu lasterketa, bi pilotuak hiruna kamara aldean dituztela grabatuko ditugu-eta (21:30).

MENDI LASTERKETA

## Oihana Kortazar Zegaman txapela defendatzera

X.U. | ARRASATE

Domekan egingo dute Zegama-Aizkorri mendi maratoia eta Oihana Kortazar elgetarrari iazko garaipena defendatzea tokatuko zaio: "Motibazio berezia daukat, iaz espero gabe irabazi nuen, baina beldur apur bat ere bai, lesio txikiekin nabil-eta bueltaka. Halakoetan jendearen animuak izugarri eskertzen dira, baina norberak nahi eta ezin izatea sentsazio txarra izaten da. Eta irabazi ezin badezaket ere, podiumean egoten saiatuko naiz".

Iaz 23 garaipen lortuta aurten ere ondo hasi du denboraldia, Espainiako Txapelketa irabazita. Elgetakoaz gain ibarreko beste atleta asko egongo dira irteera puntuan.


Oihana Kortazar. | A.TXINTXURRETA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**GAZTEAK, FEDERAZIO KOPA**
Ariznabarra-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Ariznabarra.

**EMAK. FEDERAZIO KOPA**
Mondra-Añorga
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aloña Mendi-Oiartzun
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Berio-Bergara
Zapatua. 17:30. Donostia.
Aretxabaleta-Mondra
Domeka. 16:30. Ibarra.

**ERREGIONALA, IGOERA**
Mondra B-Hernani B
Domeka.15:30. Mojategi.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
Aretxabaleta C-Zestoa B
Zapatua.17:30. Ibarra.

**GAZTEEN OHO. IGOERA FASEA**
Sanse-Bergara
Zapatua.17:00. Donostia.
Aloña Mendi-Ostadar
Zapatua. 16:30. Astigarraga.

**GAZTEEN OHO. KOPA ETA JAI.**
Mondra-Real Union
Zapatua.17:30. Mojategi..

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**
Ostadar-Arizmendi
Zapatua.15:30. Michelin.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
EHU Campus Alava-Eskoriatza
Domeka. 17:30. Gasteiz.

**GIPUZKOAKO BIGARREN M.**
Aretxabaleta-Irudek
Gaur. 20:30. Almen.

**KADETE MUTILAK**
Anoetako Ikastola-Arizmendi
Zapatua. 16:00. Donostia.

**INFANTIL MUTILAK**
Erain-Arizmendi
Zapatua. 10:. Donostia.

**ESKUBALOIA**

**IGOERA FASEA**
Ford Mugarri-Valladolid
Zapatua. 19:00. Elx.
Elx-Ford Mugarri Arrasate
Domeka. 11:00. Elx.

**GIPUZKOAKO KOPA**
Eibarko Haritza-Izarraitz Aloña
Zapatua. 17:00. Eibar.
Soraluce BKE-Urnietako
Domeka. 12:15. Labegaraieta.

**SENIOR NESKAK, KOPA**
Aloña Mendi-Aiala
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**GAZTEAK, KOPA**
MU Lingua Aloña-Pulpo
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Elgoibar-Talleres Chapime
Zapatua. 17:30. Olaizaga.
Tekniker Eibar-Bergara
Zapatua. 18:30. Ipurua.

**SASKIBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-La Salle
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**GAZTEAK PARTAIDETZA**
Aloña Mendi-Autoesc.Lagunak
Zapatua. 12:00. Zubikoa.
MU A - Soraluce Bergara A
Zapatua. 12:00. Musakola.

**KADETE GIZONEZKOAK**
Aloña Mendi-Zast Zarautz
Zapatua.12:00. Zubikoa.
MU B-Soraluce Bergara B
Zapatua. 10:00. Musakola.

**MENDI LASTERKETAK**

**ZEGAMA-AIZKORRI**
Domekan. 09:00. Zegaman.

**AUTOMOBILISMOA**

**GORLAKO IGOERA**
Zapatua. 15:00. Bergaran.

**MENDI BIZIKLETA**

**MUNDUMIRAKO IRTEERA**
16:00etan, Eskoriatzan.

**PILOTA**

**BERGARA HIRIKO FINALERDIAK**
Asteartea, maiatzak 15, 19:30ean udal pilotalekuan.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
**Egubakoitza, Bergaran:** 19:00etan hasita, lau norgehiagoka.
**Egubakoitza, Eskoriatza**
Zapatua. 19:00. etan hasita, bi norgehiagoka.
**Zapatua, Aretxabaleta**
Zapatua. 18:00. etan hasita, bi norgehiagoka. .

**HERRI ARTEKO TXAPELKETA**
**Domeka, Arrasaten:** 10:30ean hasita, Arrasateren eta Amezkeraren arteko kanporaketa partiduak.


AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI


23.900€-tik aurrera
> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

• Ford Focus 18.500 €
2012 | Diesela | KM 0
• Ford Focus 17.500 €
2012 | Diesela | KM 0
• Ford Transit 21.700 €
2012 | Diesela | KM 0
• Ford Fiesta 10.500 €
2012 | Diesela | KM 0
• Ford Fiesta 1.3 | 70 6.300 €
2008 | Gasolina
• Ford Focus TDCI 110 12.500 €
2011 | Diesela
• Toyota Land Cruiser Td 163 Cv 8.900 €
2.000
• Citroën Picasso TD 92 ZP 8.500 €
2.007
• Ford S-Max Tdci 143 ZP Km0 26.800 €
2.012
• Ford Mondeo Tdci 130 ZP 8.300€
2.007


16.000 €
> Renault Kangoo Dynamique 110 DCI
2012 | Diesela | Gris argia | 0 km

RENAULT AUTOBERRI
San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

MERKEALDIAK
• Renault Megane S.Tourer 130 DCI 15.950 € FINANTZATUTA
2010 | Diesela | Berdea | 26.000 km
• Renault Clio 85 DCI 8.950 € FINANTZATUTA
2010 | Diesela | Grisa | 21.000 km
• Renault Clio G.Tour 90 DCI 12.450 € FINANTZATUTA
2011 | Diesela | Urdina | 11.000 km
• Renault Megane Dyn 105 DCI 13.700 € FINANTZATUTA
2010 | Diesela | Urdina | 25.000 km
• Renault Latitude 150 DCI 21.150 € FINANTZATUTA
2011 | Diesela | Grisa | 390 km
• Renault Megane II 130 DCI 6.500 €
2007 | Diesela | Beltza | 140.000 km
• Opel Astra GTC 110 CDTI 10.500 €
2009 | Diesela | Gorria | 43.000 km
• Renault Laguna Expr 110 DCI 8.000 €
2007 | Diesela | Urdina | 70.000 km
• Renault Scenic 130 DCI 8.250 €
2006 | Diesela | Berdea | 143.000 km


20.750 €
> Citroën DS4 1.6e-HDi Design STT
2011 | Diesela | Urdin iluna | 2.000 km

CHAPIME
CITROËN
Debagoieneko Kontzesionario ofiziala
San andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

• Citröen Berlingo Com. 1.6HDI 90 SXMult. 13.500 €
2011 | Diesela | Gris argia | 12.991 km
• Citröen Berlingo Com. 1.6HDI 110 SXMult. 13.200 €
2011 | Diesela | Gris iluna | 30.006 km
• Citröen C3 1.4HDi Attraction 9.999,99 €
2011 | Diesela | Gris argia | 15.500 km
• Citroen C4 1.6HDI Cool 110 FAP 10.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 47.634 km
• Citroen C4 G.Picasso 1.6HDI Seduction CMP 17.000 €
2011 | Diesela | Morea | 28.500 km
• Citröen C5 2.0HDI Business 16.500 €
2010 | Diesela | Gris argia | 36.000 km
• Ford Focus 1.8 TDCi Trend 100 4.300 €
2004 | Diesela | Gris argia | 184.900 km
• Citröen DS3 eHdi SPECIAL EDITION 90 zaldi 17.200 €
2012 | Diesela | Txuria/sabai beltza | 1.750 km
• Citröen JUMPY 20 HDi COMBI 120 zaldi 16.000 €
2012 | Diesela | Txuria | 28.715 km

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FARMAZIA

**AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL**
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

# Zapore eta kolore festa gurean

▸ Musika, antzerkia, kale-animazioa, gastronomia, artisautza azokak eta beste, asteburuan

▸ Barikutik domekara bitartean kanpatzeko aukera egongo da Eskoriatzan, Huhezin

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Zortzigarrenez, Debagoienean esanguratsu bilakatu den festa ospatuko da. Aste bukaera borobila aurretik, ez da falta izango mundu osoko doinu, kolore eta zaporerik Leintz Gatzagako eta Eskoriatzako kaleetan:

**Richard Buckner**

Kaliforniatik Gatzagako plazaraino ekarriko ditu contry alternatiboaren doinuak Richard Buckner abeslari eta gitarra-jotzaile amerikarrak. Diskoa kaleratu berri du, *Our Blood*, eta zuzenean entzuteko aukera izango da zapatuan Gatzagako plazan. Gaur egun Brooklynen bizi den musikariak country alternatiboari bultzada eman dio. Horren eredu dira kolorez betetzen dituen gitarra interpretazioak.

**Ibilbideak eta bisita gidatuak**

Debagoieneko turismo bulegoen eskutik, maiatzaren 19an eta 20an lau mendi ibilbide egiteko aukera izango da. Parte hartzeko, izena eman behar da aurrez: 902 18 14 71, 943 71 89 11 eta 943 79 64 63. Helbide hauetara ere idatz daiteke: *turismo@debagoiena.net* eta *info@mundumirafesta.com*. Hauexek dira ibilbideak: maiatzaren 19an, Eskoriatza-Bolibar-Atxorrotz (738 metro)-Makatzgain (1.002 metro)-Urdingain (992 metro)-Leintz Gatzaga. Irteera: 09:00etan. Mendiak eta Herriak antolatuta.

Maiatzaren 20an: Eskoriatza -Asensiomendi-Kurtzeta-Jarindo -Leintz Gatzaga. Irteera: 09:00etan. Eskoriatzako Kirol Taldeak antolatuta. Maiatzaren 20an: Elgetako gerra zibileko ibilbide tematikoa (aurrez eman behar da izena). Maiatzaren 20an, txango familiarra: Uretsen bidea, Aretxabaletan. Familiendako ibilaldia da eta horretan ere aurrez izena eman behar da, 902 18 14 71 zenbakian. Mendiriz mendi taldeak gidatuko du. Domekan bertan, Bergarako gune historiko monumentalaren bisita egiteko aukera ere egongo da.

Esan behar da Leintz Gatzagako gatz museoak zabalik izango dituela ateak aste bukaeran; eta aukera egongo da Eskoriatzako Ibarraundi museoa eta Zubiateko Labea ere bisitatzeko.

Oñatin, aldiz, zapatuan, Arrikrutzen espeleo abentura egin nahi dutenek edota Sancti Spiritus Unibertsitatean eta San Migel parrokian bisita gidatua egin nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, eta erreserba egin.



Richard Buckner abeslari eta gitarra-jotzaile kaliforniarra. | NODEPRESSION.COM

## MUNDUMIRA FESTAREN EGITARAU ZABALA

**ASTEBURU OSOA**

**ESKORIATZA**

V. Autokarabana kontzentrazioa (tren geltoki zahar ondoan).

**EGUBAKOITZA, 18**

**LEINTZ GATZAGA**

**19:00** Buffet Slow Food & Musika.



**ESKORIATZA**

**19:00** Azoken irekiera: Mendia eta senderismoa, Artisautza eta Gastronomia. GGKE-Elkartasun foroa.

**21:00** Kutxa kultur zirkuitua. Plazan.

**22:00** Muturbeltz, Euskal Herria.

**ZAPATUA, 19**

**LEINTZ GATZAGA**

**11:00** Argazki txango didaktikoa *Euskal Herria* aldizkariko argazkilari Alberto Muroren eskutik.

**11:00-14:00** Umeen gunea: Irrien Lagunen Kluba, puzgarriak eta jolasak. Inguru abentura: kutxen dorrea, ohe elastikoa, arku jaurtiketa, salckline... Xaboien eta txokolatezko taloen tailerrak.

**11:00-14:00** Alluitz Natura. Idiazabal gazta elaborazioren erakustaldia.

**11:00-20:00** Produktu ekologikoen eta slow food gastronomiaren azoka. Erakusketak, hitzaldiak, dastaketa... Euskal txerriaren produktuak.

**11:00** Marrazki Lehiaketa: erakusketa eta sariak.

**12:00** Irrien Lagunekin kantu eta dantza.

**13:00** Hitzaldia: *Elaboración del chocolate artesanal*, Lleidako Xabi Rodriguez.

**14:00** Herriko Plazan, Richard Buckner Kaliforniako abeslari eta gitarra-jotzailea.

**17:00** Ekialdeko dantzak, Raks Al Haia konpainiaren eskutik plazan.

**17:00-20:00** Umeen gunea: Irrien Lagunak, puzgarriak eta jolasak; Inguru Abentura; xaboien eta txokolatezko taloen tailerrak. Sendavivaren *alfonbra magikoa*, frontoi inguruan.

**ESKORIATZA**

**09:00** Ibilaldia Eskoriatza-Bolibar -Atxorrotz-Makatzgain-Urdingain-Leintz Gatzaga.

**11:00** Kultur ibilbideak Debagoienako turismo bulegoen eskutik. Mundumira elastikoaren aurkezpena.

**12:00** Kale antzerkia plazan: *La Troupe de la rue*. Trizikloaz, trikimakoaz, bola erraldoiaz, jirafa monozikloaz.

**13:00** *Gafieira Miuda*, Brasilgo musika plazan.

**16:00** BTT zeharkaldia Eskoriatzatik Gatzagara.



**17:00-19:00** Euskorleans Dixie Band Fanfarrea.

**18:30** Ikus-entzunezkoa: *Hacia Oriente en Autocaravana*, kultura etxean.

**19:30** Kilema Madagaskar: kontzertua, sustraidun musika lantegia, malgatxeen erritmoak...

**21:30** Kataluniako La Pegatina agertokian.

**24:00** Esne Beltzaren kontzertua agertokian.



**DOMEKA, 20**

**LEINTZ GATZAGA**

**09:00** Ibilaldia: Eskoriatza -Asensiomendi-Kurtzeta -Jarindo-Gatzaga.

**11:00** Argazki txango didaktikoa *Euskal Herria* aldizkariko argazkilari Alberto Muroren eskutik.

**11:00-14:00** Umeen gunea: Irrien Lagunak, puzgarriak eta jolasak; Inguru Abentura: kutxen dorrea, ohe elastikoa, arku jaurtiketa, salckline. Xaboien eta txokolatezko taloen tailerra. Sendavivaren *alfonbra magikoa* frontoian.

**11:00-14:00** Idiazabal gazta elaborazioren erakustaldia.

**11:00-14:00** Ekoferia.

**11:30** *Malabaracirco*-ren erakustaldia. Plazan.

**12:00** Hitzaldia: *Slow food mugimendua*, Juan Manuel Garmendiaren eskutik.

**13:00** Anari, plazan.

**ESKORIATZA**

**10:00** Txango familiarra. Irteera: Eskoriatzako info-gunean.

**11:00** Azoken irekiera.

**11:00-14:00** Bigarren eskuko feria Santa Marina plazan.

**12:00** Batukada.

**12:30** Eusko labeldun txahal bat erreko da.

**13:00** Senzala Euskadirekin capoeira emanaldia.

**16:00** Batukada.

**17:00** Atama Kenpo taldearen erakustaldia.

**18:00** Bizardunak plazan.

## Autobusak

Maiatzaren 19an eta 20an autobus zerbitzu bereziak egongo dira Leintz Gatzagara eta Eskoriatzara joateko. Mankomunitateak zerbitzuok erabiltzea gomendatzen du, ez delako aparkatzeko gunerik egokitu. Prezioari dagokionez, bidaia bakoitza 1,70 euro izango da –0 eta 12 urte artekoek doan–, baina Eskoriatza eta Leintz Gatzaga artekoa salbuespena da: joan-etorria kobratuko dute 1,70 euro. Gainontzeko bidaiak 1,70 euro kobratuko dituzte, eta bidaiaren txartela gordetzea komeni da; izan ere, Eskoriatzara joateko autobusa hartuz gero eta ondoren Leintz Gatzagara igo nahi izanez gero, ibilbidearen azken zati hori ezer ordaindu gabe egin ahal izango da, gidariari txartela erakutsita. Antolakuntzatik aurreratu dutenez, Mundumirako autobusak behar bezala adierazita egongo dira eta autobusotan ezin izango da txartel bakarra erabili. Kontsultatu hemen: *www.pesa.net*. Gogora ezazue debalde akanpatzeko aukera dagoela 18tik 20ra, Huhezi fakultatean.


Oskorriko Natxo de Felipek gidatuko du saioa. | GOIENA

# Herritarrak protagonista Oskorriren emanaldian

Natxo de Felipek gidatzen duen taldearen saioa gaur izango da, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ELGETA

Kantuan egin gura duenak aukera paregabea izango du gaur Elgetako Espaloia antzokian; izan ere, Oskorri & The Pub Ibiltaria etorriko dira Elgetara. Euskal musika tradizionala entzun eta era berean kantuan egiteko aukera egongo da.

Natxo de Felipek gidatzen duen taldeak errepertorio zabala ekarriko du Elgetara. Kontzertu bizi eta berezia izango da. Kantuan egin gura duten ikusleak taldeko partaideekin batera ekitaldiaren protagonista bilakatuko dira. Gainera, instrumenturen bat jo gura dutenek ere aukera izango dute taula gainera igotzeko.

### Herritarrek parte hartuko dute

Oskorrik euskal musika tradizionaleko hainbat abesti eskainiko ditu, eta horiekin batera baita abesti berriak ere. Flauta, oboe, klarinete, saxo eta beste hainbat instrumentutarako prestatu dituzte abesti berriak. Datozen urteetan material ezinbestekoa izango dira abestiok Euskal Herriko bandetan eta musika eskoletan. Bada, nabarmentzekoa da herritarrek parte hartuko dutela gaur.

Alde batetik, parrokiako abesbatzak abesti bat kantatuko du Oskorrikoekin batera. Jose Antonio Retolatzaren eta Lorea Larrañagaren zuzendaritzapean egingo dute hori. Lorea Larrañagak honela azaldu du: "Espaloiko jendeak proposatu zigun kontzertuan parte hartzea". Abesti bakarra kantatuko dute Elgetako abesbatzakoek: *Ene, izar maitea*. "Azken hilabetean astean pare bat bider elkartu gara entseatzeko", dio. Kontzertu informala izango da, "festa baten modukoa", Larrañagaren hitzetan.

### Ikastetxeko gazteak

Herriko ikastetxean ere jaso dute Oskorrik abestuko duen abestiz osatutako CDa. "Musika eskoletan ibili gara entseatzen", azaldu du Arantxak, musikako irakasleak. Kontuan hartuta kontzertua gauez izango dela, ume txikiak ez dira emanaldira joango, baina bai nagusiagoak direnak: "3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleak joango dira, guztira 27 bat neska-mutiko", gaineratu du.

Kantuak entseatzea aberasgarria izan dela gaineratu du; izan ere, ikasle gehienendako hainbat kantu ezezagunak ziren: "*Markoxen txarrixe* eta *Aitorren hizkuntz zaharra*, adibidez, ezagutzen zituzten, baina ez gainerako euskal kantu tradizionalak", dio.

Kontzertua 22:30ean izango da, gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloian. Sarrerak salgai jarri dituzte 10 eurotan; eta 7 eurotan bazkideendako.

**DATUA**

**18**

ABESTI

18 abestiz osatutako errepertorioa ekarriko du Oskorrik Elgetara: *Ama begira ezazu* eta *Pello Joxepe* ezagunak, tartean.

# Giranicek eta Jon Gurrutxagak girotuko dute kartzela zaharra

A.E. | BERGARA

*Egubakoitzak kartzelan* kontzertu zikloaren barruan Giranice eta Jon Gurrutxaga musikariak igoko dira taula gainera. Bergarako kartzela zaharrean giro berezia jarriko dute bi taldeek. Ohikoa den moduan, musika lasaiaz gozatzeko aukera paregabea izango da gaur.

Giranice hainbat taldetan ibilitako musikariek osatzen dute. Proiektu berria da, hainbat estilo nahasten dituen proiektua. Kantu berean erritmo eta ñabardura aldaketa bortitzak egiten dituen taldea da. Musika instrumentalista egiten dute eta helburua, mezu bat igortzea baino gehiago, egoera bat transmititzea dute. Oinarria rocka da, baina horren gainetik biolin doinuak nagusitzen dira. Bergaran formatu akustikoan joko dute.

### Jon Gurrutxaga

Blues eta rock erritmoak odolean daramatza Jon Gurrutxagak. Arima Beltzaren ondoren Jon &Sugramas taldearekin ibili da Gurrutxaga. Orain, bakarlari moduan etorriko da kartzela zaharrera.

Kontzertua gaur, egubakoitza, izango da, 22:00etan, 3 euroren truke. Gainera, Txapa Irratiak zuzenean eskaniko du kontzertua.


Giranice taldea proiektu berria da. | GOIENA


MARIJE UGALDE

## Bergarako musikariak Burlatan

Bergarako Musika Eskolako gazte bandako 32 neska–mutiko eta hiru irakasle Burlatan izan dira. Iruñean bisita turistikoa egin eta Atarrabian bazkaldu ondoren kontzertua eskaini zuten Burlatako auditoriumean, 500 bat ikusleren aurrean. Bi musika eskolen arteko elkartrukea izan da: Burlatakoak apirilean izan ziren Bergaran.



SPA ZIRKUITUA ETA ASTEBURUKO MENUA
Debako AISIA hotelean, SPA zirkuitua eta asteburuko menua irabazteko aukera.
aisia HOTELES
aisiahoteles.com • deba@aisiahoteles.com
943 60 80 52


ANTZERKIRAKO SARRERAK
Txalo taldearen HIL ARTE BIZI antzezlanerako sarrerak.
Arrasateko Amaia antzokian, maiatzaren 27an, 19.30ean.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!
goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.


LEINTZ GATZAGA ESKORIATZA
EUSKAL HERRIA ALDIZKARIAK AURKEZTEN DU
MUNDUKO KULTUREN FESTA
Leintz Gatzaga - Eskoriatza
2012
Mundumira
gure txispa eta gatza
munduko kulturen saltsan
DEBAGOIENA DEBAGOIENA
MAIATZAK 18 19 20
KONTZERTUAK
RICHARD BUCKNER EEUU
ESNE BELTZA EUSKAL HERRIA
ANARI EUSKAL HERRIA
LA PEGATINA CATALUNYA
KILEMA MADAGASKAR
BIZARDUNAK EUSKAL HERRIA
GAFIEIRA MIÚDA BRASIL
PATTA TA SENDAEZINAK EUSKAL HERRIA
MUTÜRBELTZ EUSKAL HERRIA
EKOFERIXA
PRODUKTU EKOLOGIKOEN ETA SLOW FOOD GASTRONOMIAREN AZOKA
UMEEN GUNEA
-ARTISAUTZA ETA MUNDUKO ZAPOREAK - ELKARTASUN FOROA- KALE ANIMAZIOA...
Elastiko solidarioa 24€ Harpidedunak 19€
902 181 471
WWW.MUNDUMIRAFESTA.COM
info@mundumirafesta.com
ANTOLATZAILEAK
EUSKAL HERRIA
www.euskalherria-aldizkaria.com
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
BABESLE NAGUSIAK
kutxa
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
BABESLEAK
EUSKADI
ekar
Obra Social Fundación "la Caixa"
TERNUA
ULMA
KOLABORATZAILEAK
goiena
radio euskadi
inguru
PEPSI
leitzaran
Slow Food


Asier Rosado, harrapatutako arrain ikusgarri bat eskuetan duela.

ASIER ROSADO

## Asier Rosado | Arrantzalea

# "Arrantza izugarri maite dudan arren, mendiko gidari lanetan jardun nahiko nuke egunen baten"

USOA AGIRRE / AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Arrantza da Asier Rosadoren pasioa (Arrasate, 1985). Hala ere, gaur egun, mendiko gidari izateko erdi mailako gradua egiten ari da Durangon. Mendia eta arrantza maite ditu Asierrek.

**Arrantza da zure zaletasun nagusia. Nola harrapatu zintuen zaletasun horrek?**

Egia esan, denetarik egiten dut, baina mendia eta arrantza dira, batez ere, nire zaletasun nagusiak.

**Orain, arrantzan, ze modalitate praktikatzen duzue?**

Batez ere, *lotura arina* deituriko teknika erabiltzen dugu. Modalitate tradizionala dela esan daiteke, normalean arrantzan hasten den jendeak erabiltzen duen teknika. Euliaren modalitatea ere tradizionala da. Baina, zoritxarrez, tradizio hori galtzen ari da. Eta gu horretan gabiltza, teknika horiek guztiak errekuperatu nahian.

**Arrantza ogibide bihurtzeko asmorik baduzu?**

Denetik egin behar dela uste duen horietakoa naiz ni. Baina ogibide moduan... mendiko gidarik izan nahiko nuke. Bien bitartean, neska-mutikoei arrantza ikastaroak ematen aritzen gara. Ikastaro horien bitartez, arrantzatzeko eta arrantzaz disfrutatzeko arrainak hiltzea ez dela beharrezkoa irakasten ahalegintzen gara. Guk, adibidez, arrain guztiak bizirik aske uzten ditugu. *Arrantza hil barik* delakoa egiten dugu. Azken finean, arrantza kirola dela erakutsi nahi diegu gure ikastaroetako ikasleei. Hau da, helburua ez da arrantzara joatea eta ahalik eta amuarrain gehien etxera eramatea. Pentsaera hori aldatu egin behar dugu; bestela, amuarrainak eta bestelako arrainak desagertu egingo dira-eta. Batez ere, gazteei ideia horiek sartu nahi dizkiegu.

**Arrantzarako zaletasuna nondik datorkizu?**

Hasiera batean, osabarekin hasi nintzen arrantzan, eta pixkanaka-pixkanaka gustatzen joan zitzaidan. Eta gero, lagunekin hasi nintzen noizean behin arrantzara joaten. Hortik etorri zait zaletasuna.

**Hemen inguruan, zure inguruko gazteek badute zaletasunik arrantzarako?**

Egon badaude arrantzarako zaletasuna dutenak. Baina arazoa da mutiko batek arrantzan hasi nahi badu, normalean aitaren bidez hasten dela. Askok, ordea, ez dute horretarako aukerarik. Hori dela eta, arrantzan hasi nahi duten gazte askori ikastaroekin laguntzen saiatzen gara. Hori da gure asmoa.

**Arrantzatzeko leku aproposik badago Arrasate inguruan?**

Badaude, ez asko zoritxarrez, baina egon badaude. Oso leku politak eta erreka batzuk errekuperatzen ari dira. Deba eta Zubillaga ere ari dira errekuperatzen, baina proiektu asko egiteke daude. Erreka gehiago eta hobeto garbitu behar direla uste dut. Beste proiektu bat litzateke jendeari egun baten edo bi egunean errekak garbitzea proposatzea. Izan ere, ez gara konturatzen zenbaterainoko zikinkeria dagoen gure erreketan. Aurreko aldi batean, adibidez, lagun batek argazkia bidali zuen Deba ibaian hiru hozkailu zeudela salatzen. Batzuen iritziz, errekak zaborra botatzeko tokiak dira, eta horrek ez luke horrela izan behar. Behintzat, ez genuke onartu behar.

**Itsasoa asko maite duzu, baina mendian ibiltzea ere gustatzen zaizu, ezta?**

Mendian eskalada egiten dut, sarritan joaten naiz mendira. Mendia orokorrean oso gustuko dut, eta berdin dit zeinetara joan. 900 metroko edo 4.000 metroko mendietara joan ninteke, berdin-berdin disfrutatzen dut. Izan ere, Pirinioetara ere asko joaten naiz.

**Beraz, zu herrian ez zara askorik egongo.**

Egoten naiz, baina gutxi. Ahal izanez gero, kanpora joatea oso gustuko dut. Aukera erraza izaten da, mendia edo erreka.

### PERTSONALA

**Arrantza egiteko lekurik aproposena:** Pirinioak, Burgos edo Errioxa.

**Bidaiatzeko leku bat:** Kanada edo Laponia.

**Herriko txoko gustukoena:** Zigorrola.

**Musika talde bat:** Bob Marley.

**Film bat:** *Intocable.*

**Jaki gustukoena:** Lupia.

**Amets bat:** mendiko gidari moduan lan egitea.

**Mendira?** Euskal Herria oso polita da. Hemen oso leku onak eta politak daude.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela. Garaje itxia. Trastelekua. Sukalde hornitua. Dena kanpoaldera begira. Igogailuarekin. 8 urte dauzka. 650 58 24 48

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zaldibar kalean, parkean bertan. Hiru logelakoa. Miren. 637 00 38 57

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurre kalean. Aukera paregabea. 70.000 €. 75 metro koadro. Obra egiteko. 645 70 17 21

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, jangela-egongela, bi logela eta bainugela. Jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 35 metro koadroko garajea aukeran. Inigo. 659 72 06 64

**Saint Lary.** Estudioa salgai, Frantziako Pirinioetan. Pistetan bertan. Guztiz jantzia. Prezio negoziagarria. 664 12 22 11

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errentan. Berritua. Bi logelakoa. Igogailuarekin. 645 00 89 97 edo 645 70 80 26

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Jantzia eta egoera onean, bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Gasezko berogailu indibiduala. Erdialdean. 605 74 34 39 edo 645 00 90 03

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Guztiz jantzia. Berokuntzarekin. Oso eguzkitsua. 669 66 54 99

**Costa Ballena (Cadiz).** Udarako etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bi bainu eta garajearekin. Hondartzatik oso gertu eta igerilekua urbanizazioan. Oso aproposa familian oporrak pasatzeko. Deitu zenbaki hauetara: 679 84 62 48 edo 648 03 21 53

**Donostia.** Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan uztail eta abuztuan. Prezio interesgarria. Kontxi. Deitu 652 76 21 63 telefonora.

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bi bainugela, egongela-jangela eta sukaldea. Guztiz jantzia. Ia berria. 606 08 39 92

**Miarritze.** Aireportu inguruan apartamentua ematen da errentan. San Juanetan, Bergarako jaietan zein udarako. 2-4 pertsonarendako egokia. Aparkalekua eta igerilekua dauzka. Deitu 638 89 49 26 telefonora.

**Oñati.** Errekalde auzoan. Hiru logela. Argitsua. Hornitua eta jantzia. Igogailua. Garajea ere alokatzeko aukera. Deitu zenbaki honetara 19:00etatik aurrera. 679 87 87 48

**Peñiscola.** Hondartzako lehen ilaran. 2-6 pertsonarendako. Igerilekuarekin. Jantzia eta hornitua. Hamabostaldika ematen da errentan. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza behar dugu errentan 2012-13 ikasturterako. Hiru logelakoa, jantzia eta egoera onean. Partikularren artekoa. 685 72 32 50 edo 639 72 91 50

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa eta aukeran igogailuarekin, edo lehen edo bigarren solairuan. Partikularren artekoa. Inaki. 689 45 06 98

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 648 46 90 51

**Malaga.** Kostaldean etxebizitza hartuko genuke errentan abuzturako. 618 90 23 66

**Oñati.** Apartamentua behar dut errentan. 627 39 98 46

**Oñati.** Etxebizitza behar dut errentan. 600 31 14 16

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat alokagai dugu unibertsitate ondoan. Tel.: 630 71 35 83

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 620 52 94 98

**Arrasate.** Lau gelako etxea osatzeko gela bat errentan. Langileak bizi dira bertan. Etxea oso eguzkitsua da. Deitu 653 71 44 57 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko erdigunean. Inaki. 608 49 89 93

**Zarautz.** Pertsona bat behar da Zarautzen pisu bat konpartitzeko. Etxea berrituta dago. Hiru logela eta terraza handia eta eguzkitsua du. 658 71 66 93

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** 16 metro koadroko garaje itxia salgai edo errentan, Iralabarri plazan. 659 44 86 79

### 202. EROSI

**Antzuola.** Garaje itxia erosi edo errentan hartuko nuke. Deitu 679 31 75 50 telefonora.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 15,5 metro koadroko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontzezino-Iturbide egoitza artean. 628 14 92 74

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Larrea etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. E-posta soliveira@hotmail.es. Kontaktua: Sergio. 678 53 82 48

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARETXABALETA**
Taberna ematen da errentan.
Kokapen oso ona.
943 53 38 27

### 304. ERRENTAN HARTU

**Aramaion lokala.** Aramaioko gazte talde bat lokal bila. 630 43 31 17 edo 665 75 79 57

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Bergaran.** emakumea lan desberdinak egiteko gertu: garbiketa lanak, nagusiak zaindu.. 647 10 58 72

**Arrasate.** Bertako emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Esperientziaduna. 943 79 60 89

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Arrasate.** Neska gertu interna bezala edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen ere bai. 610 68 81 58

**Arrasate.** Neska gertu interna moduan edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen eta abar. 689 95 12 83

**Bergara.** 18 urteko mutila interesaturik dago ostiral, asteburu eta jai egunetan Bergaran zerbitzari lanetan aritzeko. 627 36 83 70

**Bergara.** Emakume bergararra gertu arratsaldetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu 665 75 41 32 telefonora.

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu garbiketa lanak, nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Ordutegi malgua. 671 21 55 26

**Bergara.** Esperientziadun gizonezkoa gertu garbiketa lanak, nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Ordutegi malgua. 691 72 67 38

**Bergara.** Neska gertu etxeak garbitzeko goiz edo arratsaldez. 605 51 96 89

**Debagoiena.** Autobus gidari, zerbitzari edo fenwick-a erabiltzen lan egingo nuke. Deitu 698 59 37 57 telefonora.

**Debagoiena.** Autoen mekanikaria naiz eta lana egiteko prest nago. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Nere telefonoa: 645 54 43 25

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, etxean bizi izaten zein bestela lan egiteko. Ume edo nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 682 31 97 37

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Ordutegi malgua. Eskarmentuduna. 618 00 08 28

**Debagoiena.** Etxe laguntzaile titulua duen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. Atari, etxe eta bestelako garbiketak egiteko ere prest nengoke. Eskarmentuduna. 629 80 77 73

**ARRASATE**
Ederra taberna ematen da errentan, Iturriotz 12an.
688 63 01 82

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bizi izaten edo bestela. Legezko paperak ditut. 636 77 44 24

**Debagoiena.** Lan bila nabil garbiketak egiten, ume edo nagusiak zaintzen, sukaldean eta abar. Gidatzeko baimena eta autoa dauzkat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Lan egiteko gogoz dagoen Arrasateko 37 urteko gaztea lan desberdinak egiteko prest: margoketa, iturgintza, igeltserotza, lorezaintza, ortu lanak eta abar. Deitu 683 42 87 04 zenbakira.

**Debagoiena.** Mandatuak, porteak edo etxeko bisitak egiteko gertu egongo nintzateke, etxe zein baserrietan. Interesatuok deitu telefono honetara: 677 80 16 10

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa lanetan jarduteko. Cristian. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Baita ospitalean ere. Eskermentuduna. Peoi edo laguntzaile lanak ere egind itzaket. Ofimatika ezagutzak ditut. 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo zama lanak egiten laguntzeko. 615 72 03 84 edo 943 04 45 38

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Berahala hasteko gertu nengoke. Asteburuetan ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 689 18 04 12

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 77 44 24

**Debagoiena.** Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egin edo nagusiak zaindu zein paseoan laguntzeko. Interesatuok deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska bat eskaintzen da umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko atariak zein bulegoak garbitzeko. 679 30 65 28

**Debagoiena.** Neska bat eskaintzen da umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko atariak zein bulegoak garbitzeko. 681 10 92 21

**Debagoiena.** Neska bat, euskalduna, nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientzia eta informeak ditu. Disponibilitate osoa, gida-baimena eta autoa ditu. 671 35 22 60

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

